



ttiipi-ttapa

TOKIKOM

erran.eus

2016ko uztailearen 14a | XXXVI. urtea | 666. zenbakia



Bidasoko trenaren mendeurreko erakusketa herriz herri → 28

Herrietako bestak
Arano, Elgorriaga, Elizondo eta Ituren.

BERA → 29
Erraldioen Topaketa uztailearen 31n

BASABURU TTIKIA → 41
Pagoetako harrobiko espedientea artxibatua

GOIZUETA → 46
Karmen bezperako festa uztailearen 15ean

DONEZTEBE → 56
Nafarroako Herriarteko pilota txapelketan nagusi

Pottokaren Eguna ospatuko dute Saran uztailearen 23an

Euskal Herriko zaldi arraza honen tokia aldarrikatzeko eguna ospatzen 1996an hasi ziren Saran, eta oraindik ere ohitura horrekin segitzen dute. Uztailearen 23an, goizean hasita, pottokak ikusgai izanen dira eta horrez gain, lehiaketa ere egingen dute. Animaziorik ere ez da faltako.



→ 54

AMATASUNA ETA FEMINISMOA



«Ez da egin beharreko zerbait, gure erabaki bat baizik»

Nola bizi ditu emakume feministak amatasunak sortu ohi dituen aldaketak? Galdera hori abiapuntutzat hartuta, ama eta feminista diren bortz emakumezkoregana jo du TTIPI-TTAPAK: Aitziber Zapiain, Ines Matxiarena, Maite Perurena, Haizea Ziluaga eta Maite Blancok euren bizipenak kontatu dizkigute.

ERREPORTAJEA → 3-5



'Baztanen eskuara barra-barra' Baztandarren Biltzarra uztailearen 17an Elizondon

Urtero bezala, uztaileko hirugarren igandean ospatuko dute Elizondoko karriketan baztandarren besta handia. Egun osoko ospakizuna izanen da: artisau azoka, orgen desfilea, Mutildantzak, bertako produktuekin egindako herri bazkaria, dantzaldiak... Ez da girorik faltako aurtenean.

→ 47

HAUTESKUNDEAK → 26

Espainiako hauteskunde orokorren emaitzak

Herriz herri eta eskualdez eskualde, joan den ekainaren 26ko hauteskundee-tan izan ziren emaitzak bildu ditu TTIPI-TTAPAK.

ZOKKETAK → 64



Txartela egiteko deitu **948 63 54 58**ra edo idatzi **info@ttiipi.eusera**.



expert





CLASE A

COMBI SIEMENS
KG 39 NXI 42
201 X 60 X 65 CM

799€ + **75€** + **5 poltsa**
opari hurrengo erosketan

Energia-eraginkortasuna: A+++; No Frost, hotz-marken kontrako altzairu herdoilgaitzeko atek, touch control elektronika atean integratua

COMBI SIEMENS
KG 36 NXI 42
186 X 60 X 65 CM

699€ + **50€** + **5 poltsa**
opari hurrengo erosketan

ERABAKIRIK ONENAK HOTZEAN HARTZEN DIRA

Etorri hozkailuetan daukagun eskaintza zabalaz ikustera eta eraman opari bat

ETA GAINERA ORDAINDU

12 HILABETETAN INTERESIK GABE

Katalogoko hozkailu eta izozkailuetarako

Bidasoa, 45 . 31780 Bera
948 630377 . 948 631091
info@bortziriak.com
www.bortziriak.com

Eskaintza baliagarria 2016/07/31 arte.
Galdetu baldintzak eta xehetasunak.

Liderrak gure eskualdean

eta baita azterketa egiterakoan

CIESek Nafarroa Garaiko mendialdean

hartu duen 111 udalerrien eremuan ere



Ttipi-Ttapa
28.000 irakurle

DIARIO DE NAVARRA	14.000 irakurle
DIARIO DE NOTICIAS	12.000 irakurle
GARA	3.000 irakurle
EL PAÍS	3.000 irakurle
MARCA	2.000 irakurle
EL MUNDO	2.000 irakurle
BERRIA	1.000 irakurle
BESTE BATZUK	8.000 irakurle







SEXUAREN ARABERA

GIZONAK	%55,00
EMAKUMEAK	%45,00

ADINAREN ARABERA

14-24 URTE	%13,40
25-34 URTE	%10,40
35-44 URTE	%27,60
45-54 URTE	%12,70
55-64 URTE	%17,80
+64 URTE	%18,20

IKASKETA MAILAREN ARABERA

IKASKETARIK GABE	%27,60
OINARRIZKO BATXILERGOA	%17,80
GOI MAILAKO BATXILERGOA	%26,40
UNIBERTSITATEA	%28,30

Datu iturria: CIES, 2016ko lehenengo neurketa

JENDARTEA → AMATASUNA

Amatasuna feminismoaren begietatik

G. PIKABEA

Haurdunaldia, erditzea, edoskitzea... Gurasotasuna, maiz, amatasunera mugatzen da. Baina zer gertatzen zaio emakume feministari ama izatea erabakitzen duenean? Honen inguruan galdetu diegu ama eta feminista diren Aitziber Zapiain, Ines Matxiarena, Maite Perurena, Haizea Ziluaga eta Maite Blancori.



**Aitziber ZAPIAIN INTXAUSTI
(ANIZ)**

«Gure desioa zein den jakin behar dugu, gutaz espero denaren arabera erabaki ordez»

«Ama izatea erabaki nuenean, banekien aldaketak etorriko zirela. Aldaketa, ordea, ez zen izan espero bezalakoa». Hala onartu digu Aitziberrek. «Inork ez zidan kontatu zein puntutaraino transformatzen den gure gorputza eta ingurua. Mimo handiz zaindu behar dugu gorputza bere onera etorri arte. Baina normalean, une horretan bakarrik egoten gara».

Azken aldian emakume feministek «nahasmen handia» dutela dio: «hoberena haurri bularra ematea eta bere lehenengo hilabeteak amaren ondoan egotea dela entzuten dugu, eta ardura hori gure gain hartzen dugu. Horrek ez du esan nahi hori denik haurrak egoki zaintzeko modu bakarra. Gure benetako desioa zein den jakin behar dugu, gutaz espero denaren arabera erabakiak hartu ordez».

Berak haurri bularra emanez, «asko gozatu» zuela aitortu digu, baina horretarako eszedentzia eskatu zuenez, «etxeko ardura nagusia ere nire gain hartu nuen hasieran. Hori izan zen gogorrena, bikotekidearekin aldiro negoziatu beharra». Bere irudiko, «amok gure gain hartzen dugu haurraren zaintzaren ardura nagusia eta etxeko lanena. Lan horiek ikusezinak dira». Hortaz, uste du «egunero etxean gertatzen diren ezintasun horiek bistartzea komeni dela, amatasunak

ekarri dezakeen alde iluna ikusgarri egin eta denon artean beste modu batera antolatzeko».

Bularra emateko erabakian, «nire desioa eta kanpoko presioa nahasi» zitzaizkiola ere kontatu digu, «nahiz momentuan ez kontziente izan». Orain, baina, ez daki kanpoko presioak zenbateraino baldintzatu zuen erabaki hori. «Amek bazter guztietatik aholkuak entzuten ditugu. Edo-nork esan diezaguke ongi ala gaizki ari garen, entzun nahi dugun ala ez galde-tu gabe. Oso zaila da egoera horretan amatasuna modua askean bizitzea. Gizarteak gutaz espero duenaren arabera hartzen ditugu erabakiak, eta horrela nahi ez badugu, arreta handia jarri behar dugu».

Ama izandakoan egunaren ordu

gehienak haurrekin pasatzen zituela azaldu digu: «hori zen nire kezka eta ardura nagusia. Uste dut nire bikotekideari ez zitzaiola horrela gertatu». Hilabete gutxira ordura arteko gauzak egin hasi zen. «Ez naiz sekula errudun sentitu haurra aitarekin utzi eta nire gustuko gauzak egin erabakitakoan. Semea nirekin bezain ongi dago aitarekin».

Horren harira, «zergatik ez dira errudun sentitzen gizonak?», galdetu du: «emakume bat haur

zaintzan ikustean, denontzako da ohikoa eta naturala ere bai, askorentzat. Gizon bat haurrekin maiz ikustean edo etxeko lanak bere gain hartzean, aita 'ona' dela esaten dugu. Emakumeak zaintzarako gogoia eta dohaina berezkoak ditugula uste dugu».

(Nola bizi ditu emakume feministak amatasunak sortzen dituen aldaketak?)

Feminismoak emakumezko eta gizonezkoen onurak ekarri dizkiela dio: «genero desberdintasunak bio-sortu dizkigu kalteak. Gure rolei aurre egitea denoi komeni zaigu, eta haur bat bikotekide batek zaindu eta heztea erabakitzean, desorekak nabarmenagoak dira. Niri asko lagundu dit feminismoak nahi ez nituen egoera horiei aurre egiten». Horrez gain, familia eredu berrien beharri aurre egiteaz ere aritu zaigu: «familia eredu desberdinak ditugu, eta jokoan dagoena haurren zaintza da, eta gizarte osoaren gozamina eta ardura izatea lortu behar dugu».

**Ines MATXIARENA ALDALUR
(BERA)**

«Amatasunean ez ezik, arlo guztietan feminismoa lagungarria izan daiteke»

Alabaren nerabezaroan, duela hamar bat urte, hasi zen Ines feminismoa lantzen: «berekin feminismoaren inguruko liburuak bilatu eta irakurtzen hasi nintzen eta Simone de Beauvoir irakurriz, begiak irekitzen hasi ginen». Huraxe izan omen zen abiapuntua. Eta ordutik, berak diogen bezala, «betaurreko moreak jantziz geroztik, feminismoak harrapatu egin nau. Nire burua hezitzeko modu bat bihurtu da», eta gaineratu digunez, «baita nire seme-alabak hezitzeko modua ere. Gaur egun, nire bizitzeko modua izan dadin saiatzen ari naiz».

Hartzen dituen erabakiak bere gain hartzen saiatzen da: «bai onerako eta bai txarrerako ere».



Sei urteko semearen ama da Aitziber. Banandua dago eta Anizen bizi da.

Eta alde horretatik ez omen du «inolako presiorik sentitu. Biei urtea bete arte bularra eman nien eta lanean hasteko erabakiarekin ere ez nintzen errudun sentitu. Ttikienak bi urte bete zituen arte, etxetik kanpo lanik ez egitea erabaki nuen. Gerora, beraien zaintza etxetik kanpo lan egitearekin partekatu dut, eta inoiz ez naiz errudun sentitu».

Haurrak ttikiak zirenean, «oso modu sinple eta xumean» egin omen zuten bikote harremana berdintasunean mantentzeko lehendabiziko saiakera: «euren aitarekin zaintza partekatuz». Aitor-tu digunez, «oso zaila» izan zen. «Duela 20 urteko kontuez ari gara. Bizimodu ortodoxoa eta patriarkatuan oinarritutako bikotea ginen, eta biak lanean». Alabak 12 eta semeak 9 urte zituztenean banandu zen eta «familia eta lana kontziliatzea are zailagoa» egin zitzaiola kontatu digu. Orduan hasi omen zen «mundua feministotik ikusten».

Erran digunez, feminismoaren begietatik «ez dut oso garbi ama izatea ederra denik». Emakume bezala, ordea, «ama izatea ederra» dela dio. Argi du, halere, «amatasunean ez ezik, arlo guztietan feminismoa lagungarri» izan daitekeela. Bere kasuan, gaur egun seme-alabekin duen tratuan «berdintasun maila handia» dutela azaldu digu: «feminismoa bizitzeko modu bat dela askotan solastu gara etxean. Horretarako urratsak ematen saiatzen gara, nahiz eta egungo gizarteak ez askorik lagundu».

Seme-alabak hezitzerakoan bikotean desadostasunak «sari» agertzen direla ere adierazi digu, «gizonezko gehienei zaila egiten zaie euren 'estatus' hori galtzea».

Maite PERURENA LOIARTE (LEITZA)

«Amatasuna modu irekian lantzeko konfidantza eta kemena falta zaizkigu»

«Amazateko erabakia gehi-gi idealizatu da eta errealitatea ez da hain xamurra», esan digu Maitek. «Jaiotzetik, emakumea izateagatik, zenbait ardura, balore eta zereginen bidez, sinestazten digute zaintzaren ardura



Ines Matxiarena beratarrek 23 eta 20 urteko alaba eta semea ditu.



Maiteren bikotekidea hiru seme-alaben aita da eta Maite bera, banandua eta ume baten ama. Lau seme-alaba hazi dituzte bikotekideak eta biek.

nagusia gurea dela, senaz dator-kigula. Horregatik kostatzen zaigu gure heziketa eta ardura harremanak beste erara planteatzea». Baina berak argi du: «bizitzak eta esperientziak erakutsi dit badudala gauzak beste erara antolatzeke boterea».

Amazatea erabakitzen denetik, «zure bizitza baldintzatua» dagoela dio. Bere kasuan, «amazateko erabakiak nire bizitzan izanen zuen eraginaren benetako kontzientzia ondoren etorri da». Dena den, aurretik bikotekidearekin zuen berdintasun harremana mantentzen saiatu zen: «garbi hitz eginez eta konfidantzaz jokatzuz, errazagoa da aldaketa. Baina askotan ez da erraza. Elkarbizitza harremanak konplexuak dira, bi pertsonen arteko interesak jokoan daudelako. Elkarbizitza hori, ume baten jaitzak sortzen dituen emozio guz-

tiekin, indartu ala trakestu daiteke. Aurretik harreman oinarri onak izateak bien arteko inplikazioa erraztu eta sendotuko du, bestela, zailagoa izanen da».

Maiteren iritzi, «ama izatea esperientzia bat da, baina horren barrenean paradoxa asko daude. Jendartearen bizi iraunkortasunaz gain, lan bat egiten dugu eta hori ez dago behar adina baloratua, ez ekonomikoki eta ez sozialki ere. Pentsa zenbat emakumek eman duten bizitza seme-alabaren heziketan inongo kontraprestaziorik gabe, gizarte-segurantzarik gabe, ez pentsio, ez deus. Musutruk. Eta ondoren, askotan, ama izan eta bikotekidearen menpe bizitzeak autonomia eta pobretze arrisku egoerak eragin ditu». Hortaz, «emakumeak umea izatea erabakitzen duenean ez badu egoera ongi kudeatzen», feminismoa-

ren begietatik amatasunak alde ezkorra baduela uste du.

Feminismoa beretzako lagungarri izan omen da: «nire emakume izaerarekin konektatzea bezala da. Nire burua kuestionatu eta defendatzen ikasteko modu bat. Gaur egungo jendartearen, logikoak diren ekarpenak egiten ditu eta interesatzen zaidan parrakidetasuna iristeko bidea markatzen du». Are gehiago, «niri nortasuna sendotu eta amatasuna hobeki, lasaiago eta kulparik gabe bizitzen lagundu dit».

«Ustez» errudun sentimendurik ez omen du inoiz sentitu, baina adierazi digu «ama izateak erabaki, sentimendu eta aurreiritzi asko dituela. Sentsazio hauek onak badira, erraz konpartitzen ditugu, baina amatasunaren alderdi ezkorrak aipatzekoan, kontuz! Ez dizute nolana hi onartuko». Horregatik uste du «amatasunaren gaia modu irekian lantzeko, lasai eta beldurrik gabe aritzeko gure buruarengan konfidantza eta kemena falta zaizkigula». Bere hitzetan, «parrakidetasunera iristean, feminismoaz hitz egiteari utziko diogu, baina momentuz, gauza asko ikasi eta prozesatu beharrak ditugunez, lanean segiko dugu».

Haizea ZILUAGA LARREATEGI (ARANTZA)

«Emakumeok amatasuna askatasunez aukeratzeko eskubidea izan behar dugu»

«Ardurarekin eta poztasunarekin. Gure alaba eta semea giro zorionsuan hazteko nahiarekin». Honela bizi ditu Haizeak amatasunak ekarri dizkion aldaketak. Baina deus baino lehen, azpimarratu nahi izan du bere amatasuna borondatezkoa izan dela: «emakumeek amatasuna askatasunez eta borondatez aukeratzeko eskubidea izan behar dugu; arau moralek eta are guxtiago penalek ezin gaituzte inolara ere behartu nahi gabeko amatasuna onartzera».

Feminismoaren eta amatasunaren arteko harremana «abergarria» dela uste du: «amatasunak ardurak dakartzala erakusten digu feminismoak, baina baita ama izateak ez duela menpekotasunik ekarri behar ere, eta

emakumeen eskubideak borrokatu behar ditugula gizarte justuago eta parekidea sortzeko. Gure ardura da balio feministetan oinarritutako hezkuntza bultzatzea, rol matxista etxetik, eskolatik, kaletik eta eremu guztietatik ezabatuz eta benetako berdintasunari balioa emanez».

Alaba eta semearen ardura konpartitua dute etxean: «zaharrenarekin txandaka antolatzen ginen. Bigarrenarekin ni egon naiz lehen hilabeteetan eta ondoren, aitak lanean eszedentzia eskatu du». Bestalde, bie bularra ematea erabaki zuen «elikadura-gatik egokiena iruditzen zitzaigulako, eta lotura afektibo eta segurtasungatik. Hau niri dagokit eta gustura egiten dugu». Haurdunaldia, erditzea edota edoskitzea amari dagozkien arren, Ziluagak dio «aitak ere badituela egitekoak: pardela aldatu, bainatu, jantzi, besarkatu, musukatu, kulunkatu, paseatu, lehenengo purea eta frutak eman...».

Ama izatea «gauza ederra» da beretzat, «baina egungo sistemak ez digu laguntzen amatasuna bere osotasunean garatzen, sistema kapitalista eta patriarkalak produkzioaren eta etekin ikuspegiatik mailakatzen duelako bizitza». Amatasun baimena aipatu du: «gure amen garaian, umea erditu eta 40 eguneko amatasun baimena baino ez zegoen. Borrokatuz, orain 16 asteko baimena dagokigu. Baina ez da nahikoa». Berak umei lehen sei hilabeteetan era esklusiboan eman zien bularra, «baina baimena 16 aste-koa izatean, hau egiteko oztopo-pila gainditu behar izan ditugu». Kubako adibidea ekarri du gogorra: «Kuba bezalako herri sozialista batean amatasun baimena ehuneko ehunetan ordaindua da umeak lehen urtea bete arte. Hori da nik defendatu eta nahiko nukeena Euskal Herrian». Horrez gain, «ugalketa lanari, etxeko lanei, zaintzari... dagokien balioa eman beharko litzaikeela» adierazi digu: «horiek guztiak lan feminizatuak, ikusezinak eta ordaindu gabeak dira. Duindu egin behar dira eta neurri publikoak hartu, gutxienez parekideak izan daitezten». Hortaz uste du haurrez arduratzeko lan baimen ordaindua behar dela, «etorkizuneari aurrerabide sozial handia ekarriko duelako hezkuntzan,



Haizea Ziluaga 4 urte eta zortzi hilabeteko bi umeren ama da.



Leitzan bizi den Maite Blanco Gomez hamar hilabeteko alabaren ama da.

ongizatean eta osasun kolektiboan». Aldi berean, erran digu «ezinbestekoa dela feminismoa amatasunean, gurasotasunean eta umeen hezkuntzan txertatzea, berdintasunean oinarritutako gizarte bat lortu nahi badugu». Argi du baita ere emakumea dela, «ama den emakume bat, bai, baina ez ama bakarrik».

Maite BLANCO GOMEZ
(LEITZA)

«Garrantzitsua da norbere buruari zertarako izan nahi duen ama galdetzea»

«Hasieran asko kostatu zitzaidan erritmoa gelditzea, bat-batean 'bizi gabe' gelditzea». Baina hamar hilabete beranduago egoera berrira egokitu dela esan digu Maite Blancok, eta gaineratu digunez, «orain hasi naiz be-

netan disfrutatzen».

Ama izateko erabakia hartzea, halere, «ez dela erraza» dio: «luzaroan ez nuen argi izan ama izan nahi nuen ala ez». Galdera «asko» omen zituen: «gizarteak bultzatzen nauelako izan nahi dut ama? Nire gurasoek nahi dutelako? Ama banaiz emakume osoagoa izango naiz?». Norbere buruari zertarako izan nahi duen ama galdetzea «garrantzitsua» dela uste du. Azkenean ama izatea erabaki zuen: «ume bat hezi nahi nuelako, jaioberri bat pertsona egiteko bidean lagundu».

Umearekin bikote harremanean «bat-batean desoreka handia» sortzen dela adierazi digu: «hasieran ez zara jabetzen, umeak behar zaitu eta ez duzu beste ezer pentsatzeko denborarik. Gerora konturatzen zara zein ezberdina den ama edo aita izatea. Amak duen entrega askoz ere handiagoa da». Azaldu digunez,

«biologikoki, normala da aita edo ama izatea ezberdina izatea. Umea nik eraman dut bederatzihilabetez barruan, nik erditu dut, bularra ematea erabaki dut eta nirekin duen lotura aitak ezingo du inoiz izan».

Desberdintasun biologiko horiek ez dute kezkatzen: «arazo gehiago sortzen dit beste maila batzuetan izaten den desoreka; aisialdia, ardura maila, etxeko lanak, lana, ekonomia...». Funtzio eta ardurak berriz banatu behar direla dio «eta batzuetan zaila da adostasunetara heltzea. Bakoitzak bizi duen esperientzia guztiz desberdina baita». Maitek eta bikotekideak laguntza profesionala bilatu zuten eta aitortu digunez, «asko lagundu digu espazio hori konpartitzeak».

Gizarteak amatasunari ematen dion balorea «feminismoak kolokan jartzen duela» uste du: «garai batean emakumei ama izatea gertatu ahal zitzaie gauzarik hoberena zela esaten zitzaie, gizon bat bilatu eta seme-alabak izan behar zituztela. Askok ez zuten beste aukerarik izan. Aukerarik gabeko bizitza inposatu hori kritikatu du feminismoak. Ama izatea ekintza biologiko bat izateaz gain, gertaera sozial, kultural eta politiko bat ere badela mahaigaineratu du». Feminismoaren baitan, amatasunak alde ezkorra badu Maiterentzat: «oraindik ama izatea erabakitzen duen emakumeak prezio handia ordaindu behar du. Sistema patriarkalak ez dio zaintza lanari inolako balorerik ematen eta lanean ere ama izateak emakumea kaltetzen du». Maitek eta bikotekideak «biontzako justua dena hautatu dutela» esan digu, bikote harremanean erabakiak hartu dituztela: «arduren banaketa nola egin, aisialdi denbora nola kudeatu, gastuak...», eta «gure erabakia da», azpimarratu du.

Amak «beti denon ahotan» egonda, «errudun sentitzea oso erraza dela» ere esan digu. Baina berak jasotako mezuak «oso landuak» dituela onartu digu, «nahiz eta tarteka zalantza sortu». Soluzioa zein den ere garbi du: «nire erabakiaren jabe egitea. Benetan nahi dudana egin dut, egin 'beharrekoa' alde batera utzita, eta hartu ditudan erabakien ardura hartu dut, izan dituen ondorio on eta kaltegarriekin».



Nire txanda
Zuriñe ZUBILLAGA

Begirada

Non jartzen dugu begirada? Antzerki bat ikusten ari gara. Dena ilun dago. Dena puntu bakar bat izan ezik. Argi teknikariak puntu bakar bat argitzen du. Ikusleak arreta eskaini beharreko puntua argitzen du. Hori da ikusten dugun bakarra. Besterik ez. Ilun dago gainerakoa. Fikzioan fokuak argitzen du eta errealtatean begiradak. Gure begirada da fokua. Eta non jartzen dugu? Zeri ematen diogu argia, eta zeri iluntasuna? Zeri ematen diogu garrantzia? Gehienetan ez dugu fokua behar den lekuan kokatzen. Gauza garrantzitsuak iluntasunean uzten ditugu. Arreta eskaintzeko inolako esperantzarik gabe geratzen dira iluntasunean ezkutaturik. Eta benetan garrantzia ez duten horiek geratzen dira agerian. Eta zertarako agerian utzi? Bizitzak espero ez genuen bira hori ematen duenean, orduan konturatzen gara fokua ez zegoela behar zuen lekuan. Eta beranduegi ez bada behintzat, zuzentzeko aukera izan dezakegu. Eta berriro ere ikasten dugu bizitzaz, lezio guztiek baitute bere ikaskuntza. Heltzeko, maitatzeko edo besterik gabe, bizitzaz gozatzen ikas-teko.

Ezpala

Aitor AROTZENA

Txingetan beltzak nagusi

Ez da txiste matxista-arrazista txar bat, ez... Euskadiko txinga-eramate txapelketan, Ousmane Dramé jatorri afrikarreko bizkaitarra eta Xanta Sousa brasildar lesakartua izan ziren txapel-dun. Herri kirola izan dute gurean integratzeko modu bat; bertzea, hizkuntza: «hemen bizi behar baduzu, euskara ikasi behar duzu». Batzuei kosta egi-tzaie ulertzea. Honetan ere txapeldun Xanta!

Nabarmentzekoak



Xanta SOUSA
Euskadiko 5. txapela

Uztailaren 2an Eitziegion (Araba) jokatu zen Euskadiko txinga eroate txapelketan bosgarren aldiz txapela lortu zuen lesakarrak. 55 plazarekin, berak zeukan errekorra ere hobetu zuen.



Niko MINDEGIA
Txupinazoa Donezteben

Aurten lehen aldiz doneztebarrek aukeratu dute San Pedro bestetako txupinazoa nork bota. Heldu den urtean Danimarkan ariko den eskubalo jokalaririk piztu zuen lehen suziria.



Manuel CARIÑENA
Bidasoko Trenaren maitale

Urte bukaera bitarte eskualdean herriz herri ibiliko da Bidasoko trenbidearen mendeurrenaren erakusketa. Hainbat tresna, txartel eta irudi, irundar honek bilduak dira.

Atzera begira → 2006-VII-13 / TTIPI-TTAPA 329 zk.



Berako Gure Txokoa elkarteak 75. urteurrena ospatu zuen

1931. urtean sortu zen Gure Txokoa elkarte Beran, eta beraz, duela hamar urte 75. urteurrenako ospakizunak egin zituzten. Uztailaren 1ean, bizi zen sortzaile bakarra, Antonio Lasarte omendu zuten. Aurreskua dantzatu zioten eta oroi-garria eman zion orduan Gure Txokoako presidente ordea zen Kristina Lasarte bilobak. Argazki zaharren erakusketa eta 250 lagun bildu zituen zikiroa izan zuten. Bitxikeri moduan, Enderlatsan sortu eta Biriatur bizi zen Jose Martin Zugarramurdi, Gure Txokoak 1936an antolatutako txirridularitza proba batean irabazitako zintarekin joan zen otordura.

ttipi-ttapa

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 635458 • Faxa (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • info@ttipi.eu

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre **Berriemaileak** Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irtatzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Tellebea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2016ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leitza	20€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	74€
Amerika eta Australia	124€



Bortzirietako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua

Kolaborazioak

Destino petrala

Juainas PAUL ARZAK

Aitorrek, 12:47ean idatzi omen du. Nik, 16:15ean ireki dut. Mezua zen eta da: "Possible izanen zenuke hurrengo aldizkarirako kolaborazio testutxo bat prestatzea? ... uztailaren 4rako... Milaesker!".

Eta? Ekainaren 28a dugula. Ez da edozein eguna. Zer idatzi behar dut, txanpiñoen (*Psalliota bispora*) laborantzari buruz?

Ez, doike, dudarik gabe eta inolaz ere. Ordea, zer esan dezaket biok dakigun hori hautatu zelako igandean? Are gehiago, zer hautatu zen badakigu? Zein ondorioak ekarriko dituen? Eta abar luze-luze bat... Oraindik ez.

Hori bai, bakoitzak berea jakinen du baina, den-denek, zu eta ni barne, hautatu genuenaren arduradugu, haien kontrola eta segizioa dagokigu-ahal den neurrian-eta

erantzukizuna eskatzea. Lan galanta!

Galdera honek, ordea, nahasketa sortzen dit: zergatik eman dugu eman dugun botoa? Erantzun bakarra topatuko zenuen? Nafarroan, Geroa Baikoa ikusirik,

iluntasunak pasa dio faktura? (Aroztegia, Lesako merkatal borroka eta zaborren kudeaketa, hezkuntzarena...). Edo Esparzak bota dituenak sustraitzeko bidea harrapatu dute? Zurean ere?

Grabeago, galantago: gure izenean egiten dutena ez bazaigu axola? Egiten digutena eta lapurtzen dutena ahaztu egiten dugu?... Hauteskundeak dira. Botoa eman eta hor konpon!

Barkatu. Buruak ez dit gehiagorako ematen. Berriro Mariano? Berriro nahi ez dudana Europa arrazista

baztertzalea? Mendi puntara bizitzera joateko gogoia ematen dit. Ui-Ui-Ui ama! Hau dugu hau destino petrala!

«Bakoitzak berea jakinen du baina, den-denek, zu eta ni barne, hautatu genuenaren ardura dugu, haien kontrola eta segizioa dagokigu-ahal den neurrian-eta erantzukizuna eskatzea. Lan galanta!»

«Hauteskundeak dira. Botoa eman eta hor konpon! Barkatu. Buruak ez dit gehiagorako ematen. Berriro Mariano? Berriro nahi ez dudana Europa arrazista baztertzalea? Mendi puntara bizitzera joateko gogoia ematen dit. Ui-Ui-Ui ama! Hau dugu hau destino petrala!»

Gerra biztu zen

Mikel TABERNA IRAZOKI «Kapi»

Justu orain dela laurogei urte biztu zen gerra Espainia erraten dioten lurralde honetan, 1936ko uztailaren 18an. Orain bezala, orduan ere uda. Uda beroa. Sua. Jende aunitzentzat ustekabean etorri izanen zen eromen hura. Ez zen orain bezala zabaltzen informazioa eta desinformazioa. Pentsazu, batzuk ariko ziren oroitzen zeinen ongi ibili ziren sanferminetan edo planak egiten euren herriko bestetarako, edo esposatzeko, edo ez dakit non lanean hasteko, edo egonen ziren haurdun familia egiteko gutti falta, eta bertze batzuk, bitartean, fusilak prestatzen, indarraren poderioz menean hartzeko politikaz diferente pentsatzen zutenak. Militar batzuek estatu kolpea eman baitzuten Errepublika demokratikoaren aurka. Eta militar haiekin batera erreketek eta falangistak. Eta gero jende guzia heriotza dantzan haien inguruan, nahitaez. Zure eta nire familiakoak han ibili izanen ziren, euren borondatez edo beharturik. Alde edo kontra jarri behar zen. Ez zuen balio du-da egiteak. Des-

kuidatzen baziren salatuko zintuzten. Batzuek axa eta bertzeek ausiki. Eta ahal izan zutenak eskapu, mugaren bertze aldera, bizia salbatzera, herrian umiliatuak izan eta gero: emakumeei ilea moztu eta errizino olioia irentsarazi. Hilak frontean, eta fusilatutak Berako harrobian edo trenabide bazterrean, eta kolpatuak (alde batekoak bakarrik?) ospitale bihurtu zuten mojen etxean. Gero, bertze lekuetako soldadu nekatuak baserrietan hartu behar izan zituzten apopilo, debaldeko fondan. Eta preso hartu zituztenak bortxan esklabo gisara lan egitera behartu, Lesatik Oiartzunera doan kamioan eta Berako mugako bunker guzietan. Zure herrian berean eta nirean.

Kontu aterazu zer bizitu zuen gure jendeak urte haietan, eta zer gutti dakigun. Erreparatu zenbat irentsi eta isildu duten hainbertze sufritu zutenak. Batzuek beldurratik, eta bertzeek lotsagatik. Laurogei urte pasatuak izanagatik, falta diren gorputzak lur azpitik ateratzeaz gainera, hitzek ere atera behar lukete ahotik kanpora. Lurrak eta pertsonen arindu behar dute euren karga, eta denok ikasi behar dugu zer izan den gure historia.

«Laurogei urte pasatuak izanagatik, falta diren gorputzak lur azpitik ateratzeaz gainera, hitzek ere atera behar lukete ahotik kanpora. Lurrak eta pertsonen arindu behar dute euren karga, eta denok ikasi behar dugu zein izan den gure historia»



Bota bertsoa

Julen ZELAIETA (Bera) • Doinua: Neskazahar bat tentatzen (10 txikira egokitua)
Baztan-Bidasoko XXIX. Bertsopaper lehiaketan 1. saria (18 urtetik goiti)

Asmatu huen, Joxe Manuel!

1- Joxe Manuel Lujanbio gureztat; Txirrita: aurrerantza zihoak urteen zirrika; Gaur hiri kantatzeko zeukeat irrika. Aztia izan hintzen, pentsatzen jarrita, denborak arrazoa eman berri dik ta.

2- Behin hala bota huen, aginduta senak: bertsotan pasa ondolik herririk gehienak, lurpean sartu arren, emanik onenak: beste laurogei urtez, hitaz oroit denak, izango hituela hire aipamenak.

3- Hogeita hamaseia, Goizuetan plaza. Gazta za(ha)rra gosaldu huen heure kasa. Ez hion hartu txarra huenaren traza; Gaixo, ohean hiru egun luze pasa ta hantxe eman huen azkeneko arnasa.

4- Bi mila ta hamaseia iritsi duk jada. Ekainaren hiruan jarriz begirada; utzi gintuanetik... bat, bi, hiru...hara! kalkulatzeko hasi nauk eta,... kamarada! aurten betetzen dituk zortzi hamarkada!

5- Ba, arrazoa eman nahi diat, ondradu, ta nere miresmena bertsotan azaldu. Iragarpena ez duk noraezean galdu, hire bertsoak buruz baitzekizkiagu... ta oraindik aipatzen jarraitzen diagu.

6- Izan ere, hamaika bertso ta pasarte, bizi mantendu dituk gaur egunera arte. Beti izan haiz herri txiki honen parte. Gaur, aurrean bahengo txapelaz aparte, higatik "alkandora" kenduko niake!

7- Errenterian, Altzan edo Donostian, sortak saldu asmotan prezio garestian, plazara joaten hintzen paperak saskian. Idazten jakin gabe bizi guztian, kantatu, ta ilobak idazten zizkian.

8-Trena jarri ziaten ta bapo tertzeran! Lekuko izan hintzen Pasaiaiko greban. Neskazar bat tentatu huen hasieran ta ondoren fijatu neskatzen jazkeran!... hi haiengan bai, baina, haiek ez, hiregan.

9-Antza, haiengan ezin sortu maitemini ta mutilzar gelditu ezkondu ezinik. Itxurak edukiko zian eraginik, baina aitortuko diat, egin gabe minik: Ez zegoan hi bezain bertsolari finik.

10-Eskolagabe batek, halako kultura! beti erantzunen bat, huen momentura... Hi ez hintzen alfer bat; alferrik duk duda; Bertsotan egin huen, hekien modura, hargin gisara egin ez huen lan hura.

11-Ijitoei jarriak, Canovas zenari, behin jaso omen huen proportziyoari, Ari naizela edo... adibide ugari! Maiz, konturatzen gaituk, hastean kantari, zenbat eman hioan doinutegiari!

12-Sarean egon arren hire argazkiak askoz bizidunago dituk marrazkiak. DVD-an jasoak zeuzkeat guztiak etxean behin ta berriz ikusi dizkiat. hire istorioak handik zekizkiat.

13-Zenbat saio tabernan, astegun betean! Pello Errota ta Paulo Txikia, tartean. Amets egiten diat egunen batean, txotx garaian, Hernani aldera joatean topatuko haudala kupelen artean

14-Nahiz ta sagardotegi zokoetan hezi, nola lehiazalea bahintzen berez hi. Bigarren txapelketa denentzat berezi txapela hiretzako ziaten berezi beste inork ez zian hik beste merezi!

15-Azken urtean lortu huen garaipena! jasoz epaima(ha)jiko ta zaleen omena. Txapel bat izan arren garaikur gorena, denen oroimenean egotearena, ez ote duk batentzat saririk onena?

16-Hamaseigarrenera heldu nauk ta... kito! Aspertuko hintzen ta ez diat segiko. Hi beti izango haiz bertsoaren mito! Bultza eginda ere ez haiz eroriko. Beste laurogei urtez Ez haugu a(ha)ntziko!

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.eus

Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**

Tel.: **948 63 54 58**


Faxa: **948 63 54 57**

Prentsatik bildutakoak



«Hasieran ez zitzaidan gustatu Italiako Girora joatea, aldaketa handia zelako eta ez nengoelako prest egiteko. Pixkanaka lasterketan sartzen joan nintzen eta azkenean errendimendu ona eman nuen. Hasieran ez nuen hori sinistuko». «Polita izan behar du Zelai Eliseotan buruan sartzea eta garaipen horren partaide izatea, baina egunez egun joan beharra dago»

Mikel NIEVE
Leitzako txirrindularia
GARA 2016.06.12



«Bakoitzak gure ideiak ditugu, baina kultura eta euskara dira gure lurraren oinarria, kantu zahar hauek guztiak gure historiaren zatia direla ere esango nuke. Kantua zaharrek ez dute mugarik, libreak dira, nik ez dakit nor dagoen nire ezkerrean edo nire eskuinean kantari, nola pentsatzen duen, baina denon artean ongi pasatzea da helburua».

Angel MARIEZKURRENA
Kantu zaharrak
D.NOTICIAS 2016.06.28

11 galdera labur

Nola aurkeztuko zenuke zure burua?

Oraina bizitzen saiatzen naiz, momentua biziz eta aurrera begiratuz!
Liburuak alde batera utzita, gozatzeko tenorea heldu da?

Inoiz ezin dira alde batera utzi! Aurten lana eta ikasketak uzta-rtzea lortu ditut bigarren gradua distantzia moduan eginez.

Zer ikusten da oroitzapenei begira jarritakoan?

Oroitzapen bihurtzen diren irudiak.
Argazki kameraren aurrean edo atzean gusturago?

Aukeratzekotan, atzean nahiago!
Zer ikusten da zure argazki kameraren gibebeko aldetik?

Jendeari argazkiak ateratzea gustatzen zait gehien, momentu bereziak harrapatuz eta argazki bakoitzak zerbait kontatu dezala bilatuz.

Gustura aterako zenukeen argazkia?

Hego Ameriketara hurrekin boluntario gisa lan egitera joatea aunitz gustatuko litzaidake. Bertako umek bizi duten errealitatea islatuko zuen argazkia berezia izango litzateke.

Zer dute berezia Iturengo bestek?

Herri tikietak giroa, sortzen den elkartasuna.

Bestetako egunik politena?
Ostirala, indarrez eta ilusioz gauden eguna.

Gau edo eguneko besta nahia-go?

Gauen hasi eta lagun giroan gosari eder batekin bukatzen dena.

Bestak akitzean zer asmo?
Kanpoan izan berri naiz, beraz, lan pixka bat egin, inguruko herrietako bestez gozatu eta uda bukaeran bertze bidaiatxo bat egitea gustatuko litzaidake.

Amets bat?
Ditudan amets guztietan sinetsi, haiengatik borrokatu eta betetzeko aukera izatea.



Ixiar BAZTERRIKA → Iturengo gaztea

saroha®
gozotegia okindegia
pº de eztegara 25 bajo
31780 bera (navarra) t.948 63 08 99
www.sarobe.net

MARIIX
Legia, 23-BERA Erakusketa, Proiektu eta
T. (0034) 636 617 450 Instalazio Elektrikoak

BAR Botxo OSTATUA
Zalain • BERA • 948 630 052

EDARIAK
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.com

BERA KATEA BIKE
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA.
Eta orain, GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK, bizikleta estatikoak lasterketako zintak ...
Kanttonberri 1, BERA 948 631 218
kateabera@telefonica.net
MASSORBEA MERIDA SCOTT BH

ZALAIN JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.info

Ileapaindegia
EIDEA
Estetika

Asteartea eta osteguna: 09:00 - 13:30
Asteazkena eta ostirala: 15:00 - 19:00
Larunbatetan: Goizez

Kontsejo, 6 | ITUREN | T. 630 633 445



HERRIKO OSTATUA
ITUREN

ONGI PASA BESTAK!

Pintxoak - Bokatak - Plater Kombinatua
Eguneko Menua 10€
Asteburuko Menua 15€
Sagardotegiko menua enkarquz
Asteburuetan txerrikumea, bildotsa eta oilasko erre

T. 948 451 737
M. 629 349 713



ALTxUNEA ERRETEGIA

Kontsejo, 27 · ITUREN
T. 948 450 410

- Ostiral eguerditiik igande eguerdira
- Besta egunetan eta besta bezperatan
- Uztaialaren 15etik abuztuaren 30era, egunero, astelehenak ezik

ONGI PASA BESTAK!



ONGI PASA BESTAK

ECHEVERRIA
ZURGINDEGIA

ABANTAILAK PVC LEIHOAK

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE

Egiturak	Eskailerak	Ateak	Lurrak
Armarriak	Sukaldeak	Egurrezko leihoak	Leiho mistoak

Leitza errep. · 31745 ITUREN
M. 676 393 996 · T. 948 450 327 · F. 948 456 164
carpinteriaecheverria@yahoo.es



ITURENGO BESTAK

EGITARAUA

UZTAILAK 15, ortziralea

16:00 Haurrentzako herri kirolak, karaokea eta txokolatada. **19:00** Dantzariak **20:00** Txupinazoa eta ondoren kalejira Mendaur Musika Eskolako ikasleekin eta buruhandiek. **21:00** Afaria Altxunea erretegian. **Gauerditik aurrera** berbena Olako taldearen eskutik.



ARGAZKIAK: IXIAR BAZTERRIKA

UZTAILAK 16, larunbata

10:00 Diana. **11:00** Makro Zumba saioa, parte hartzea irekia izanen da eta haurrentzako aurpegia margotzeko tailerra. **12:30** Kajen dorrea. **17:00** Mus txapelketa. **19:00** Paella herrikoia (tresnak etxetik ekarri, osagaiak udalak jarriko ditu). Horrekin batera, xingar jatea eta sagardo kupela). **Arratsaldez eta gaez** dantzaldia Gabezin taldearekin.



UZTAILAK 17, igandea

10:00 Diana. **11:00** Herri kirol saioa: Maika eta Mikel Palaxio, Tito Etxeberria eta Irunerren aurka ariko dira. **18:00** Toka txapelketa eta magra eta gazta pisu asmatzea. **19:00** Tortilla txapelketa (tresnak etxetik ekarri, osagaiak udalak jarriko ditu). Horrekin batera, xingar jatea eta sagardo kupela. **20:00** Dantzaldi mexikarra Puro Relajo taldearen eskutik. **22:30** Musika emanaldia Tresanea ostatuko lorategian Liher taldearen eskutik.



UZTAILAK 18, astelehena

10:00 Diana. **10:30** Plater tiroketa. **12:00** Herriko pilotari eta nesken frontenis txapelketetako finalak. Ondoren pilota partidua: Olaizola eta Eskudero, Olaizola eta Elizalderen aurka. **14:00** Bertso bazkaria: Eli Pagola eta Agin Laburu bertsolariekin. **Ilunabarrean** xingar jatea eta sagardo kupela. **Arratsalde eta gaua** Oihana eta Oihana trikitilariak alaituko dute.




ITURENGO UDALAK
besta zoriontsuak opa dizkizue herritar eta bisitari guztiei




LASAITASUN EREMUA
ESPACIOS DE TRANQUILIDAD

PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK

ongi pasa bestak!





Kontzeju karrika, 11 | ITUREN | 948 450 287
info@tresanea.com | www.tresanea.com

ONGI PASA BESTAK!



PELLET SISTEMEN SALMENTA, INSTALAZIOA ETA MANTENTZEA

948 450 063-620 886 443
info@berotza.es-www.berotza.es
31745 ITUREN (Na)



BEROGAILUA



GALDARA



GALDARA MISTOA



OKINDEGIKO LABEA



ELGORRIAGAKO UDALAK

BESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE
HERRITAR ETA BISITARI GUZTIEI



EGITARAUA

UZTAILAK 22, ortziralea

16:00 Haurren lasterketa herrikoia. **20:00** Bestei hasiera emateko txupinazoa. **21:00** Zopak herriko ostatuan. **Gauean** Rock kontzertua Egurra ta Kitto eta Kalera taldeen eskutik. **Ondoren** Tirri & Tery.



UZTAILAK 23, larunbata

10:00 Puzgarriak haur eta gazteentzat. **14:00** Herri bazkaria: Paella (alde aurretik izena eman behar da). **17:00** Haurrentzako jokoak eta gazte eta helduentzako mus txapelketa. **20:00** Tortilla txapelketa. **Arratsalde eta gauez** dantzaldia Gabenara taldearekin.



UZTAILAK 24, igandea

12:00 Toka lehiaketa. **14:00** Zikiro jatea Beñat akordeoilariak alaituta. **18:00** Joku sorpresak. **Arratsalde eta gauez** Dantzaldia Beñat akordeoilariarekin.



UZTAILAK 25, astelehena

11:00 Meza nagusia. **12:00** Dantzarien ikuskizuna. **13:00** Luntxa. **18:00** Txamukos taldearekin mariatxiak. **Ondoren** besten bukaera.

JOSEAN MARIEZKURRENA ANTONO



«Herri ttikia izanik, denok bat egitea ezinbertzekoa da bestak antolatu eta bestaz gozatu ahal izateko»

Bestetako zapia eta kamisetak prest, besta aurreko azken lanetan dabilza Elgorriagan «herriko gazteak ari dira bestak antolatzen. Kuadrilla polita ari da aurtengoan eta herritarrok ere ahal dugunean laguntzen dugu» azaldu digu Joseanek. Bera ere urtetan aritu izan da zeregin horretan eta «herri ttikia izanik, denok bat egitea ezinbertzekoa da bestak antolatu eta bestaz gozatu ahal izateko».

Kamioi gidaria izanik, batetik bertera ibili ohi da eta herriko bestak ahal duen neurrian probesten ditu «nahi baino guttiago baina ongi probestuak izaten dira». Herriko bestak asko maite ditu eta aitortu digu «lehen gauez aisago» ibiltzen zirela, «ez dugu erran behar ez dugunik maite baina seme-alabak ditugunez, ardua gehiago ere bai. Hala ere, moldatzen gara. Andrea egun batean ateratzen da eta ni beste batean». Orain gehienbat zikiro jateko eguna du gustuko «goizean ekitaldiren batera joan, lagunekin bazkaltzeko bildu eta janarekin eta edanarekin pixka bat epelduta giro polita izaten dugu».

«Inguruko herrietatik ere anima daitezela! Bere ttikian, besta handiak dira eta!».

Elgorriagako bestak «oso herrikoiak» direla aipatu digu, «besta oso politik izaten dira, denok elkar ezagutzen dugu eta giro oso ona izaten da». Hurbileko herrietatik ere izaten omen dituzte urteroko bisitariak «eta ederki ibiltzen dira gure tartean. Beraz, inguruko herrietatik ere anima daitezela! Bere ttikian, besta handiak dira eta!».

Elgorriagako bestak «oso herrikoiak» direla aipatu digu, «besta oso politik izaten dira, denok elkar ezagutzen dugu eta giro oso ona izaten da». Hurbileko herrietatik ere izaten omen dituzte urteroko bisitariak «eta ederki ibiltzen dira gure tartean. Beraz, inguruko herrietatik ere anima daitezela! Bere ttikian, besta handiak dira eta!».

BOKATAK ETA AFARIK EMATEN DIRA



Besta zoriontsuak opa diakizuegu herritarrei eta besta egun hauetan gurekin ez dauden guzkiei

San Pedro, 1 - ELGORRIAGA - 667 018 989



BAZTAN
Ferreteria

Pintura | Kristalak | Tresneria
Aroztegiko gauzak | Opariak

Santiago, 79 · Industrialdea
ELIZONDO · T. 948 580 423

ONGI PASA BESTAKI

Belzunequi
DESDE 1901

Jaime Urrutia 44 · ELIZONDO · Tel.: 948 580 056

ONGI PASA BESTAKI

 **MAPFRE**

Etxea, autoa, bizitza, jubilaria...

Jaime Urrutia, 8 • 31700 ELIZONDO • T.948 58 03 76

A. ETXEBERRIA
PINTURAK

fatxadak barnealdeak
etxebititzak

Ongi pasa bestaki!



Akullegi, 6 - 31700 Elizondo
Tel (0034) 607 587 196
etxebeandoni@hotmail.com



ARKUPE
Gozotegia · Txokolategia



Elizondo - Tel. 948 452 393
Irurita
Tel. 948 452 021 · 948 580 059

ONGI PASA BESTAKI
info@arkupegozotegia.com
www.arkupegozotegia.com

ELIZONDOKO BESTAK



ARGAZKIAK: ONDIKOL

EGITARAUA

UZTAILAK 24, igandea

12:00 Txupinazioa eta Baztan-zopak plazan. **Ondotik**, Konpartsaren itzulia Herriko Etxetik abiatuta Adinekoen egoitzara arte. **16:00** Haurrendako margoaldia eta merendua plazan (margoak bakoitzak ekarri beharko ditu etxetik). **17:30** Pilota eta erremonte partidak. Txaruta pilota eskolako Elizondoko txapelketaren finala. Pilota profesionala: Olazabal-Otxandorena / Aritz Lasa-Goñi. 2016ko Nafarroako Foru Komunitatearen XI. Erremonte Txapelketa. **17:30** Haurren herri krosa. **18:30** Helduen herri krosa, Baztango lasterketa taldeak antolatuta). **19:30** Karrikadantza. Konpartsa, txistulariak, gaitariak, txaranga, banda... **20:00** Salbea elizan. Elizondoko Abesbatzak, Isabel Lacarren zuzendaritzapean, Eslavaren Salbea eta Santiagoren Ereserkia kantatuko ditu, organoan Felix Txoperena eta Claudio Zudaire eta Recreo de Elizondo musika bandaren laguntza izanen duelarik. **Ondotik** Karrikadantza eta Erraldioen Dantza plazan. **20:30** Munduko plateren dastaketa. Jatorri aunitzetako jakiak, jatorri aunitzetako herriarrek eskainiak. **23:30** Kontzertua plazan. Ufestuek, Tumatxak, Joxe Replay eta Aimar eta Xintoren eskutik.





UZTAILAK 25, astelehena

09:30 Argi-soinuak. **10:30** Karrikadantza Herriko Etxetik abiatuta. **11:30** Meza nagusia elizan. Elizondoko Abesbatzak, Isabel Lacarren zuzendaritzapean, organoan Felix Txoperena eta Claudio Zudaire, eta "Recreo de Elizondo" musika Bandaren laguntzaz "Misa de Eslava" eskainiko du. **12:30** Karrikadantza elizatik abiatuta. **13:00** Plazako ekitaldia. Mutildantzak, Erraldoien dantza Elizondoko Bandaren laguntzarekin eta luntx herrikoia. **18:00** Kometa tailerra. **18:00** Herri-kirolak. **19:30** Bertso-saioa. Bertsolariak: Jexux Mari Irazu, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Oihana Iguaran. Gai-jartzailea: Fernando Anbustegi. **21:00** Dantza herrikoiak Ziga plazan. **22:00** Mutildantzak plazan. **23:30** Miguel Angel y el Mariachi de la Cantina plazan. **01:00** Dantzaldia Oharkabe taldearekin plazan.



UZTAILAK 26, asteartea

09:30 Argi-soinuak Beartzunen. **11:00** Erraldoi eta buruhandien konpartsa adinekoren egoitzatik abiatuta. **11:00-14:00** Igerilekurako sarrera libre. Haurrendako uretako puzgarriak ere izanen dira. **14:00** Kuadrillen bazkaria Kuartelego zelaian. **16:00** Jinkana **Ondotik** Bonba japoniarrak. **19:00** Txokolatada. **19:00** Txaranga poteoa elkartez elkarrekin paretetik abiatuta. **20:30** Dantzaldia Trikidantz taldearekin. **21:00** Dantza herrikoiak Ziga plazan. **22:00** Mutildantza plazan. **00:00** Dantzaldia Trikidantz taldearekin plazan.



BICLAM
ileapaindegia

ongi pasa bestak!

Braulio Iriarte, 58 • ELIZONDO • T. 948 581 874

Gonzalez anaiak
aroztegi metalikoa

Burdina eta aluminioa

F. Joakin Iriarte, 5

Tfnoa: 948 580 337

ELIZONDO

Ongi pasa bestak!

librería
nafarpres
liburudenda

ESKATU ZURE TESTU LIBURUAK

Jaime Urrutia, 43 • 948 580 902 • ELIZONDO



24 logela bainuarekin • Aparkalekua
Aire girotua gela guztietan • Hari musikala eta TB
Gela berezia sukalde eta hotel zerbitzuarekin

ongi pasa bestak!



Braulio Iriarte 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853
hostal@antxitonea.com • www.antxitonea.com

BC

BALLARENA
CONSTRUCCIONES

Abartan 22 behea
31700 Elizondo (Na)

T **948 452395**

M 647 688 988 / 647 688 982

ballarenaconstrucciones@gmail.com

www.ballarenaconstrucciones.com

ANZABAL INMOBILIARIA



- Zurich Aseguruak
- Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
- Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
- Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria
- Baseri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T./F. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Ongi pasa bestak!

Autxitxia Gasnategia

- ▶ Bertan egindako ardi gasna
- ▶ Gaztanbera eta zehenderena enkarguz
- ▶ Behi eta ahuntz gasnak
- ▶ Dastatzea eta bisitak

Ramón Agirre Altzelai
Jaime Urrutia, 32 • 31700 Elizondo
657 576 142



ELIZONDO

Santiago, 47
t. 948 580 859

DONEZTEBE

Zazpigurutze, 4
t. 948 451 332

LEITZA

Landabekoa, 2
t. 948 610 612

LESAKA

Plaza Zaharra, 17
t. 948 637 294

BERA

Kanttonberri, 3
t. 948 630 381

*Besta onak opa
dizkizuegu!*



LEHEN

ORAIN

Šutela-Zaldaiñ

instalazioak

TOLDOEN SALMENTA ETA KOLOKAZIOA
IGOGAILUEN INSTALAZIOA
ELEBADOREAK ETXE PARTIKULARRENDAKO
AROTEGI METALIKOA

Santiago, 71
31700 ELIZONDO | NAFARROA
T. 948 580 166 | F. 948 452 557
M. 619 424 999



UZTAILAK 27, asteazkena

09:30 Argi-soinuak. **11:00** Erraldoi eta buruhandiekin ibilaldia Lanbide eskolatik abiatuta. **12:00** Puzgarriak eta Kars Laxoako pilotalekuan. **12:30** Recreo de Elizondo musika bandaren emanaldia Mariano Izeta Plazan. Euria ari badu Arizkunenean izanen da. **13:00** Aitaxi eta amatxi guziendako bazkaria Adinekoen egoitzan. **16:00** Puzgarriak eta Kars Laxoako pilotalekuan. **16:30** Elizondoko VII. Mus txapelketa Xalbador karrikan, Falfara elkarteak antolatuta (adin guziendako). **19:30** Dantzaldia Dantzadi taldearekin plazan. **21:00** Dantza herrikoiak Ziga plazan. **22:00** Mutildantzak. **00:00** Dantzaldia Dantzadi taldearekin plazan.



UZTAILAK 28, ortzeguna

09:30 Argi-soinuak Beartzunen. **11:00** Erraldoi eta buruhandien konpartsa adinekoen egoitzatik abiatuta. **11:00-14:00** Igerilekurako sarrera libre. Haurrendako uretako puzgarriak ere izanen dira. **14:00** Kuadrillen bazkaria Kuartelego zelaian. **16:00** Jinkana **Ondotik** Bonba japoniarrak. **19:00** Txokolatada. **19:00** Txaranga poteoa elkartez elkarrekin paretetik abiatuta. **20:30** Dantzaldia Trikidantz taldearekin. **21:00** Dantza herrikoiak Ziga plazan. **22:00** Mutildantza plazan. **00:00** Dantzaldia Trikidantz taldearekin plazan.



ONGI PASA BESTAK!

idoia oteiza
ileapaindegia
ileapaindegia | makillaje zerbitzuak

Plazaburua, 9 behea Elizondo | T 948 580 390 | www.idoiaoteiza.com

hiru ... betikoa baina ezberdina
Ongi pasa bestak!
Baztan Berr 7 B | ELIZONDO
ostatua T 948 581 219

Kaxulak, plater konbinatuak, bokatak, pizzak, hanburgesak, ensaladak, fritoak...
Etorri eta dastatu gure berezitasunak!

BASTIDATIK ekarritako ARDOAK: Montebuena, Solagüen ardo beltz ondua eta Solagüen txuria
Infusioak zapore guztietakoak
Eskoziar eta Irlandar kafeak

AXULAR

Fotokopiak, faxa, enkuadernazioak, plastifikazioak, aldizkariak, prentsa, tabakoa eta testu liburuak ekartzen dira enkarguz

Ongi pasatu herriko bestak!
eskermile urte guzian
bezero izateagatik

Santiago • ELIZONDO • T: 948 581 507

ongi pasa bestak!

CITROËN

SANSIÑENA garajea

TAILER MEKANIKOA
KOTXEEN SALMENTA ETA KONPONKETA
ENGRASEAK
ERABILITAKO NEKAZAL TRESNERIA
AGRIA, NEW HOLLAND TRAKTOREAK
ZERBITZU OFIZIALA:

NEW HOLLAND AGRICULTURE
AGRIA

Santiago, 37 | ELIZONDO | 948 580 406

BESTA EDERRAK PASATU!



GENERALI

NELI YANCI

**BIZI eta OSASUN AHOLKULARIA
ASEGURUAk eta INBERTSIOAK**

 Generaliaseguroak Elizondo

T./F. 948 580 504 •  649 947 182
Santiago 72B 31700 ELIZONDO
<http://corneliayanciberrueta.seguros.generali.es/generalielizondo@hotmail.com>

J B Iturria
CONSTRUCCIONES

BESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU

Baztan Berri plaza, 2

Tfno: 948 580 304
info@jbiturria.com · www.jbiturria.com

ONGI PASA BESTAKI!



LABORRA ARKITEKTOAK
- Gabriel & Ines -
www.laborra.com
gabriel@laborra.com
Santiago 66, 1º ELIZONDO 948.580.122

arteka
arkitektura arquitectura
Tel. 948580610
Fax 948452434
info@artekabaztan.com
Plaza. Dr. Balda 1-. 1. A
31700. Elizondo Baztan
Nafarroa
www.artekabaztan.com

ALMACO BAZTAN GRUP GATTIA



besta zoriontsuak pasa!

Errepide nagusia, Elizondo
Tel: 948 580 104
www.almacobaztan.com

Loinaz AZURMENDI | Elizondoko Besta Komisioko kidea

«Bestetako aurrekontua ez da haundia, eta urtetik urtera gutiagora doa»



Elizondoko Besta Komisioko kide batzuk, tartean Loinaz Azurmendi, behehian, ezkerretara.

«Mendira joatea, musika entzutea, lagunekin egotea, baratzea lantzea, eta orain, udan, hondartzara joatea». Zaleetasun horietan dituela kontatu digu Loinaz Azurmendi Gaztelumendi elizondarrak. Afizio horiek, eta ofizioz, berriz, erizaina da. Bere hitzetan, «beti ikasten aritzea eskatzen duen lanbidea da. Oposaketak, ikastaroak...».

«Herriko bestak herritarren artean antolatzea arras positiboa da»

Egunerokoa alde batera utzita, aurten estreinakoz, Elizondoko bestak antolatzeke Besta Komisioko ere sartu da. Aitortu digunez, «aspaldi nintzen komisioko sartzeko gogoarekin», bere irudiko «herriko bestak herritarren artean antolatzea arras positiboa» delako. Hamabortz lagun biltzen dira Besta Komisioko, eta Loinazen arabera, «talde polita osatzen dugu». Martxo aldera egin omen zuten lehenbiziko bilera: «lehenbiziko, plangintza orokor bat egin genuen, egin beharreko lanak mahai gainera ateratzen hasi ginen». Eta horretarako «bertze urteetan batzordean ibili den jendearen esperientziak garrantzi handia duela» dio. «Hortik hasita, lanak denekin artean banatu ditugu. Hala ere, denak bat bertzeari esku bat botatzeko prest gaude».

AURTEN SOKA DANTZA

Aurtengo egitarauak berrikuntza bat behintzat baduela aipatu digu Elizondoko gazteak: «soka-dantza prestatzen ari gara herritar batzuen artean, Santio egunean plazan dantzatzeko». Aurrekontuari dagokionez, berriz, ez dela haundia adierazi digu, eta gaineratu digunez, «urtetik urtera gutiagora doa». Gastuak finantzatzeko «komertzio eta enpresen iragarkien bidez, kaleko saltzaileri postua jartzeagatik eskatzen zaienarekin, etxesariarekin eta zikiro-jateko txartelekinekin» biltzen dutenarekin egiten omen dute.

'EGUNEKO BESTA, DUDARIK GABE'

Eguneko ala gaueko giroaren artean aukeratu beharko balu «dudarik gabe, egunekoa» nahiago duela azaldu digu. Bortz egunez ekitaldi saila izaten dituzte Elizondon, eta horien artean aukeratzeko eskatuta, honela erantzun digu: «txupinazoko momentua gustuko dut, eta Fanfarreak Ziga plazan dantza herrikoian jotzen dituen momentua ere bai». Egunen artean, aldiz, Zikiro Eguna omen du gustukoena. Urrutira joan gabe, badakigu non barna aurkituko dugun Loinaz uztailearen 24tik 28ra, herriko bestetan, «ilusioarekin» bizi dituelako eta «herrian sortzen den giroa gusatzeko» zaiolako.

ESKISAROI JATETXEA
ongi pasa bestak!
T. 948 580 013
Jaime Urrutia • ELIZONDO

KRIS OSGES/SAIOA
ongi pasa bestak!
leapaindegua
Giltxaurdi, 14 • ELIZONDO • 948 580 025

ONGI PASA BESTAK

baztan oil
ELIZONDO | www.baztanoil.com
GASOLIOA ETXERA
T. 948 452 309 • M 677 310 009

REPSOL
24 ORDUTAN ETXEAN

LA BAZTANESA S.A

ELIZONDO
Tel/Faxa: 948 580 129
IRUÑA
Tel: 948 222 223
autobuses@labaztanesa.com

Mañonea Agentzia S.L.
GENERALI
Asegurak
AGENTE ESKLUSIBOA Erregistro Zkia.: C0072871193304
www.manoneasegursl.seguros.generalies
ELIZONDO BAZTAN - NAFARROA
T. 948 58 11 32 - 606 89 68 43 | manoneasegur@generalimediadores.es

KONTABLE, ZERGA, LAN eta JURIDIKO AHOLKULARITZA
www.mainoneaagentzia.com
T. 948 58 11 32 - 606 89 68 43
mainonea@mainoneaagentzia.com

INTZA OSTATUA
Besta on batzuk opa dizkiegu kanpoan daudenei ere
JAIME URRUTIA • ELIZONDO • T. 948 580 417

tinkaenergjak

PELLET ETA EGURREZKO ESTUFA ETA KALDERAK
LURREKO SUAK I EGUZKI PLAKAK
HAIZE ERROTAK I TXIMINI GARBIKETAK
ITURGINTZA LANAK

ABARTAN 8.B. ELIZONDO
948 452 772 | 607 631 881 | 637 895 032

www.tinkaenergjak.com
tinka@tinkaenergjak.com

ONGI PASA BESTAK!

LABAYEN
OSTATUA

Etxeko janari goxoa
Zatozte! eta on egin!

Santiago - ELIZONDO
948 580 338

AURREZTU BULEGOKO materialean

Eskata aurrekontua



ttipi-ttapa

Koskontako bidea 7
LESAKA | 948 635 458
kulturkari@ttipi.net
www.ttipi.net

ZERGALAN 
aholkularitza

ONGI PASA BESTAK!

Baztanberri plaza, 6 · 31700 Elizondo · T. 948 581 300 · F. 948 580648
Eliza kalea, 22 · 31740 Doneztebe · T. 948 450 395 · F. 948 451 304
info@zergalan.es · www.zergalan.es

<p>ZERBITZU FISKALAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aholkularitza fiskala • Zerga agiriak • Errenta aitortpenak • BEZ aitortpenak • Sozietate zergak • Zure negozioaren zergen kontrola 	<p>KONTABILITATE ZERBITZUAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kontabilitatean aholkularitza • Enpresen erekitzea • Kontabilitatearen eramatea • Administrazio zerbitzuak • Merkataritza-erregistroan urteko kontuen aurkezpena 	<p>BERTZE ZERBITZUAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Jubilazioen eramatea • Ezgaitasunen eramatea • Lan eta erresidentzi baimenen eramatea • Aita eta amatasun bajak • Langabezi kapitalizazioak • Diru - laguntzak • Negozioen bideragarritasunen eramatea
--	---	--

lino plaza arkitektura

besta zorientsuak opa dizkizuegu!

lino plaza y asociados, s.l.p. | jaime urrutia 36 - 31700 elizondo (nafarroa) | telf. 948 58 18 02 | fax. 948 58 14 12 | e-mail. info@linoplaza.com | web. www.linoplaza.com

ELIZONDOko plazan EROSKI CITY BERRIA

Ekainaren 23tik antzinerazure zerbitzura

Astelehenetik Larunbatera
09:00-21:00

ZATOZ ETA IKUSI !

Santiago 12 · ELIZONDO
T. 948 580 005



EROSKI city

Pello MAIA MARTIKORENA

«Adinarekin bestak bizitzeko modua aldatzen da baina orain ere disfrutatzen dugu»

«Elizondarra eta baztandarra, biak batearra». Hala sentitzen dela onartu digu Pello Maia Martikorenak. Izan ere, nahiz eta Lekarozen sortua izan, «urte batekin gurasoak Elizondorat etorri ziren bizitzerat, eta 50 urte baditut Elizondon».

50 urte Elizondon, eta 50 aldiz baino gehiago odola emateagatik urrezko intsignia jaso du berriki. Nafarroako Odol-Emaileen Elkarteak 50 aldiz baino gehiago odola eman dutenak saritu zituen joan den ekainaren 12an Iruñean, eta tartean zen Pello bera. Kontatu digunez, aurten 25 urte beteko ditu odola ematen hasi zela: «1991ko urrian hasi nintzen eta geroztik, eskaeraren arabera, urtean bi edo hiru aldiz eman izan dut odola». Gustura egiten duen gauza bat dela aitortu digu: «ez da deus ere gostatzen eta erraza da. Gainera, odola behar-beharrezkoa da, eta aunitzetan ez gara ohartzen zein garrantzitsua den». Horregatik, jendea odola ematera animatu nahi izan du.

«1991ko urriaz geroztik, odol-emailea naiz. Ez da deus ere gostatzen eta jendea animatuko nuke»

Baina odola emateagatik baino gehiago, bere lanbideagatik egin da ezagun Pello Elizondon eta Baztanen. Baztango Udaleko guarda da eta erran digunez, «aurten 26 urte eginen ditut lan honetan». Hasmentan, «lehendabiziko bozpasei urteetan», mendian aritzea egokitu omen zitzaion: «landaketak, egur loteak markatu... Orain, mendiko guardek egiten dutena egiten nuen. Orain bi guarda klase gara, baina lehen ez, eta denetarik egiten genuen». Gaur egun, berriz, karrikan egoten da, eta «batez ere, udaltzain lana» egiten omen du, «trafikoa eta halakoak», dio.

Bere lanetik gogorrera «salaketak paratzea» egiten omen zaio, baina gaineratu digunez, «jendeak batzuetan hitzekin bakarrik ez du kasurik egiten eta denuntzia egin behar izaten da». Baztandarra izaki, jende guztia ezaguna du, baina bere-tako hori ez dela arazoa adierazi digu:



ARGAZKIA: ONDIKOL

«jendearekin ongi moldatzen naiz eta ez dut arazorik izaten. Bakoitza nolakoa den ere zerikusia izanen du eta ni frango irekia naiz jendearendako, solas egiteko aise naiz, eta hori nire onerako da».

SANTIOETAN LANA ETA BESTA

Baina dena ez da lana, eta herriko bestak ere maite ditu. Horregatik santioetan lana bai, baina bestarako tartea ere hartzen du. Bezpera du egunik gustukoena, «animatuagoak eta freskoagoak egoten gare-lako». Baina azken eguna ere «polita» dela dio: «Gaixoa ni ikusteko polita da». Adinarekin bestak bizitzeko modua aldatu dela ere aipatu digu: «orain afaldu, lagunekin egon, plazara buelta bat eman, aperitibo hartu... Horrela ibiltzen gara. Lehen, 24-25 urterekin, dena ematen genuen, gaupasa eginez. Baina adinarekin, mentalitatea eta gorputza aldatu egiten dira. Orain ere disfrutatzen dugu, baina bertzeko moduan». 52 urterekin, «arrasongi» pasatzen omen ditu bestak, baina nabarmendu digu, «bere garaian bestak aunitz disfrutatutakoa» dela.

Aurten ere asmo horrekin aterako da Elizondoko karriketarat Pello, «tokatzen zaidanean lana eginez, baina aukera denean, besta pixka bat eginez. Herriko bestak dira eta!».

KARRIKA OSTATUA
ongi pasa bestak!
Jaime Urrutia, 11 • ELIZONDO
948 581 275

Zetizu
ONGI PASA BESTAK!
948 580 230 | Santiago, 62 A - behea 3 | ELIZONDO

elicetxe
suministros electricos
material elektrikoak
ongi pasa bestak!
Tel. 948 581 261 Faxa: 948 452 397
Santiago, 83 Ind. • ELIZONDO
elicetxe@elicetxe.es
www.elicetxe.es

Gureaut TAILERRAK
Mekanika, elektrizitatea, Ibilgailuen salerosketa
ONGI PASA BESTAK!
Datuegibela, 10 - Elizondo | T. 948 580 225
M. 619 328 145 | gureauto2@gmail.com

ONGI PASA BESTAK!
Maite Petirena
Aseguru agentzia
Allianz
Saskaitz plaza • ELIZONDO
Tel. 948 452 394
teresa.petirena@allianzmed.es

JAIMERENA PELUQUEROS
ongi pasa bestak!
T. 948 581 273
Santiago, 19 • ELIZONDO

LEKAROZKO BESTAK
Abuztuaren 21etik 25era 2015

HERRIKO BESTETARAKO BEHAR DUZUN GUZTIA
PROGRAMA LIBURUXKAK · KARTELAK · PEGATINAK · BOLETOAK
Eskatu informazio konpromisorik gabe!

ttipi-ttapa
Koskontako bidea, 7 1 • 31770 LESAKA • T. 948 635 458
erroneus | info@ttipi.eus

Albaitaritza **Materiala**
www.albaitaritza.com **Botika**
Tfno.: 948 580 980 **Hazia**

Osagarri mineralak
Bildots eta aratxeendako esnea
Xaboi eta desinfektatzaileak

Albaitack **Zaldi eta zaldi-zaleentzako produktuak**
www.albaitack.com
Tfno.: 948 506 169

ALBAIKIDE
Tfnoa.: 902 169 169
www.albaikide.com
Albaitari zerbitzua

ELIZONDOKO BESTAK

Saioa JAURENA | Errugbi jokalaria

«Oztopo aunitz izaten dira bidean baina ilusio eta nahiak dena gainditzen du»



Denbora-pasa gisa hasi zena, bere bizitzaren ardatzetako bat bihurtu da Saioa Jaurenarentzat «duela 10 urte hasi nintzen errugbian jokatzeko. Institutuan probatu nuen eta hasieran denbora-pasa hutsa zena serioago hartu eta jokalaria bezala hobetzen joan naiz».

«2017an Irlandan jokatuko den mundialera iristea amesten dut. Horretako urrian Europako txapelketa irabazi beharra dugu».

ILUSIOA OZTOPOEN GAINETIK
Pixkanaka osatu du bere bidea «Iruñeako taldean hasi nintzen eta gero Gebxora joan nintzen. Baionan urte bete egin dut eta Zeelanda Berrian bertze bat. Aurten berriz ere Gebxora bueltatu naiz». Selektzioarekin jokatzeke aukera izatekotan ezinbertzean atera behar izan zuen etxetik kanpora «eman beharreko pausoa izan zen, talde handiago batera joan beharra izan nuen. Liga konpetitibo batean aritu beharra dago, hobetu eta selektzioarekin jokatzeke aukera iristea nahi baduzu».

Jokalaria indartsua da Saioa «atakea gus-tuko dut baina defentsan aritzen naiz gehien» azaldu digu. Defentsarako gaitasun horrek eman dio agian aitzinera egiteko behar izan duen indarra «ez da bide erraza, azkenean kirol ttikia da gurea, laguntza aunitz ez duena. Aitzinera egin nahi baduzu, zure gain hartu behar dituzu gastu guztiak: bertze talde batera joateak, entrenatzera joateak... dakartzan gastu eta aldaketa guztiak. Baina, ilusio eta nahiak dena gainditzen du».





LANAREN EMAITZA

Iritsi den mailara iristeko sekretua «konstantzia» da bere ustez «entrenatzean dago gakoa, erreztasun gehiago edo gutxiago izan ahal dituzu jokoan baina, entrenamendu serio bat ematen baduzu eta konstante izan ezker bakarrik iristen dira emaitzak». Selektzioarekin jokatzeko ari da Saioa eta aitortu digunez, «bertan sartzea kostatzen da eta gero lan egin behar duzu postua mantentzeko, gibeletik heldu den jende gaztea indartsu dator eta».

«Gurea bezalako kirol ttikitian gauza haundiak lortu dituzten kirolari guztiak miresten ditut».

AUKERATU BEHARRA

Entrenamenduak, ikasketak, lana... uz-tartzea ere ez da erraza «ikasketak bukatu arte ongi eraman nituen biak, baita selektzioan sartu nintzenez ere. Orduan ez nuen aukeratu beharrik izan baina, gero bai. Orain adibidez ikasitako horretan lanean aritu beharrean, udako lanak hartu behar izaten ditut gero urtean zehar errugbian aritu ahal izateko. Entrenamenduak, partiduak, kontzentrazioak... baldin badituzu ez da erraza ohiko lan egutegi eta ordutegi batekin moldatzea».

«Errugbiaren inguruan ezezagutza handia dago; ikasteko aukera eman behar litzaike gaztetxoei»

Jarraitzaile eta jokalarikopuruei erreparatzen badiegu «kirol ttikia da hemen errugbia». Horren arrazoi bat «orokorrean, ezezagutza handia dagoela» da Saioaren erranetan. «Baztanen errugbi taldea badagoenez, guk institutuan aukera izan genuen baina talderik ez dagoen tokian haur eta gaztetxo askok ez dute probatzeko aukerarik izaten». Heziketa fisikoko irakasle askok ere ez dakizkitez arauak, ez dago haurrei nork erakutsi «horregatik, jokalarik batzuk eskoletara joaten gara kirol honen ingurukoak erakustera». Landu beharreko arloa da bere ustez «probatzen duten aunitzek kirol honetan segitzea erabakitzen dutelako».

«Urte osoan zehar, kuadrilla bakoitza bere aldetik ibiltzen da. Baina bestak iristen direnean elkartu egiten gara. Lanerako, besterako... polita izaten da».

BESTARAKO TARTEA ERE BAI

Datozen asteetan, herriko bestetaz gozatzeko tarte ere hartuko du «Zugarra-murdiko taberna batean ari naiz lanean eta goizean barraren alde batean egon ondok, Elizondora ailegatu bezain pronto barraren bertze aldera joanen naiz». Kirolari izanda, badaki zaindu beharra duela «bertzenaz entrenamenduan egindakoak ez baitu deustarako balio. Horregatik, egunero ez naiz aterako baina pare bat egun, bai, hartuko ditut... Lanetik ateratakoan, arratsaldean buelta bat eman, lagunekin afaldu eta lasai gustura egonen naiz eta ahal baldin badut kuadrilla eguna goizean goizetik disfrutatuko dut». Egun berezia izaten baita herrian sortzen den giroagatik «urte osoan zehar, kuadrilla bakoitza bere aldetik ibiltzen da baina, bestak iristen direnean elkartu egiten gara. Lanerako, besterako... polita izaten da. Horixe da niretzat Elizondoko besten bereizgarria».

UDARAN ATSEDEN GUTTI

Eta besten ondok, berriro ere, zelai berdera itzuliko da, «errugbi denboraldia neguan izaten da baina aurten ez dugu atsedenerako tarterik izanen. Selektzioarako entrenatzea tokatuko zaigu urrian Europako txapelketa jokatu dugulako». Garaipena lortu ezker, 2017an Irlandan jokatu den mundialerako sailkatuko lirateke «helburu hori lortzeko gure hoberena eman behar dugu». Orain arte lortutakoa ikusita, esura dute ametsa...

ONGI PASA BESTAKO

harrigorri

TRABAJOS VERTICALES

LAN BERTIKALAK
GREMIOANITZA
ERAIKUNTZA
INDUSTRIA
ONDAREA
BIZI BIDEEN INSTALAZIOA
HEGAZTIEN KONTROLERAKO GAILUAK

Juan Antonio Arriero Litago (tony)
692 176 192
www.harrigorri.com

ELEK BERRI

INSTALADORE BAIMENDUAK

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
(ETXE, INDUSTRIA, LOKALAK...)
ENPRESEN MANTENIMENDUA
LED ARGIZAPEN ESTUDIOAK
TELEKOMUNIKAZIO INST.
PORTERO AUTOMATIKOAK
DOMOTIKA

Santiago 118, Elizondo (Na)
elekberri@gmail.com • 646854825 // 616898065

ferreteria Quevedo

Babesa eta edertasuna guziaren gaineratik

- Elektrizitatea
- Zerraildegia
- Erremintak
- Joareak
- Haziak...

Santiago 31 · ELIZONDO
Tfnoa: 948 580 234
Faxa: 948 581 210

Gas, gasolio, egurra eta pellet galdaren zerbitzu teknikoa · Marka guztiak
TXIMINIEN GARBIKETA ZIURTAGIRIAK

MG
mantenimientos
GORRITI

ONGI PASA BESTAK!

M. 620 97 82 97
Santiago, 93 · ELIZONDO

Santiago, 93 ELIZONDO
T. 948 452 126
info@honestolopez.com
www.honestolopez.com

H. LOPEZ

Erreforma integralak eta gremioen koordinazioa
Aire girotua · Tximiniak · Igerilekuen salmenta
Gas, gasolio eta biomasazko galdara eta berogailuak
Zeramika eta bainugelakoaltzarien salmenta

ONGI PASA BESTAK!

BB BLOK BAT
TALLERES

Husqvarna ECHO BCS

Ongi pasa bestak!

T. 948 580 898 ELIZONDO info@biokbat.com www.biokbat.com

Natura Etxea
BELARDENDA ETA DIETETIKA

SENDAGAI NATURALAK
JANARI EKOLOGIKOAK
ARGALTZE ETA MEDIKU KONTSULTA
KOSMETIKA NATURALA
JANARIEN INTOLERANTZIA TESTA

ONGI PASA BESTAK!

SANTIAGO, 47 ELIZONDO T. 948 580 203

ELIZONDOKO BESTAK

Maite HERRERA | Bizikume taldeko kidea

«Gero eta emakume gehiago ikusten dira errepidean eta hau hasiera baino ez da»



Sortzez sunbildarra izan arren, ongi ezagutzen ditu Maitek Elizondoko txoko eta sekretu gehienak «dagoeneko 15 urte daramatzat Elizondon bizitzen eta udalean lanean zazpi». Baztan eta inguruko errepideetan dabilen emakumeen pelotoiko kide ere bada «Bizikume taldeko kidea naiz. Nik berriki ezagutu dut taldea eta orain dela hilabete pare bat egin nintzen kide».

EMAKUMEEN PRESENTZIA HANDITZEKO

Bizikume taldea duela bi urte sortu zuen Erkuden Almagrok, helburu garbi batekin «neskak bizikletan ibiltzera animatzea, gero eta neska gehiago ikustea txirindularitzan eta batez ere ongi pasatzea eta disfrutatzea». Umetatik gustatu izan zaio Maiteri bizikletan ibiltzea, «baina errepidean nahiko berria naiz, orain dela hiru urte hasi nintzen. Gaztetan nire anaia Doneztebeko talde batean ibiltzen zen eta berekin batera familia guzia joaten ginen lasterketetara. Gustatzen zitzaidan bizikle-

«Mota eta adin guzietako neskak gaude taldean. Arrazoi eta helburu desberdinekin. Elkarrekin egun ona pasatzeko prest».

ta. 15 urte nituelarik nire aitari erran nion ni ere gustora ibiliko nintzela baina kontutan izanda Sunbillatik N-121 pasatzen zela ez zidan utzi. Eta orain animatu naiz».

TALDE ANITZA

Bakarrik baino taldean aldapak errazago igotzen direla jakinik, Baztanen talde-txoa sortu dute bizikletan elkarrekin ibiltzeko «aberasgarria da jende gehiagorekin joatea». Elkarren artean duten giroa «hagitz ona» dela azpimarratu digu «mota eta adin guzietako neskak gaude: profesionalak izandakoak, berriki hasitakoak, zikloturistak... denak arrazoi eta helburu desberdinekin. Elkarrekin egun ona pasatzeko prest».

«Ohitura kontua ere bada; normalizatzea lortzen bada, aukera berri bat irekiko da aunitzentzat»

Emakume txirindularien kopuruak azken hamarkadetan goiti egin badu ere, oraindik badago zer landua. Zer egin eskualdean kirol hau sustatzeko? «nik uste normalizatu behar dela. Neskak korriketan ikustea ez da arraroa, ohituaratuak gaudelako neskak ikustera. Bizikletan bai da arraroa, zergatik? Nik uste gutti ikusten direlako. Hori aldatzen bada neskenzat txirindularitza bertze aukera bat izanen da».



Emakumeen lehenbiziko bizikleta ibilaldia egin zuten Baztanen

Ekainaren 19an, bizikleta ibilbidea antolatu zuen emakume talde batek Baztanen. «Primerako giroa izan zen, nahiz eta denbora kaxkarra egin». Maitek azaldu digunez, 25 bat neska elkartu ziren, adin eta txirindulari maila desberdinetakoak «Baztango 15 herriak egin genituen, Lekarozen hornidura puntua eta Erratzun bazkaria. Egun ezin hobea pasatu genuen, jende berria ezagutuz».

Irteera bat baino gehiago egin dituzte eta «edozein lekura joateko prest nago» dio gogotsu «egunerokoan Izpegiko buelta aunitz gustatzen zait. Egia da inguruan leku zoragarriak ditugula» gaineratu digu. Egindako irteeren artean, berriz, bereziki gogoan du Iruñan egindakoa «50 neska elkartu ginelako. Jendea harrিতa gelditzen zen pelotoia ikusten zuelarik».

«Herrietan eguneroko bizitzan bizikletaren erabilera nagusitzea ederra litzateke. Holandan bezala adibidez?».

Batzuek harridurak harridura, «nabari da emakume gehiago dabiltzala errepidean gero eta gehiago ikusten dira eta nik uste hau hasiera dela, gehiagora joanen dela. Horren adierazle bat da neskentzako bereziki produktuak diseinatzen hasi direla ikustea.

«Besta herrikoiak dira, adin guzietako jendearentzat antolatutakoak. Lasaiak, animatuagoak, eguneko giroa, gauekoa... Bakoitzak aukeratu du bere giroa».

BIZIKLETARI ATSEDEN EMATEKO EGUNAK?

Elizondoko bestak iristen direnean, ez dakigu bizikletari erabateko atsedena eman edo tartean igoko ote den gainera, baina «egunez sortzen den besta giroaz gozatzeko gogoia, aperitiboa lasai hartzekoa...» omen du. Orain arte, bestazalea izan dela ere aitortu digu nahiz eta «orain hurrekin lasaiago bizi ditudan. Bestondoak izugarriko perezia ematen dit!».

Besten ondorenerako asmoak ere argi ditu «oporretara joatea!» ongi irabazitako atsedendiaz gozatzeko.

LABIAGA

eraikuntzak

GREMIOEN KOORDINAZIOA

IMANOL 608 117 634

XATUR 608 117 635

Ongi pasa bestak!

BERA | ELIZONDO



Ongi pasa bestak!

Instalazio
elektrikoak

Konponketak



ANGEL TRANTXE
ELEKTRIZISTA

T. 948 452 246 | M. 679 454 113 | ELIZONDO

SOBRINO

ostatua

ONGI PASA
BESTAK

EGUERDI ETA
GAUEAN
pintxoak
bokatak
plater konbinatuak
Hamburgesak eta pizzak
Entsaladak



Santiago · ELIZONDO · T. 948 580 823



Malkorra

ONGI PASA BESTAK!

Txokolatea urrakina egina
Tartak eta pastelak | Etxean egindako izozkia



Santiago, 15 | T. 948 580 061 | ELIZONDO
www.malkorra.com

ESPAINIAKO GORTEETARAKO HAUTESKUNDEAK | 2016/06/26


HAUTESKUNDEAK 2016/06/26 → EMAITZAK ESQUALDEZ-ESQUALDE

Alderdi abertzaleek behera egin dute herri guztietan eta estatalistek gora

Herri guztiak kontuan hartuta, hauxe da botoen bilakaera abendutik ekainera:

2015/2016	Botoen aldea
EH Bildu	-362
Geroa Bai	-1.647
UPN-PP	+95
Elkarrekin Ahal Dugu	+1.148
PSOE	+160
C's	+10


- **EH Bildu** izan da alderdirik bozkatuena (3.590 boto), baina abenduko bozetan baino 362 boto guttiago lortu ditu eta 2011n Amaiur koalizioak jaso zituenak baino 2.579 boto guttiago.
- **Geroa Bai** bigarren indarra izatetik laugarrena izatera pasatu da botoen erdia baino gehiago galduta (1.530 boto). 2011n 1.093 boto gehiago lortu zituen.
- **Elkarrekin Ahal Dugu** izan da bigarren bozkatuena eta gehien igo dena (3.417 boto). Bortzirietan lehen indarra da orain.
- **UPN-PP**k duela sei hilabete baino 95 boto gehiago lortu ditu eta hirugarren indarra izan da (2.167 boto). 2011ko hauteskundeekin konparatuz, 849 boto galdu ditu.
- **PSOE**k ere gora egin du, 160 boto irabazita (1.089 boto). Baina 2011koekin alderatuz, 174 boto galdu ditu.
- **Abstentzioak gora** egin du bai joan den abenduko datuekin konparatuta, baita 2011koekin alderatuta ere.
- 10 udalerritan EH Bildu nagusitu da, 9 udalerritan Elkarrekin Ahal Dugu, 4 udalerritan UPN-PP eta 2tan Geroa Bai.



BAZTAN

	2015	2016
UPN-PP	879	885
EH Bildu	931	860
Elkar.Ahal.*	637	812
GeroaBai	862	372
PSN-PSOE	287	326
C s	121	99
Bertzeak	69	39
Zentsoa	6.058	6.014
Partehartzea	3.902	3.489
Baliokoak	3.850	3.450
Baliogabeak	52	39
Zuriak	64	57

* 2015ean Orain Batera eta Podemos ez ziren elkarrekin aurkeztu, 2016an bai.



BERTIZARANA

	2015	2016
EH Bildu	83	69
Elkar.Ahal.*	54	68
UPN-PP	52	50
PSN-PSOE	28	28
GeroaBai	67	17
C s	9	12
Bertzeak	4	2
Zentsoa	460	462
Partehartzea	308	255
Baliokoak	301	250
Baliogabeak	7	5
Zuriak	4	4


* 2015ean Orain Batera eta Podemos ez ziren elkarrekin aurkeztu, 2016an bai.



BORTZIRIARI

	2015	2016
Elkar.Ahal.*	1.026	1.413
EH Bildu	1.183	1.024
GeroaBai	1.089	561
UPN-PP	482	503
PSN-PSOE	334	399
C s	150	159
Bertzeak	99	33
Zentsoa	6.630	6.588
Partehartzea	4.451	4.183
Baliokoak	4.405	4.139
Baliogabeak	46	44
Zuriak	42	47


* 2015ean Orain Batera eta Podemos ez ziren elkarrekin aurkeztu, 2016an bai.



MALERREKA

	2015	2016
EH Bildu	682	609
Elkar.Ahal.*	420	595
UPN-PP	367	412
GeroaBai	605	328
PSN-PSOE	181	215
C s	51	67
Bertzeak	73	26
Zentsoa	3.808	3.807
Partehartzea	2.434	2.321
Baliokoak	2.401	2.289
Baliogabeak	33	32
Zuriak	22	31


* 2015ean Orain Batera eta Podemos ez ziren elkarrekin aurkeztu, 2016an bai.



LEITZALDEA

	2015	2016
EH Bildu	1.013	960
Elkar.Ahal.*	288	464
GeroaBai	460	214
UPN-PP	200	208
PSN-PSOE	85	105
C s	14	16
Bertzeak	25	39
Zentsoa	3.281	3.244
Partehartzea	2.117	2.017
Baliokoak	2.102	1.987
Baliogabeak	15	30
Zuriak	17	11

* 2015ean Orain Batera eta Podemos ez ziren elkarrekin aurkeztu, 2016an bai.



**URDAZUBI
ZUGARRAMURDI**

	2015	2016
UPN-PP	92	109
EH Bildu	60	68
Elkar.Ahal.*	51	65
GeroaBai	94	38
PSN-PSOE	14	16
C s	7	9
Bertzeak	7	1
Zentsoa	489	502
Partehartzea	340	317
Baliokoak	335	313
Baliogabeak	5	4
Zuriak	10	7

* 2015ean Orain Batera eta Podemos ez ziren elkarrekin aurkeztu, 2016an bai.


ESPAINIAKO GORTEETARAKO HAUTESKUNDEAK | 2016/06/26

HAUTESKUNDEAK 2016/06/26 → EMAITZAK HERRIZ-HERRI

Maparen kolorea aldatu da abendutik ekainera

- EH Bildu
- Geroa Bai
- UPN-PP
- Elkarrekin Ahal Dugu

2015/12/20



2016/06/26



	2016/06/26											
	Zentsoa	Partehartzea	Abstentzioa	Baliogab.	Zuriak	EH Bildu	Elkar.Ahal.	UPN-PP	Geroa Bai	PSOE	C s	Bertzeak
ARANO	99	42	57	0	0	16	13	2	9	0	1	1
ARANTZA	518	332	186	1	4	114	88	27	79	12	6	1
ARESO	220	131	89	2	0	56	24	22	21	6	0	0
BAZTAN	6.014	3.489	2.525	39	57	860	812	885	372	326	99	39
BEINTZA-LABAI.	205	112	93	3	6	10	27	32	16	9	7	2
BERA	2.810	1.786	1.024	16	19	379	670	225	188	183	92	14
BERTIZARANA	462	255	207	5	4	69	68	50	17	28	12	2
DONAMARIA	338	216	122	4	4	55	42	44	38	13	6	4
DONEZTEBE	1.214	798	416	12	12	167	216	167	82	93	39	10
ELGORRIAGA	171	128	43	4	2	28	41	25	12	14	1	1
ERATSUN	144	77	67	0	1	6	16	20	25	6	2	1
ETXALAR	617	371	246	6	10	85	135	69	36	23	5	2
EZKURRA	143	69	74	0	0	18	16	19	12	4	0	0
GOIZUETA	620	383	237	8	3	253	49	15	45	7	1	2
IGANTZI	484	291	193	5	2	76	79	35	58	27	6	3
ITUREN	395	234	161	0	0	118	38	16	37	23	1	1
LEITZA	2.305	1.461	844	20	8	635	378	169	139	92	14	6
LESAKA	2.159	1.403	756	16	12	370	441	147	200	154	50	13
OIZ	111	68	43	5	1	15	18	12	12	5	0	0
SALDIAS	104	52	52	0	0	14	17	8	10	2	1	0
SUNBILLA	591	342	249	2	2	110	113	32	42	31	7	3
URDAZUBI	322	211	111	0	5	38	36	84	31	10	7	0
URROZ	158	87	71	1	1	12	11	23	25	9	3	2
ZUBIETA	233	138	95	1	2	56	40	14	17	6	0	2
ZUGARRAMURDI	180	106	74	4	2	30	29	25	7	6	2	1
Denetara	20.617	12.582	8.035	154	157	3.590	3.417	2.167	1.530	1.089	362	110

GIZARTEA

KULTURA → CEDERNA GARALUR ELKARTEKO BAZTAN-BIDASOA TURISMO GARAPENAK ANTOLATUA, INGURUKO UDALEN LAGUNTZAREKIN

Bidasoko Trenaren mendeurreneko erakusketa herriz herri ibiliko da

Uztailaren 31 arte Lesakan dago, baina erreka osoan ikusteko aukera izanen da urte hondarra arte

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 25etik uztailaren 31ra zabalik da Lesakako Harriondoa Kultur Etxeko komentuko elizan *Bidasoko Trenbidearen Mendeurrenaren (1916-2016)* erakusketa ibiltaria. Ondotik, trenak berrogei urtez egin zuen bezalaxe, errekako herri aunitzetara ailegatuiko da erakusketa abenduaren 31 bitarte.

Jose Luis Etxegarai Lesakako alkateak aurkezpenean aipatu zuenez, «batzuentzat Munduko zortzigarren marbillaren Bidasoko tren, baina egia da ekonomikoki zulo handia izan zela, tximinitik hasi eta azken bagoira bitarte, 40 urteko bere ibilbide gehienean».

1956an, trenbidea desagertu zen urte berean, Laminaciones de Lesaka lantegiaino trenbidea eramateko eskaria egin zuen Jose Luis Varez Fisa lantegioko sustatzaileak eta Renfeko zuzendari nagusiarekin ere bildu zen, baina ez zuen aitzinbiderik izan. Orduan errentagarria izanen zela ueste du Etxegarai, «Laminacionesek milioi bat Tona bobina mugit-



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Erakusketako antolatzaileak eta laguntzaileak, udal ordezkariekin.

tzen baitzituen urtero eta Baztan-Bidasoaldea eta Irun edo Hondarribia-Hendaiako hondartzak lotzeko egokia izan zitekeen. Baina han bukatu zen historia».

Euskotrenen eta Azpeitiko Euskal Museoren izenean zuzendari nagusia, Imanol Leza etxalararra etortzekoa bazen ere, azkenean ezin izan zuen aurkezpenean izan eta bere ordeiz Juanjo Olaizola aritu zen solasean. Aurten sorreraren 100 urteak ez ezik, itxieraren 60 urteak ere betetzen direla gogoratu zuen. «Nafarroako bide estuko trenaren patu triste horixe izan zen, 40 bat urte irautea: Bidasoko trenak bezalaxe, Gasteiz eta Lizarra arteko Vasco-Navarro tren ere 40 urtez ibili zen martxan, Donostia eta Iruña arteko Plazaola ere berdintsu, Iratiko Trena... Nafarroak apustua egin zuen errepidearen eta autobusaren alde eta bi-

DATUA

21

PANELEK

osetzen dute erakusketa, baina horretaz gain, Irungo estazioaren maketa bat eta trenbide eta estazioetako hainbat tresna eta material biltzen ditu.

de estuko trenak suert txarra izan zuen». Bidasoko Trenari *Tren Txikito* deitzearena gure ingurukoa baino gehiago Irungo ohitura dela ere aipatu zuen, «han Europatik zetozen bide zabaleko trenetara ohitua zeudelako».

21 informazio-panelek osatzen dute erakusketa, baina horretaz gain Manuel Cariñena irundarrak eta Juan Mari Telletxea, Iturenen bizi den elizondarrak bildu eta doan utzitako material, sarrera eta

bertzelakoak ere ikusgai daude, bertze batzuren artean.

HERRIZ HERRI

Leire Ortuoste Doneztebeko udal zinegotziak aipatu duenez, Lesakan ikusgai jarri ondotik, abuztuaren 5etik 12ra Etxalarren izanen da ikusgai erakusketa; abuztuaren 20tik 24ra Donamarian; abuztuaren 27tik irailaren 5era eta azaroaren 10etik 20ra Donezteben; irailaren 8tik 11ra Eratsunen; irailaren 13tik 20ra Beran; irailaren 23tik 25era Igantzin; irailaren 27tik urriaren 11ra Sunbillan, urriaren 15etik azaroaren 7ra Baztanen, azaroaren 24tik 27ra Zubietan, abenduaren 2tik 4ra Iturenen, abenduaren 7tik 18ra Bertizaran eta abenduaren 23tik 31ra Elgorriagan. Kirol ekintzaren bat antolatzeke asmoa ere badi Bztan-Bidasoa Turismoak, baina oraindik erabaki gabe dago.

CEDERNA-GARALUR

Erakundearen lan-ildoak onartu dituzte batzar nagusian

TTIPI-TTAPA

Cederna Garalurren Ohiko Batzar Orokorak 2015eko kontuak eta memoria onartu zituen, baita aurtengo aurrekontu eta ekintza-ildoak ere.

2015ari dagokion memoriak Cederna Garalurren laguntzari esker Mendialdean 94 enpresa sortu direla azpimarratu zuen. Bidasoa eta Plazaoalako bide berdeak elkartzeke asmoa duen Ederbidea proiektuaren onarpena ere aipatu zen. Nafarroako Gobernuak kudeatuko du eta Cederna Garalur izanen da zonaldean proiektua koordinatu eta komunikatzeko arduraduna. Mendialdeko turismoari dagokion hausnarketa prozesua, eragileekin batera ari da burutzen eta etorkizunean Cedernak turismoan landuko dituen ildoak erabakitzeke oinarria izanen da.

Azkenik, Cederna Garalurren Berdintasun Planaren baitan 2016rako ekintzak onartu ziren, hala nola erakundearen proiektu eta ekintzak genero ikuspuntuarekin ere planifikatu, aztertu eta kudeatzeko asmoa.

KULTURA → UZTAILAREN 30EAN

Korrontzi Dantzan emanaldirako sarrerak salgai jarri dituzte

Gure Txokoa eta Oinkariko dantzariekin ariko da folk taldea

TTIPI-TTAPA

Gure Txokoa dantza taldeak Korrontzi folk taldearekin eta Oinkariko dantzariekin *Korrontzi Dantzan* emanaldia eskainiko du uztailaren 30ean. Emanaldia 22:00etan hasiko da Eztegarra frontoian eta sarrerak aurrez Agara prentsan egonen dira salgai. Sarreraren prezioa 10 eurokoa izanen da eta 10 urtetik gorako guztiak sarrera izan beharko dute. Sarrera guztiak zenbakituak izanen dira.

Korrontzik Berako dantzariak abuztuaren 10ean Iruñeko Ciudadela emanen duen kontzertura ere gonbidatu ditu eta beratarrek Iruñean dantzateko aukera izanen dute.

'Micromundos a lo bestia' erakusketa

Micromundos a lo bestia izeneko erakus-

ketazabalik dago uztailaren 8tik 31ra Kultur Etxean. Berako Kultur Batzordeak eta Udalak antolatutako erakusketak hameka ilustratzaile lanak biltzen ditu, tartean Maddi Irazoki herritarrarenak. Berekin batera, Pili Aguado, Natalia Albéniz, Aranezio, Mikel Escalera, Alex F, Luisa Jiménez, Amaia Marzabal, Noess, Blanca Quintana eta Angel R. Ganuzaren lanak ikusgai izanen dira.

Asteartetik igandera (igande erratsaldez itxia) ikusteko aukera izanen da, 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 18:00etara.

Gure Txokoa txirindularitza eta futbola

Uztailaren 24an, igande goizeko 11etan hasita, Berako XIII. Saria jokatu da, kadete mailako txirindulariei zuzendua. 42 kilometro egiten dituzte, hamar itzuli eginez 4,2 kilometro zirkuituari. Euskalduna parean izanen da irteera eta helmuga eta zeharbidean barna Zailainera joanen dira, Al-



UTZITAKO ARGAZKIA

Larruazalaren zainketaz ikastaroa egin dute

Eguzkiaren aitzinean eta tratamendu onkologikoaren ondotik larruazala nola zaindu eta babestu behar den ikasteko doako tailerrak egin zituzten ekainaren 25ean. Goiz eta arratsalde zaldetara elkartu ziren.

kaiaga poligonoa eta auzoan barna Geltoki karrikaraino eta Agerrako biribilgunetik barna berri ere Euskaldunara sartuko dira.

Bertze aldetik, 2016-2017ko futbol denboraldia ere antolatzen ari da Gure Txokoa. Matxada futbol zelaiaren berritzeaz gain, jubenilen taldea berreskuratu behar dute. Horrez gain, jokalaria kopuru handia ikusirik, infantil kategorian bi talde ateratzeko aukera planteatu dute, infantil txiki talde bat eta infantileko bertze bat. Horretarako 2003 eta 2004 urteetan jaiotako haurrak animatzen dituzte. Interesatuta daudenek 679 080 432 telefonora deitu dezatela.

Bertzalde, Toki Ona Bortziriak saskibaloitaldeak 3x3 txapelketak antolatu ditu hilaren 23an (herrikoia) eta 24an (elite), 14:00etan.



UZTAILAREN 22AN, KULTUR PROGRAMAN

Animal Blues-en emanaldia

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernu Kultura Zuzendaritza Nagusiak antolatutako Kultur programak ekainaren 17tik irailaren 10era musika, dantza eta arteko 41 emanaldi prestatu ditu. Ortzegun, ortzirale eta larunbat guztietan egiten dira Nafarroako 39 udalerritan eta pasaia- edo ondare-mailako toki interesgarritan.

Uztailaren 22an, ortziralean, 21:00etan Berako Herriko Etxeko Plazan Animal Blues talde nafarrak kontzertua eskainiko du. Emanaldi honekin loturik, Lesakako Burdinaren Museora bisita gidatua eskainiko dute 12:00etan. Gehenez ere 10 bisitari onartuko dituzte eta ordubeteko bisita izanen da (2 euro). Erreserbak Lesakako Udaleko Kultura eta Turismo Bulegoan egin daitezke (kultura@lesaka.eus edo 948 638007).

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

tel. 948 631 519
www.xugabera.com
www.facebook.com/xugabera

JAZONE-GOXOTEGIA
948 630 786
Altzate, 21 · BERA

RRANDONEA, s.l.
BILTEGIA 948 630 102
ANDER 687 736 929
Bidassoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA

LESAKA

KULTURA → UZTAILAREN 1EKOA BERTAN BEHERA

Musika bandak eta Korrontzik bertze emanaldi bat eskainiko dute aurten

Aitor AROTZENA

Uztailaren 1ean, ortziralean hasi ziren Lesakako Musika banda eta Korrontzi taldea bere emanaldia eskaintzen, mila ikusentzuleren aitzinean, baina bospasei abesti joak

zituztenean euriak zapuztu zuen ikuskizuna. Bertan behera utzi behar izan zuten saioa, baina berriz ere eskainiko dute kontzertua, urtea bukatu baino lehen, seguruenik azaro aldera. Beraz, ez bota sarrerak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bortzirietako DYAko laguntzaileak bildu dira 25 urte beranduago

Garai batean herrian egoitza izan zuen Bortzirietako DYA Bide Laguntza elkar-teko hogeitak lagunzailek bere lehen bilkura egin dute, 25 urte beranduago. Taldeko argazkia atera ondotik, Kasino jatetxean egin zuten bazkaria. Hitzorduan izan zen gaur egun Donostiako DYAko presidente eta bere garaian Lesakan lagunzaile izan zen Xabier Baraze.

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 23AN

Euskarak tzipa eginak ospatu dute San Juan bezpera

Manolo Arozenak piztu zuen sua, bertso eskolaren izenean eta balkoi loredu politenak saritu zituzten

Aitor AROTZENA

Euskara Batzordeak San Juan bezperan antolatutako jaialdia Euskarak tzipa eginak izenburupean egin da aurten. Manolo Arozenak piztu zuen sua, aurten 25 urte bete dituen Bortzirietako bertso eskolaren izenean. Baina su gainean saltoka hasi baino lehen, Egoitz Te-



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Manolo Arozena eta bertso eskolako kideak, Fernanda Andueza balkoi loreduen lehiaketako lehen saria jasotzen eta Gorritxo eta Katintxa buruhandi berriak.

lletxeak San Juan putzu aspaldiko ohiturari buruzko azalpenak eman zituen, Onin errekan busti ziren ttikienak eta balkoi loreduen le-

hiaketako sariak banatu zituen Zerbitzuen Elkartek (1. Fernanda Andueza, 2. Lurdes Antxordoki eta 3. Rosa Andueza). Zerbitzuen

Elkartearen eskariz Bihotzkada Kolektiboak egindako buruhandiak ere, *Gorritxo* eta *Katintxa*, aurkeztu zituzten jendaurrean.

IRU BIDE
Erretegia · Asador

Biurraña, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

KSAT
TELEKOMUNIKAZIOAK

- ▶ TDT instalazioak
- ▶ TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- ▶ Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- ▶ Satelite bidezko interneta

ANDONI LASAGA APEZTEGUIA · T. 637 40 86 40 · 31780 BERA · andonimatxako@gmail.com

- Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzeria
- Jantzi tipikoak
- Peñen blusak

kattogorria
lentzeria mertzeria

Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514



ARGAZKIA. JABIER IRIARTE

San Juan sua

Altxatak antolatuta, giro ederrean joan zen San Juan sua. Trikitilariak afaria girotu zuten eta ondoren urteroko ohiturari jarraituz herrian kalejira egin zen. Ilundu zuenean suak piztu ziren eta txistulariek zenbait doinu eskaini zituzten.



ARGAZKIA. OIHAN IPARRAGIRRE

Udaberriko pilota txapelketako finalak

Ekainaren 22an jokatu ziren finalak eta hauek izan ziren emaitzak: Ttikietan (benjaminak) Ekaitz Maiz eta Arri Atondok 18 eta Aitor Azkarraga eta Kepa Telletxeak 17; Alebinetan Joseba Telletxeak 22 eta Jon Gastearrenak 19 eta infantiletan Xabier Telletxeak 22 eta Unai Arburuak 15. Ondotik sari banaketa eta berendua egin ziren Altxataren eskutik. Txapeldunei Asegarceko pilotarien kamiseta ofiziala oparitu zitzairen eta azpitxapeldunei esku pilota bana.

GIZARTEA → UZTAILAREN 19TIK AITZINERA

Aurtengo udan ere Turismo Bulegoa zabalik

Bisita gidatuak ere eskainiko ditu astetartez 20:00etan eta asteburuetan 13:00etan

Irene ELIZAGOIEN

Bertze urte batez turismo bulegoa zabalik egonen da udan. Aste-tartez 10:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara (uztailaren 19tik aitzinera) eta asteburuetan 10:00etatik 13:00etara. Astelehen arratsaldetan itxita egonen da. Bisita gidatuak

aste tartez 20:00etan eta asteburuetan 13:00etan izanen dira (3 euro pertsonako).

Sute elkartearen urteko batzarra

Ekainaren 26an egin zen Etxalarko sute elkartearen urteko batzar orokorra. Oraindik badago jendea SEPA orria entregatu ez duena. Ho-

nen aitzinean hau erabaki zen bileran: 3 hilabeteko epea emanen zaiela pertsona hauei eta epe honetan ez badute SEPA orria entregatzen automatikoki baja emanen zaiela.

Gogorarazten da mendiko suak itzaltzeko pala bereziak ondorengo baserrietan daudela:

-Urritzokieta: Zamu-dieneko bordan.

-Larrapil- Sarriku: Iturraldeko bordan.

-Lakain-Apezborro: Arrineko bordan.

-Orizki: Tolareko-bordan.

-Lurritiederra: Goi-netxegaraian.

-Gorosurreta: Maris-terreneko bordan.

Bertzetik, ekainaren

25 eta uztailaren 2an aitzineko urteetan erositako su-itxalgailuen azterketa egin zen.

Kultur etxearen ordutegia

Ekainaren 27tik abuztuaren 31 arte Kultur Etxeak udako ordutegia izanen du, hau da, 10:00etatik 13:40ra.

okaNe
HARATEGIA / URDAITEGIA
Eñaut & Nekane
Kanttonberri 12 • BERA
Tfno/Fax: 948 630 018

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
Tlf: 948 625 474

ARANTZA

GIZARTEA → LEHENBIZIKO ALDIZ

Herriko txokorik politena eta hobeki zainduaren lehiaketa antolatu du Udalak

Uztailaren 15a baino lehen argazkiak Herriko Etxera eraman behar dira

Nerea ALTZURI

Udaleko Ingurugiro eta Turismo Batzordeak txokorik politenak eta hobekien zainduak direnak saritzeko lehiaketa antolatu du estreinako aldiz. Oinarrietan aipatu denez, lehiaketa honen bidez, Udalak agerian utzi nahi du etxe eta etxe inguruak txukun eta garbi edukitzea ingurunean onurak ekartzen dituela, ingurumenaren kalitatea hobetzen duelarik.

Bi lehiaketa izanen dira: herri kaxkoko txoko eta inguru kontuan hartuz, batetik; eta baserrietako txoko eta inguruak aintzat hartuz, bertzetik. Beraz, herri kaxkoko nahiz baserriko inguru eta txoko eder eta zainduak erakusten dituzten irudiak bilduko dira.

Parte hartu nahi dutenek uztailaren 15a baino lehen Herriko Etxera eraman behar dituzte argazkiak.

HERRITARREN BOTOA

Aurkezturiko argazkiak jende aitzinean egonen dira uztailaren 29ra

bitarte Apezenea eta Dena dendetan eta Udalaren web orrian (www.arantza.eus). Nahiduenak gustukoa duen argazkia bozkatu ahal izanen du. Herritar bakoitzak bozka bat emateko aukera izanen du. Botoa Herriko Etxean eman behar da.

Boto gehien biltzen dituztenentzat lehiaketa bakoitzean lehenbiziko eta bigarren sariak izanen dira: lehenbiziko saria bi lagunentzako zirkuitua Elgorriagako bainuetxean eta bigarrena bi lagunentzako afaria herriko jatetxe batean.

Abuztu hasieran emanen dute sarituen berri.

AEK-ko barnetegiak

Sasoia ailegatuta, udako barnetegiak abian dira herrian. Euskarra ikastera eta praktikatzera etorriko diren AEK-ko 120 ikasle inguru izanen dira aurtengo barnetegietan.

Joan den uztailaren 4an etorri ziren lehenbiziko ikasle eta irakasleak. Heldu den abuztuaren 28ra bitarte, gutzira lau txanda izanen dira. Aterpean egondia eta bertzelako jarduerak...; eskolan ikasketak orduak... euskara beti mingainean! Ongi etorri!



ARGAZKIAK: HAIZEA ZILUAGA

Sanjuan suak

Aitzineko urteetan bezala, aurten ere giro ederrean ospatu zuten herritarrek San Juan bezpera. Herriko bazter bat baino gehiagotan egin zen sua. Parkean, adibidez, haur eta guraso kuadrilla ederra bildu zen, lehenbizi afaldu eta gero su gainean saltoka aritzeko.

HERRIKO BESTAK

Bestetako herri bazkarirako txartelak salgai daude herriko ostatuetan

Udaleko Kultura Batzordeko kideak buru-belarri dabilza Amabirjin bestak antolatzen. Asteburua probeste aldera, aurten bestak larunbatarekin hasiko dira. Abuztuaren 13ko eguerdian botako den txupinazoarekin hasiko dira eta 16an bukatuko dira.

Joan den urtean bezala, herri bazkaria lehenbiziko egunean

eginen da, abuztuaren 13an. Gainera, aldi honetan, zikiro jatea izanen da eta zikiro jaterako txartelak salgai paratu dituzte herriko ostatuetan. Uztailaren 31ra arte erosten ahal izanen dira, 25 eurotan.

Bestetako ekitaldien gainerako xehetasunak abuztuko aldizkarian emanen ditugu.

aterpe
albergea jatetxea ostatua
T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

Martiko
Pol Zalain, s/n.
31780 Bera, Nafarroa
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036
www.martiko.com
Ahatebietan adituak eta arituak

DENDA ORDUTEGIA:
astelehenetik
ortziralera
08:00etatik
17:00etara

KIROLA → UZTAILAREN 2AN, TXINGA-EROATE TXAPELKETA ELTZIEGON (ARABA)

Euskadiko txapeldun suertatu da bosgarren aldiz Xanta Sousa

Leire Ugarte beratarra, berriz, hirugarren izan zen bere lehen parte hartzean

TTIPI-TTAPA

Xanta Sousa Santos lesakarrak bosgarren aldiz lortu du Euskadiko txinga eroate txapelketa irabaztea. Larunbatean Eltziegong jokatu zen txapelketan 55 plaza egin zituen 25 kiloko txingekin, errekor berria ezarriz (1.540 metro). Garazi Arruti bizkaitarra izan zen bigarren, lehia-ketara lehen aldiz aurkeztu den Berako Leire Ugarte hirugarren (14 plaza) eta Laura Perez bizkaitarra laugarren. Beraz, Gure Kirolen Klubeko ordezkari bika in ibili zen eta bi prestatzaileak ere, Patxi eta Donato Larretxea, kontent gelditu ziren egin-dako lanarekin.

Gizonezkoen txapelketan, Ousmane Drame



UTZITAKO ARGAZKIA

Xanta Sousa txapelarekin eta Leire Ugarte, Patxi eta Donato Larretxea prestatzaileekin.

bizkaitarra izan zen txapeldun.

Aipatzekoa da uztailaren 9an Nafarroako emakumezkoen txingaramate txapelketa jokatzekoa zela Iruñean. Xanta Sousa eta Leire Ugarterekin batera, Iruñeko Edurne Gonzalez eta Eider Lopez aritzekoak ziren, eta pronostikoek hutsegite handirik egin ez badute, hau irakurtzerako bertze txapel baten jabe izanen da Xanta Sousa.

UZTAILAREN 25EAN BERAN

Nazioarteko Gaztefolk Jaialdiko saioa egingen dute aurten ere

TTIPI-TTAPA

Azken urteetako ohiturari eutsiz, Bidasoaldeko Nazioarteko Gazte Folklore Jaialdiko saio bat egingen da uztailaren 25ean, astelehen arratseko 8etatik aitzinera Berako Herriko Etxeko Plazan. Eraiki Dantza taldeak antolatatu du saioa Berako udalaren babesarekin.

Peruko Soy del Peru dantza taldea, Ukrainako Polisyanochka haur dantza taldea eta Irungo Eraiki Dantza taldekoak ariko dira. Euria egingen balu, Altzateko frontoian eskainiko litzateke emanaldia.

GIZARTEA

Bazkide-lagun txartela abian jarri du udan Bidazik

TTIPI-TTAPA

Bertze gisako produktioa eta kontsumoa bultzatu nahian, bizi-kalitate osasuntsu eta jasangarriago bat lortzeko bidean, Bidazi elkartearen proiektuak aitzinerat segi ahal izateko, 200 bazkidera iritsi behar dute. «Horretarako, eta elkarte funtzionamenduan sinesten badugu, bazkideok badugu zer egin», dio Bidaziren oharrak. 2016ko udan, bazkide-lagun txartela jarri dute martxan. Horrela, bazkide bakoitzari, berak nahi dituen bazkide-lagun txartelak emanen dizkiete, bere inguruko jendeari emateko. Txartel hauekin, bazkide ez direnek ere bazkideek dituzten abantaila guztiak izanen dituzte: bertako produktuen azoka, produktu ekologikoen azoka herritarra eta bidean suertatzen diren ikastaro edo ekin-tzak. Behin uda pasata, lagun horiek bazkide-tu nahi badira, sarrera-kuota doan lortzeko aukera izanen dute. Bazkide-lagun txartelak banatzen dituzten bazkideek saski bikain baten zozketan parte hartuko dute eta horretaz gain, Bidazi egitasmoaren berri zabal-tzen ere lagunduko dute. Informazio gehiagorako, jo azokara, info@bidazi.org helbidera idatzi edo galdetu facebooken.

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 · Alzate, 17 · BERA

Bidasoa
GASOLINDEGIA
A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA 24 ORDUZ
Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

BORDA LARREA
Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
Tel. 943 467 244 943 467 444 • Fax. 943 473 726 • carnessein@bordako.com

GIZARTEA

MERKATARITZA → DENOK BAT FEDERAZIOAREN OHARRA

‘Nik herri bizi bat nahi dut, zuk?’ kanpaina baikor baloratu dute

Karrikan eztabaida sortu eta herritarren artean garrantzitsuak diren datuak ezagutzera eman dituztela uste dute komertziantek

TTIPI-TTAPA

Denok Bat Baztan, Mallerka eta Bortzirietako Merkataritza-Federazioak maitzean eta ekainean “Nik herri bizi bat nahi dut, zuk?” lelopean kontzientziazio kanpaina abiatu zuen.

Kanpaina honen birtartez eskualdeko herritarrei ohartarazi nahi zitzairen zein eginkizun garrantzitsuak dituzten komertzioek, zerbitzuek zein ostalaritzak. Izan ere, federazioaren iritziz, «gure herrietan, karriketan argia, poza eta bizia mantentzeko beharrezkoak dira bertako komertzio ttikiak».

Mezu hori helarazteko kanpaina osoan 500 kartel handi (100x70 cm) eta 1.250 txiki (A3) banatu eta jarri dira Baztan-Bidasaldeko karrika, komertzio, ostatu eta plazetan. Sare sozial eta medioetan ere mezu bera zabaldu da. Kartel bakoitzak datu, aholku edo gogoeta desberdinak bildu ditu. Denek estetika berdinarekin, kolore eta mezuek aldatuz. Lehenengo kartelean, Baztan-Bidasoan azken 10 urteetan



UTZITAKO ARGAZKIA

Egunero 30 euro eta astero 200 euro zozketatu ditu Denok Bat Federazioak.

DATUA

1.360

PERTSONEK
egiten dute lan
Baztan-Bidasaldean
komertzio ttikietan.

itxi diren komertzio guztien datua zabaldu zen: guztira 102 komertzio. Kartel hau eskapirate beltzen kanpainaren ondotik publikatu zenez ohartzun handia izan zuen. Bigarren kartelak sektoreak eskualdean duen garrantzia erakutsi zuen, datu esanguratsu batekin: eskualdean 1.360 pertsonak lan egiten dute komertzio ttikietan. Hirugarren kartelak Bertako komertzioetan kontsumituz denok irabazten duguzioen, izan ere, komertzioek zergak eta tasak eskualdean ordaintzen dituztenez, diru hori bertako zerbitzu publikoak sortu eta hobetzeko erabiltzen dira eta herritarrek onura horietatik baliatu daitezke. Laugarren kartelak gazteei zuzendua zegoen. Eskualdeko komertzioetan erosiz etxetik hurbil lan egiteko aukera gehiago izanen di-

tuztela azaldu nahi zen. Gazteak izan dira sentsibilizazio kanpaina honen erronka handiena eta horregatik kartel bat eskaintzea garrantzitsua zela uste du Denok Bat Federazioak. Azken lana, erreflexio kartela zen. Aurreko datu eta aholkuak ikusiz herritarrei ondorengo galdera bideratu zitzairen: Zuk zer egiten duzu herria bizi mantentzeko? Azken kartel honek gogoeta egitea bultzatu nahi zuen.

Azken kartelarekin batera aitzineko denak

laburbiltzen dituen bideo bat publikatu dute. Lan hau, azken kartelean agertzen den QR kodea mugikorrarekin eskaneatuz edo elkarte parte hartzaileen sare sozial ezberdinetan ikus daitezke.

Behin kanpaina akituta, Denok Bat elkartetik kanpaina modu positiboan baloratu dute. Karrikan eztabaida, zer esana eta herritarrei garrantzitsuak diren datuak ezagutzera ematea lortu omen da. Baztan Bidasoko komertzioen artean koordinazioa eta kohesioa bultzatu da. Eskualde bizi baten alde lan egiten segitzeko indarra eman diela aitortu dute federazioko kideek.

Kanpaina honekin bateratsu, egunero 30 euroko erosketa-bonopak eta astero 200 eurokoa zozketatu dituzte. Argazkian ageri dira saridun gehienak.

KULTURA

Haurrendako tailerra Arte eta paisaiari buruz Bertizen

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Museoa 60 urte bete ditu eta “Museoa karrikerara ateratzen da” goiburupean ospatuko du. Ekainaren 24tik urriaren 2ra Arte eta paisaia. Nafarroako Museoa Bertizen erakusketa zabaldu du. Bertizko Parkeko aparkalekuko zabaldegian ikus daitezkeen 7 eskulturen maketak ikusgai daude Museoa bertan eta uztailaren 19tik 22ra haurrendako udako tailerra ere antolatuko du. Baina uda honetako jardueraren protagonista Bertizko artelanak direnez, Bertizera ere ailegatu da haurrendako Arte eta Paisaia tailerra. Uztailaren 26, 27, 28 eta 29an eskainiko da eskulturak dauden natur parkeko zabaldegian.

La Chincheta Bruna taldea osatzen duten Sonia Ilzarbek eta Eneko Perezek eskainiko dute tailer elebiduna, euskaraz eta gazteleraz, lau egun horietan, 10:30etik 12:00etara. 5 urtetik goitiko neska-mutikoei zuzendua dago eta partehartzaile bakoitzak 10 euro ordainduko du. Gehienez 25 haur onartuko dira. Hezitzaileek 20 minutu inguruko azalpena emanen dute eskulturen baten inguruan eta gero, horrekin lotutako jarduera plastikoa egiten dute.

GIZARTEA → ESKOLAKO EKITALDIAK

Festibala, kanpaldiak eta museo ttikia ikasturtea borobiltzeko

Seigarren maila akitu eta eskola utziko dutenei omenaldia

Maider PETRIRENA

Eskolako neska-mutikoez eta irakasleek egin dituzte ikasturte honetakoak eta orain, udaz gozaten hasiak dira.

Ikasturteari akabaila eder bat emateko izugarrizko festibala eskaini zieten bertaratu ziren

guztiei. Lehenik Haur Hezkuntzakoek beraien kanta polita abestu zuten, koreografia eta guzti; ondoren Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoek, ondoren 3. mailakoek, segidan 4. eta 5. mailakoak eta azkenik 6. mailakoek. Azken hauek Sunbillako eskolan akitu dutenez, irakasleek bertso eder bat kantatu zieten eta momentu hunkigarriak bizitu ziren frontoian ikasle eta irakasleen artean. 6. mailako ikasleek agurtzeko



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA ETA ESKOLAK UTZIA

Ikasturte bukaera jaialdian agur berezia egin zitzaion aurre seigarren maila akitu eta, beraz, eskola utziko duten ikasleei. Museo ttiki bat ere prestatu dute aurre Haur Hezkuntzakoek eta kanpaldiak egin dituzte, zaharrenek Bardeetara.

dantza polit bat eskaini zuten. Hagitz emandari polita eskeini zuten eta lerro hauen bidez zorionduko ditugu irakasle eta ikasle guztiak egindako lan ederrarengatik.

MUSEOA ETA KANPALDIAK

Bertzetik, urtean zehar egindako lan guztiakin erakusketa ttiki bat osatu zuten Haur Hez-

kuntzako ikasle guztiak eta ikusgai jarri zuten frontoiko gela batean. Zorionak egileei.

Horrekin lotuta aipatuko dugu ikasturte bukaeran bi kanpaldi egin zituztela eskolako haurrek. Haur Hezkuntzakoak eta Lehen Hezkun-

tzako lehen mailakoak Irrisarri Landera joan ziren eta ederki pasatu ere. Ondotik, LHko gainontzeko ikasleen txanda izan zen eta hauek Senda Vivara egin zuten bidaia eta Bardeetan ere ibili ziren.



Ba al zenekien
Sunbillako udal igerilekuko irekita egoten dela 11:00etatik 20:00etara



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA

San Juan suak

San Juan bezperan ere urteroko ohiturak segituz jendetza bildu zen frontoi atzekaldeko plazan. Lehenik bokadilloak jan, gero suak egin eta ondoren su gainetik saltoka disfrutatu zuten.



ARGAZKIA: RUBEN IRIGOIEN

Sunbildarrak Extreme Bardenas bizikleta lasterketan

Uztailaren 2an Mikel eta Iker Bertiz, Gari Larraburu eta Ruben Irigoien sunbildarrak Extreme Bardenas 101 kilometroko mendi bizikleta karreran parte hartu zuten. Bidean hauts asko eta karrera gogorra izan zen, baina halere ongi pasatu omen zuten. Zorionak lauroi.

DONEZTEBE

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 25EAN

Benito Lertxundiren emanaldiak aitzindu ditu bestak aurten

Niko Mindegiak botatako suziriak inoizko besta herrikoiei eta parte-hartzaileen metxa piztu zuen

Marga ERDOZAIN

Ekainaren 25ean, gaueko hamarretan, ia 800 lagun, harmaila eta aulkietan eserita, Benito eta bere taldearen kontzertua dastatzeko prest. Hasieratik publikoaren berotasunak Lertxundiren magiarekin konektatu zuen. Bi orduko emanaldia eskaini zuten, *Oroimena* izeneko lana ardatz izanda eta nola ez, bere kanturik eza gunenek ere tokia izan zuten (Erribera bertzerik ez zen faltatu). Bere ohiko musikariek inguratua agertu zen oholtzaganean: Juan txo Zeberio piano eta sintetizadorean, Amairu I Cajaraville baxuan, David Gorospe baterian, Angel Unzu gitarra eta bouzukiarekin, Gurutz Bikuña gitarrekin, Kutxo Ocho de Eribe arrabitarrekin, Pello Ramirez eskusoinu eta biolozellekin, Intza Unanue koroak eginez eta

Olatz Zugasti harpa, teklatua eta ahotsa jarritz. Ikuslegoa asetuta gelditu zen baita Benito ere. Ea bertze hitzordu batean Erribera abastera etortzen den.

NIKO MINDEGIAK BOTA ZUEN TXUPINAZOA

Bestetako batzordekideek txupineroaren izena sekretupean gordetzeko erabakia hartu zutenez herritarren artean jakinmin handia bazen eta inoiz izan den txupinazorik alai, zaratsua eta baita jendetsuena ere egokitu zitzaion Niko Mindegia kirolari handiari. Bere familia eta lagunak inguruta lasai-lasai suziria piztu zuen. Une hartatik, eta bortzegunetz aurreikusitako programazio guztia bete dela erran daiteke. Balorzioa egiterakoan azpimarratu behar da orokorrean dena hagitz ongi atera dela (argazkiak ikusi bertzerik ez da). Musika, txaranga, dultzaineroak, dantza emanaldiak, pankartak, aurorak, elektro txaranga, mus txapelketa, zezensuzkoak... Eta akitzeko herri bazkaria. Ia 400 lagun Ezkurra pilotalekuan giro bikainean elkartu ziren. Bazkailondoko luze eta animatuaren ondoren, kua drillek egindako pankar-



UTZITAKO ARGAZKIA

Argazkian ageri denez, besta parte-hartzaile eta herrikoiak izan dira aurtengoak.

tak eskutan eramanda kalejira alai burutu zen. Ausartenak, hamabortz bat lagun, Galbaraialdearen igoera burutu zuten, erreka bazterretan izugarriko jendetza txaloka eta dantzaka izanda.

Udalak eskerrak eman nahi dizkie kanpotar eta herritar guztiei «besta osasuntsu eta baketsuak izan ditugula». Aipamen eta eskertza berezia egin nahi zaie bestetan lan isila, lan zikina, ikusten ez den lana... burutu du-

ten guztiei. «Langile horiei esker karrikak garbi izan ditugu, musika entzuteko aukera izan dugu. Den dena attoko attoko prestatzen zuten. Bestetan batzuek gozatzeko bertze anitz lan eta lan, buru belarri aritu dira». Mila esker guztiei baita sukaldako lapikoen artean ibili direnei ere. Batez ere herri bazkariaren antolakuntzan aritu direnei: sukaldariei, montajeen eta garraioan aritu direnei eta, baita garbitze-txukuntze lanak egindakoei ere..

FLASH

Igerilekuko berriak

Uztailaren 18tik 29ra bigarren igeriketa ikastaroa burutuko da. Interesatuak igerilekuan bertan izena eman dezakete. Aquagym ikastaroa ere martxan uztailaren 5tik aitzinera. Astean hiru egunetz burutuko da eta eskaintza balego abuztuan ere antolatuko litzateke. Irati eta Joana gazteek igerilekuko taberna hartu dute.

TEKNOLOGIA → CEDERNAREN ESKUTIK

Banda Zabalarari buruzko lan saioak egin dituzte Nafarroako Mendialdean

Ilunberrin eta Leitzan

TTIPI-TTAPA

Cederna Garalur, NASERTIC enpresa publikoarekin elkarlanean, bi lan saio antolatu ditu Ilunberrin eta Leitzan, udal eta enpresei Nafarroako Banda Zabalararen 2016ko Plana azaltzeko. Saio hauetan Planari dagozkion xede, eragileen zereda eta inbertsio ereduak azaldu dira.

NASERTIC Generazio Berriko Banda Zabalararen Plana diseinatzen ari da Nafarroarako. Helburua hiritarrak, Nafarroako Gobernuaren zentroak eta industrialeak gutxienez segunduko 30 Mko sareaz elkarlotzea da. Ho-



UTZITAKO ARGAZKIA

Ilunberrin egin zen saioa, 2016ko Nafarroako Banda Zabalararen Plana aurkezteko. Leitzan ere egin dute.

netaz gain, jardunaldi hauetan sare berriak zabaltzeko proposamenak, inbertsio ereduak, finantza bideak eta tokiko erakundeekin elkarlanean aritzeko esparrua posibleak aztertu eta azaldu dira.

Tokiko erakundeen

eta Cederna Garalur Bezalako erakundeen ekarpenekin NASERTICek abuztu amaierarako plan berriaren zirriborroa idazteko asmoa du.

Europar Batasunaren 2020 Agendaren arabera, 2020. urtean

Europako populazioaren %100-ak interneterako segunduko 30Mko sarbidea eduki behar luke eskura, eta %50ak segunduko 100 Mkoa. Helburu hori lortzeko beharrezkoa da Nafarroako Gobernuaren, tokiko erakundeen,

Cederna Garalurren eta telekomunikazio operadoreen arteko elkarlana. Nafarroako Mendialdean zulo digitala ekiditea da asmoa, populazioaren %92a 1.000 bizilagun baino guttiagoko lekuetan bizi dela kontuan hartuta.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Udako merkealdia

edredoi fundak · albormozak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

ITUREN

GIZARTEA → EKAINAREN 30ETIK UZTAILAREN 7RA

Joaldunak Washingtonen ibili dira Euskal Herriko ordezkari

Smithsonian
Folklife
Festivalen
barrenean
zenbait saio
eskaini dituzte
Estatu
Batuetan

Arkaitz MINDEGIA

Estatu Batuetako Smithsonian Institute entzutetsuak Euskal Herria aukeratu du aurtien Smithsonian Folklife Festivaleko protagonista izateko. Honela, bi astez Euskal Herriko gastronomia, kultura, hizkuntza, ohiturak... bertatik bertara ezagutzeko aukera izan dute bertaratu direnek Washingtonen, Estatu Batuetako hiriburuan.

Euskal Herriko ordezkarien artean bertan izan ziren Iturengo joaldunak ere. Ekainaren 29an ailegatu ziren Esta-

tu Batuetara eta bihamunean egin zuten lehen emanaldia. Kepa Junkerarekin ere egoteko aukera izan zuten. Uztailaren 7ra arte Estatu Batuetan egon ziren eta zenbait saio eskaini zituzten. Iturendik Jaber Bereau, Bixente Bereau, Joxe Martin Bereau, Laxaro Erregerena, Gregorio Sein, Periko Mindegia, Joxe Mari Iparragirre, Unai bereau, Javier Sein, Haritz Fagoaga, William Giraldo eta Egoitz Gorosterrazu joan ziren.

Washingtonen erdian, National Mailen, Euskal Herriko herri baten errekreazioa osatu dute egunotarako, bere plaza eta frontoiarekin, portua, baserria, euskaltegia... Aipatzea da Folklife Festival honek milioi bat bisitari izaten dituela bertan eta bertze 40 milioik internet bidez bisitatu dutela.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Joaldunek herriko inauteriaren berri eman dute Estatu Batuetan.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Sendotza egin dute Ituren eta Zubietako gazteek

Ekainaren 25ean Aurtizko 6, Iturengo 16 eta Zubietako 3 gazteek Sendotza egin zuten. Urtero ez denez egiten konfirmazioa, 13 urtetik 17 urte bitartekoek batera egin zuten eta gazte aunitz elkartu ziren. Ondotik famili eta lagunartean ospatu zuten eguna.

100 EUROKO SARIA

Teodoro Perezen kartelak iragarriko ditu herriko bestak

A. MINDEGIA

Seigarren urtez, Iturengo bestak iragartzeko kartel lehiaketa deitu du aurtien ere Udalak. Hiru lan aurkeztu ziren eta horien artean, NARBARTEN bizi den Teodoro Perezena suertatu da garaile. Lanen erakusketa Herriko Etxeko Ganbaran ikusgai egon den bitartean botu gehien jaso duena da eta 100 euroko saria jasoko du. Egitarauaren berri gehigarri berezian duzue.



Ba al zenekien

Ekainaren 30ean jakinarazi zutela Abarun aterpetxe-koek argazki lehiaketako irabazlea. Iñaki Atxa baztandarra suertatu da garaile eta Facebookeko partekatzaileen arteko zozketa-ko irabazle Oihana Luzarri suertatu zen. Zorionak bie!

KULTURA → UZTAILAREN 20TIK IRAILAREN 4RA

‘Lorategi bat lorategian’ erakusketa irekiko dute Bertizko Natur Parkean



TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuko Kultura Zuzendaritza Nagusiak antolatutako *Kultur* programaren baitan ekainaren 17tik irailaren 10era musika, dantza eta arte arloko 41 emanaldi prestatu ditu. Ortzegun, ortzirale eta larunbat guztietan egiten ari dira Nafarroako 39 udalerrri eta pasaia-edo ondare-mailako toki interesgarritan.

Bertizko Jaurerriko Natur Parkeko lorategi historikoan, *Lorategi bat lorategian* erakusketa berezia egingen dute uztailaren 20tik irailaren 4ra, hostoak, adarrak, soinuak eta argazkiak bilduz. Alde batetik, Maite Ortega murtziarrek argazkiak erabiliko ditu, hari, lore, hosto edo errekorre bidez aldatu eta bere nortasun propioa emanez. Lorategia eta memoria uztartuko ditu, erakusketa aretoa hartuko duen familia-zuhaitz baten bidez. Mikel R. Nieto donostiarrek, berriz, soinuarekin modu artistikoan egiten du lan, egoera espezifikokoak sortuz. Leku baikoitzaren soinu-nortasuna ezagutzeko du helburu. Horretarako, grabaketak egingen ditu lorategian eta inguruan, gordean dagoena eta somatzen ez dena agertaraziz.

Sormen-prozesuaren bukaeran, lorategi berri bat agertuko da lorategian.

*Zertarako
amestu,
eskuratzeko
aukera baduzu?*

**RURAL KUTXAKO
MAILEGU
PERTSONALAK**

BIDAIA ZORAGARRI BAT, ZURE EZKONTZA, ZURE AUTO BERRIA...

MAILEGU PERTSONALA

AUTO MAILEGUA



SARTU ETA JASO ZURE MAILEGUARI BURUZKO ARGIBIDEA



ZUBIETA

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 23AN

80 lagun bildu ditu San Juan bezperako afariak

Bertzalde, ludoteka martxan da

Fermin ETXEKOLONEA

San Juan bezperan urte batzu badira afari-txo bat egiten dela (afari autogestionatua), eta aurtengoan 80 bat lagun elkartu dira. Giro ederrean afaldu ondoren, San Juan sua piztu zen. Aurtengoan su handi bat eta beste txiki bat egin dira, bakoitzak nahi eta ahal zutenean salto egiteko.

Ohiturak jarraiki ere, zenbait etxeetako atarrietan belar zaharrak

erretzen ere sumatu zen, usaina batez ere!!!

Ludoteka

Udako ludoteka osatu dute Maritxu Sanchez eta Naroa Elizalderen eskutik. Eskola zaharrean dute egoitza uzta-laren 4tik hasita abuztuaren 5era arte, 10:00-etatik 13:00-etara. Hamabi neska-mutiko apuntatu ziren lehenbizitik, baina asteka apuntatzeko aukera bada.

Aitor Agesta

Aitor Agesta zubietarra Donezteberek Nafarroako Herriarteko pilota txapelketan txa-



peldun suertatu da. Alebinetako partidari, Xuban Illarregirekin bikote eginez, 18-3 irabazi zioten Iruñeko bikoteari, lehen garaipena emanez uzta-laren 2ko finalean. Bertze bi partida irabazita, txapela Doneztebera ekarri zuten.

Mikel Indakoetxea

Aizkoran ere izan da berririk egunotan. Uzta-laren 2an Donezteben jokatu zen Euskal Herriko hirugarren mailako lehen kanporaketa. 13 aizkolari aritu ziren finalerako hiru txarteletako baten bila. Mikel Indakoetxea herritarra ere



ARGAZKIAK: IZASKUN ZUBIALDE

Goiko argazkian, afari giroa eta behekoan suak.

aritu zen, baina sailkapenetik urrun gelditu zen. Hamabigarrena izan zen, lau kanaerdi-koak mozteko 13 minu-

tu eta 22 segundo behar izan zituen, saioa irabazi zuen Joxean Etxeberriak baino bi minutu eta erdi gehiago.

Sampi Aragón S.A.



Zerbitzu ofiziala
DONEZTEBEN

T. 948 450 354 | Leitzako bidea, 41 - DONEZTEBE | sampiaragon@sampiaragon.com

FORD TRANSIT GAMA



5.990€^{tik hasita*}

*Prezio aplikagarria finantziazioa eskatuta eta PIVE planean sartuz gero.

GIZARTEA → EKAINAREN 18AN EGINDAKO BILERAN HERRITARREK POSITIBOKI BALORATU ZUTEN EGOERA

Pagoetako harrobiko espedientea artxibatu du Nafarroako Gobernuak

Malerrekan 750 sinadura baino gehiago bilduak ziren egitasmoaren kontra

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Pagoetako harrobiko espedientea artxibatu du eta, horrela, *Aldez aurreko kontsultak* izeneko prozesua bukatu da, promotoreak tramitazioa bertan behera utziko duela iragarri baitu. Herritarrek ekainaren 6an Ingurugiro Sailburuarekin izandako bileran izan zuten iragarpenaren berri. Prozesu honetan Administrazioako sei erakunderen txostenak jaso dira, horien artean Beintza-Labaiengo eta Saldias-ko udalenak. Promotoreak, Labaiengo herritarra bera, apirilaren 30eko udalak deituriko batzarrean emandako hitza bete egin du, hau da, herriaren oniritzirik gabe ez zuela tramitearekin aurrera eginen. Herritar gehiengo handia harrobiaren kontra azaldu zen.

Ekainaren 18an egindako bileran herritarrek positiboki baloratu zuten egoera, oraingoan tramitea artxibatu delako, baina geroari begira erne egon behar direla konzienteak dira «bertze edozeinek tramitazioa berriz hasten ahal duelako». Zentzu horretan, oso positiboki baloratu dute maia-



UTZITAKO ARGAZKIA

Saldias, Pagoeta menditik 600 metrora.

tzean zehar egindako kanpaina eta harrobiaren kontra bildutako sinadura kopurua. Herri mugimendua maiatzaren 9an hasi zen, 70 lagun bildu ziren bileran.

MALERREKAN 750 SINADURA BAINO GEHIAGO

Maiatzean zehar egindako informazio kanpainen hainbat komunikabidetan plazaratu zen gaia eta harrobiaren kontra 750 sinadura baino gehiago bildu ziren: Saldiasen, udalak antolatutako ekimean eta idazkariaren txostenaren arabera, zentsoaren (118 biztanle) %75 baino gehiagok parte hartu eta denek kontra sinatu zuten. Beintza-Labaienen (231 biztanle), herritarrek antolatutako kanpainen, 150 sinadura baino gehiago bildu ziren. Malerreka mailan, 15 egu-

DATUA

3

MILIOI METRO KUBIKO ofita minerala ateratzea zegoen aurreikusia esplotazio mailarik handiengan (1,5 milioi tikiengan), Saldiasetik 600 metrora eta Labaiendik 1.200 metrora. Herritarren artean kezka eta ezezko nabarmena piztu ditu, osasunean, nekazaritzan, errepidean... eragiten ahal lituzkeen kalteengatik.

netan 500 sinadura baino gehiago bildu ziren, horien artean eskualdeko hainbat udal ordezkarienak. Sinadura hau ek Nafarroako Gobernuan aurkeztuko dira, herritarren iritzia argi azaltzeko. «Oso balorazio ona egiten dugu, he-

rritarren kezka eta iritzia argi agertu direlako: herritarrok ez dugu inondik inora ere harrobirik nahi herri hauetan eta norbaitek proiektuarekin aurrera egin nahi bado, jakin dezala jarrera sendoa aurkituko duela». Halaxe, maiatzaren 26an Malerrekako Mankomunitatean egindako bileran, informazioa eman zitzaion udal ordezkariari eta eskualdean nolako eragina izaten ahal lukeen jakinarazi.

BI UDALEN TXOSTENAK

Administrazioako erakunde txostenak sekretuak badira ere, udalenak ezagunak dira: Saldias-ko Udalak herritarren artean egindako sinadura bilketaren berri eman zuen; Beintza-Labaiengo Udalak apirilaren 30ean egindako batzarren kontrako iritzia eta bertan

emandako arrazoiak be-
reak eginez bidali zuen
txostena Nafarroako
Gobernura.

EGOERAREN SEGIMENDUA ETA ESKER ONAK

Herritarrek egoeraren segimendua egitea ere erabaki dute: «Lorpen handia izan da hau eta herritarren jarrera irmoak zer ikusi handia izan du horretan, baina ofita minerala hor dago, tentagarri. Erne egon behar dugu».

Halaxe, eskertu nahi dute izandako laguntza, bertzeak bertze: sinatu eta elkartzuna adierazi duten herritar oro; Sustrai Erakuntza Fundazioa, prozesu honetan emandako aholkua eta laguntzagatik; eta baita promotorea bera zoriondu ere, herritarra izanik, egitasmoaren tramitazioa gelditzea erabaki duelako, bere hitza betez eta herritar gehiengoren gogoan errespetatuz.

PAGOETAKO HARROBIA

Egitasmoa Pagoetako mendian kokatzen da, Saldiasetik 600 metrora eta Labaiendik 1.200 metrora kokatua, 1,5/3,0 milioi metro kubiko ofita minerala ateratzeko aurreikusia. Herritarren artean, kezka eta ezezko nabarmena piztu ditu eragiten ahal lituzkeen kalteengatik, dela osasunean eta dela eguneroko bizitzan, nekazaritzan, abeltzaintzan eta gainerako jardueran ekonomikoetan eta errepideetan.

ARKUPEAK

GIZARTEA → EKAINAREN 21EAN

Eltziegoko upategi ezagunena bisitatu dute 92 bazkidek

Marques de Riscal bodega ikusgarria da kanpoko itxuragatik nahiz barneko kupelengatik

Fernando ETXEBERRIA


Arkupeak elkarteko 92 bazkidek Eltziegoko Marques de Riscal upategia bisitatu zuten ekainaren 21ean. Frank Gehry, Bilboko Guggenheim Museoko arkitektoak egindako sarrera berriarekin harrituak gelditu ziren. Eta barrenean zer esanik ez: ehundaka kupel ikusi zituzten, eta milaka eta milaka botila, gehienak atzerrira esportatzen direnak. Tartean 1860 urtetik gaur egunera arteko botil ardoak ere badituzte. Bi ardo mota dastatzeko aukera izan zuten bukaeran. Bideoak frantsesez, ingelesez, alemanez, errusieraz eta txineraz ikusteko aukera bazen, ez ordea euskaraz, nahiz Euskal Herrian egon. Zergatik galdetu eta jende nahikorik ez dutela izan zen emandako erantzuna. Ondotik, Basteri bisitatu eta La

Huerta Vieja jatetxean bapo bazkaldu zuten. Bero handia egiten zenez, bueltan Garesko bisita utzi eta horren ordez Eunateko Santa Maria basiliza ikusi zuten. Barrenera ezin izan zuten sartu, dena itxia zegoelako.

RIAS ALTAS

Galizako Rias Altas ingurura egindako bidaiari dagokionez denak gustura bueltatu dira. Erabili ziren 72 leku ko bi autobusak ere erosoak suertatu dira eta merkeago egiteko aukera eman zuen (28na euro itzuli zitzaion bidaiari bakoitzari). Lekunberri eta Leitzako bazkideak beste autobus batean joan behar izan zuten Donostiraino eta han autobus handietako bat hartu. Sunbillako bi bazkidek, berriz, leku eskasiagatik ezin izan zuten beraien herritarrekin batera bidaiatu, baina ez zuten inolako eragozpenik jarri eta aski gustora egin zuten bidaiari, nahiz eta gaia eza gutzen ez duen bazkideren batek iritzi oso negatiboa eman.

Uztailaren 4 eta 5ean Santander eta Cabarcenora joan dira 71 bazkide eta uztailaren



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Arkupeak elkarteko bazkideak gustura ibili ziren upategian. Barnean kupel handiak ikusi eta ardoa dastatzeko aukera izan zuten eta kanpotik, Frank Gehry arkitekto famatuak egindako lana ikusteko modua ere izan zuten.

26an Aralarrean joanen dira beste 247. Uztailaren 18, 19 eta 20a izanen dira Arantzazuko bidaiari apuntatzeko datak. Santutegiko jatetxean bazkalduko dute aurretik.

EGOERA EKONOMIKOA ETA DIRULAGUNTZAK

Bizi dugun krisi ekonomikoak ahulenei eragin die batez ere, horien artean erretiratu, pentsiodun eta beraien elkarteei. Nafarroan, zehazki, Arkupeak elkar-

teak Nafarroko Kutxatik eta Gobernutik 100.000 euro baino gehiago ere jaso zituen garai onetan, baina 20.000 euro baino guttiago jasotzera pasa zen. Bi erakunde hauek, diruz laguntzerakoan lehentasuna eman diote kultur jardueri eta pertsonen autonomiari zuzendutako formakuntzari. Hortaz, hainbat ikastaro antolatu behar izan ziren eta bidaien gastuarekin batera, defizit handia eragingo zuen Arkupeak el-

kartean. Lehendik kuxtan ziren diruak eta fondoak erabili behar izan ziren gastuak estaltzeko. 2015ean diru sarre- eta gastuak berdintzea lortu zen eta 2016an emaitza positiboa izanen dela aurreikus- ten dute, ekonomia bat- zordeak bidaien eta ikastaroen kontrol es- tua egin duelako eta di- rulaguntzak ere handi- tu direlako. Hurrengo alean emanen dugu di- rulaguntza hauen berri zehatza.

GIZARTEA → TARTARKAR.EUS

Autoa partekatzeko plataforma sortu dute

LeitzEKO Kontsumo taldeak izan landu du proiektua

JM BARRIOLA

«Gastuak partekatu, bidelagun berriak egin eta aztarna ekologikoa gutxitzeko» helburuekin jarri du martxan webgunea LeitzEKO Kontsumo Taldeak eta Leitzara edo Leitzatik autoan bidaia-tuko duen edonork erabiltzeko aukera du.

Eregistratu, ezizena eskuratu eta bidaia argitaratu besterik ez da egin behar autoa partekatu nahi bada, Leitzara doazen edo Leitzatik irteten

diren bidaietan. Horretarako aukera ematen du *tartarkar.eus* plataformak.

Garraio publikoak eskaintzen dituen aukera eskasei aurre egiteko sortutako ekimena da, Leitzako Udalak 2014an antolatutako parte-hartze prozesuaren ondorioz sortua. LeitzEKO Kontsumo Taldeak biderratu du proiektua eta haren printzipioekin bat egitea izan da helburua. Hots, gaur egungo garraio-ohituren inguruan hausnartzea: «mugikortasunaren indibidualizazioaren, herri barreneko kotxearen erabilpenaren eta garraio-mota ezberdinek eragiten duten energia-kontsumoaren» inguruan, besteak beste.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Gorritzarango pestak giro ederrean

Ekainaren 26an Usategitako gainean pesta giroa izan zen. Meza ondoren herri kirol saioa eta errepide gainekoak azpikoen aurka soka-tiran aritu ziren. Umeentzako jokoen ondoren 40 bat lagun bazkaltzera bildu ziren. XXXI. Mus txapelketa Ibai Elizalde eta Josu Zabaletak irabazi zuten eta XXXII. Txintxurri lehiaketa Jon Ander Zabaletak eta Arantxi Sukuntzak irabazi zuten. Trikitixaren musikak egun guztian alaitu zituen bazterrak eta bukatzeko zozketa egin eta txokolatea banatu zuten.



ARGAZKIA: LEITZEKO KONTSUMO TALDEA

LeitzEKO Kontsumo Taldearen webgunea aurkeztu dute

Taldearen funtzionamendua hobetu eta herritarrei lantzen dituzten gaietarako buruzko leihobat irekitzea dira *leitzekokt.eus* webgunearen helburu nagusiak. Ekainaren 29an egin zuten aurkezpena Aurrera Elkartean eta Kontsumo Taldeko bazkideak eta interesa zuten herritarrak ere bertaratu ziren. Aurkezpenaren ondoren bertako produktuekin osatutako mokadutxo bat eskaini zitzaizkien hurbildu zirenei.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA ETA PABLO FEO

Auzolanean txukundutako igerilekuak zabalik

Uztailaren 1ean igerilekuen irekiera pesta egin zen eta irailera arte irekita egonen dira. Besteak beste, haur eta helduei zuzendutako ikastaroak antolatu dituzte, asteleheneetik igandera 11:00etan hasi eta 20:00ak arte, txanda desberdinetan. Igerilekuez gozatu ahal izateko aurretik auzolana egin zuten (eskuineko argazkian, ongi irabazitako gosaria egiten). Aldagelak, terraza eta taberna konpondu zituzten.



ARGAZKIA: PABLO FEO

Sanjuan bezperako ospakizunak ongi joan ziren

Urtero bezela txikienak ingurutxo dantzatu zuten plazan eta ondoren opilak jan. 800 lagunentzat prestatu zituzten mahaiak eta herriko lagunarteak afaltzera hurbildu ziren. Umore handiz joan zen afaria baina euri zaparraden ondorioz bukatu baino lehen altxa behar izan zuen jendeak mahaitik. Euria ez zen oztopo izan ordea, San Juan bezperako suak piztu eta gainera janziz ibiltzeko.

ARESO

GIZARTEA → ARESO.EUS

Udalak web gune berria jarri du martxan

Herritarrek informazioa partekatzeko aukera izango dute bertan

Juana Mari SAIZAR

Dagoeneko erabilgarri dago Aresoko Udalen web gune berria: *areso.eus*. Orain arteko web orria baino erabilgarriagoa izatea da helburu nagusia, udal informazioa herritarrei modu eroso batean eskaintzeko tresna izatea.

Bertan Udalak batzarretako aktak, bandoak, albisteak, mozioak, zergadunaren egutegia... argitaratuko ditu eta herritarrek internet bidez gestioak egiteko aukera ere izango dute.

BERRIKUNTZA NAGUSIA

Udalak izango du web orria kudeatzeko ardura baina herritarrei ere eman nahi die informazioa partekatzeko aukera. Agenda eta herriko berriak publikatzeko tartetxo bat izango dute, eta horrela, edozein herritarrek bere etxetik agendarako hitzorduak, berriak... publikatzeko aukera izango du formulario erraz bat betez.

Horretaz gain, bisitari-erentzako interesgarria izan litekeen informazioa ere eskaintzen du web orriak. Herriari buruzko datu interesgarriak, zerbitzuak, historia pixka bat, argazkiak... aurki litezke bertan eta herrian egin litezkeen zenbait ibilaldiren mapa eta trackak deskargatzeko aukera ere eskaintzen du.



ARGAZKIAK: ZURINE GOIKOETXEA

San pedroak giro ederrean ospatu dituzte


San Pedroak berreskuratu dituzte aurten Lagunartekoek eta besta giro ederra izan da herrian bi egunez. Ostiralean eguraldiak ez zuen lagundu, plaza girorik ez zegoen baina eskerako bai eta etxe asko ireki omen zuten atea. Goizean meza, elizaren bueltan prozesioa egin eta Lagunartekoek hamaiketako banatu zuten. Arratsaldean beriz, Cañamares iloba-osabek erakustaldi berezia egin zuten plazan eta Itxaso Onsalo herritarra ere aizkoran aritu zen. Trontza txapelketa ere egin zen, 9 bikote apuntatu ziren eta Migel eta Ana senar-emazteak izan ziren txapelak. Oso ongi hartu zuten elkar eta oso lan txukuna egin zuten. Gero, afaria giro goxoan joan zen eta afalondoa Fand&go taldeak alaitu zuen ordu txiki arte eta jende asko ari zen dantzan.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Dantzan ikasi nahi duenak badu aukera!

Herriko festetarako hilabete eskas geratzen denez, herrian hasi dira prestatzen eta ttikienak ingurutxuko ensaioak egiten dituzte plazan astelehenero. Horretaz gain, helduentzako dantza ikastaroak ere antolatuta dituzte, astelehenero 20:00etan trinketean. Herriko plazetan dantzatu ohi diren dantzak ikasteko aukera izango da: arin-arin eta fandangoak, polkak... animatu zaitzete!



OSPAKIZUNAK → UZTAILAREN 22TIK 25ERA

Santio egunez bukatuko dira aurten festak

Festa aurreko igandean pala txapelketako finalak jokatu dituzte

TTIPI-TTAPA

Santio festak umorez datoz aurten ere. Uztailaren 22tik 25era hainbat ekitaldi antolatu dituzte, baina aurreko igandean ere izango da festaren seinalea.

IGANDEA, UZTAILAK 17

- 11:00etan Aranoko XV. pala txapelketako finalak.

OSTIRALA, UZTAILAK 22

- 22:00etan XXXIV. Mus txapelketa San Roke elkartearen.

LARUNBATA, UZTAILAK 23 FERIA ETA UMEEN EGUNA

- 11:00etan jaiei hasiera emango dien itxaferrua botako da udal txeko balkoitik. Ondoren umeen arteko pilota partidak.
- 12:00etan Feria eta urreko tortilla lehiaketa.
- 16:30ean umeentzako jolasak.
- 17:30ean txokolatea.
- 18:00etan Arno gaudetegiko aziendak.
- 21:00etan norberak ekarrikatoarekin herri afaria musikaz girotua.

IGANDEA, UZTAILAK 24 ARKUME JATEA ETA JUBILATUEN EGUNA

- Goizean: arkumea erretzen jarriko da pla-

zan.

- 11:00etan meza.
- 11:30ean jubilatuen hamaietakoia.
- 14:00etan V. arkume jate herrikoia. Bazkal ondorena Kikilisalda fanfarreak girotua izanen da.

ASTELEHENA, UZTAILAK 25 SANTIO EGUNA

- 11:00etan meza.
- 12:00etan Arano (Huzi eta Lizeaga)-Goizuetako (Salaberria eta Apezetxea) arteko ohiko pilota partida.
- 17:30ean herri kirolak. Aizkora apustua: Aizarnako Luis Txapartegi eta Ezkurrako Moises Gogortza, Aurtizko Ander Erasun eta Aranoko Xauxar baserriko Joseba Izetaren kontra.
- 19:00etan bertso saioa: Sustrai Colina, Beñat Gaztelumendi, Igor Elortza eta Alaia Martin.

TXARTELAK

Arkume jateko txartelak salgai egongo dira Herriko Kontseju Tabernan, Hernaniko Deportibon, Urnietako Kantoi tabernan eta Goizuetako Amaia Kafetegian 30 euroan. Umeen menua egongo da, 6 euroan. Jubilatuen bazkaria ere bertan izango da. Txartelak erosteko azken eguna uztailaren 20a.



Argazkia: Jon Zabala.



Argazkia: Jon Zabala.



ARGAZKIAK: JON ZABALA
Mahai-inguruan ez ezik, kalez kale giro polita izango da Arano.



Aranoko Udalak

jai zoriontsuak opa dizkizue herritar eta bisitari guztiei

GOIZUETA



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

San Juan bezperan bezalaxe, Karmen bezperan ere suaren gainean salto egiteko aukera izanen da.

OSPAKIZUNAK → UZTAILAREN 15EAN

Herri afaria prestatuko dute Karmengo Amabirjin bezperan

Hirugarren Patata tortilla lehiaketan ere edozeinek har dezake parte

TTIPI-TTAPA

2011n berreskuraturako ohiturari eutsiz, uztailaren 15ean, ostirala, Amabirjin Karmengo bezpera dela eta plazan herri afaria eginen dute seigarren urtez, 20:30ean hasita. 21:30ean, garai bateko ohitura galdu gabe, suak piztuko dituzte. Eu-

ria eginen balu pilota plazan izango da afaria. Sagardoa, ardoa, platerak, edalontziak, labanak, eta abar udalak jarriko ditu.

Patata Tortilla lehiaketa ere izango da hirugarren aldiz, 19:00etatik 20:00etara. Edonork parte har dezake. Izena eman daiteke Umore Ona elkartearen edo Amaia Kafetegian uztailaren 13a arte. Udalak emango ditu patata, tipula eta arrautzak. Sua, zartaria eta behar den tresneria, aldiz, norberaren esku.

Ba al zenekien

Egoera tamalgarrian dauden Espidealdeko bideko bazterrak garbitzeko auzolan deialdia egin dutela uztailaren 23rako. Larunbat goizeko 10etan elkartuko dira plazan. Edozein zailantza argitzeko 619 988383 telefonora deitu.



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Umore Ona elkarteko atalen eguna ospatu dute

Umore Ona elkartearen atal ezberdinek bere eguna ospatuko zuten uztailaren 3an. Aurretik, uztailaren 2an, larunbat arratsaldean Umore Ona eta herriko gazteen arteko areto futbol partida jokatu zuten, giro ederrean. Igande goizean pilota partidak jokatu zituzten Umore Onako pilotariak eta ondoren, Umore Ona Abesbatzak eta dantza taldeak emanaldiak eskaini zituzten herrian zehar. Gero, bazkaria izan zuten Umore Ona elkartearen.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Lanean segitzen du Goizukoop kooperatibak

Gasolindegia kudeatuko duen Goizukoop kooperatibak lanean segitzen du. Ekainaren 25ean kooperatibaren funtzionamendua zein izanen den azaldu zuten, baztarrean agertutako 65 bat bazkideren aurrean.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Umore Ona abesbatza Igeldon kantari

Umore Ona abesbatzak Igeldon kantatu zuen ekainaren 25ean, Astigarragako Aiztondo eta Igeldoko Lezkarri Ganbera abesbatzarekin batera. Hirurak aritu ziren, Igor Arroyo (Aiztondo), Eneko Amundarain (Umore Ona) eta Nize M. Cresporen (Lezkarri) zuzendaritzapean. Banaka kantatu zuten lehenik abesbatzek, eta baita hirurek elkarrekin ere, emanaldia bukatzeko (argazkian).

OSPAKIZUNAK → UZTAILAREN 17AN

Dena prest dago igandean Baztandarren Biltzarra ospatzeko

53. edizioa 'Baztanen eskuara barra-barra' goiburupean egingen da

TTIPI-TTAPA

Baztanen eskuara barra-barra leloarekin, aurten 53. aldiz baztandarren besta handia ospatuko da uztailaren 17an. Aurten ere egun osoko besta izanen da eta hori horrela izateko egitarau osatua prestatu du Baztandarren Biltzarra elkarteak.

Uztailaren 17ko egun handiari dagokionez, 10:00etatik aitzinera,

goiz osoan artisauen erakusketa egonen da ikusgai Pedro Axular karrikan. 11:00etan herri bakoitzak prestatutako orga apainduen desfilea hasiko da. 14:00etan Mutildantzak izanen dira Elizondoko plazan eta ondotik herri bazkaria izanen da Merkatuko zelaian. Bazkalondoko animazioan, Baztango ioiak edo eztei-soinuak, Baztandarren Biltzarren mezua, sari bana-keta, animazioa eta dantzak izanen dituzte Merkatuko Plazan. 18:00etan hasita Trikidantz taldeak dantzaldia eskainiko du Laxoako plazan eta 20:00etan Oharkabe taldeak har-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Baztandarren Biltzarren aurkezpena eta gan den urteko argazki bat. Beheitan, kartela.

tuko dio lekukoa. 01:00etatik aitzinera, Tirry&Tery Djak ariko dira Laxoako plazako ostatuan.

BERRIKUNTZAK

Bertako produktuekin egindako menua eta Lanbide Eskolari omenaldia 50. urteurrenean

TTIPI-TTAPA

Gan den urteko Baztandarren Biltzarrean urrats bat gehiago eman eta bertako abeltzain gazteei orgen desfilea irekitzeko aukera eman zitzaizen eta Baztanen nekazaritzak duen presentzia eta garrantzia azpimarratu. Aurtengoan, bide horri segida emanez, omenaldia egiteaz gain, beraiek eta berte Baztandar aunitzek ekoizten dituzten produktuak zerbitzatu dira bazkarian.

Elizondoko Lanbide Eskolak 50 urte betetzen dituenez, urte guzti haue-tan egindako lana omenduz, hauek

izanen dira aurtengo desfilea irekitzearen arduradun. Tonbola ere jarri dute martxan eta zenbait komertzio-tan boletoak erosteko aukera bada. Boleto hauetan baztandar aunitzek emandako sariak aurkituko dituzue. Sari zuzenik ez duten boletoak, tonbolan parte hartzen duten komertzioetan gastatzeko 1.000 euroko zozketa batean parte hartuko dute. Aurten ere kamisetak egin dituzte. Elizondoko Intza ostatuan daude salgai edo egoitzan (larunbatetan 11:00-13:00etara eta besta aitzineko astean atsaldero ere izanen dira salgai.



BAZTAN

GIZARTEA → AZTERKETA AURKEZTU DUTE

Egunero 392 otordu ematen dituzte eskoletako jangeletan

Ikasturtean 222.000 euro inguru mugitzen dira

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 22ko arratsalde bereziki bero eta sapan Elizondoko Arizkuneneako sabaian Baztango eskoletako jantokiei buruz aritu ziren. Hitzorduak *Eskoletako jangeletan zer jan halako Baztan* izenburua zuen eta antolatzailea Baztango udala zen.

Joseba Otondo alkateak ongietorria eman eta elikadurak politika publikoetan eta tokiko ekonomian eduki beharreko garrantzia azpimarratu zuen. Ondotik, Laura Andresena gizarite zerbitzueta teknikiariak Baztango eskoletako jantokiei buruz egindako azterketa aurkeztu zuen. Jantokia duten eskolak Amaiur, Arizkun, Erratzu, Elizondoko eskola, Baztan ikastola, Haur eskola eta lrurita dira. Eskolaz eskola datu xeheak eman zituen eta bilketaren emaitza gisa Baztanen eskoletako jantokietan egunero 392 otordu ematen direla erran zuen, banaz bertze 4,47 euroan eta denera ikasturtean 220.000 euro



UTZITAKO ARGAZKIA

Solaslagunen ikasturte akabaila Amaiurren

Solaslagunak ekimenaren ikasturteari agurra emateko hamar lagun elkartu ziren ekainaren 25ean Amaiurren. Goizean txalaparta tailerra ematea aurrerikusia zuten, baina eguraldiak ez zuen sobera lagundu eta batzuk Amaiurko herria ezagutzen ez zuten, buelta ttipia egin zuten goizean. Errota bisitatzera joan ziren, bertan gosaritxo hartu eta mantso-mantso abiatu ziren berriz ere elkarterat. Bazkari goxoa izan zuten, lagun artean eta giro derrean. Bazkal ondoan, janaria jausteko monolitoa ezagutzera joan ginen. Handik bueltan Amaiurko gazteekin bat egin zuten herriko ostatuan.

inguru mugitzen direla. Halaber, kontratu mota desberdinekin, lan-aldi erdikoak eta ordukakoak denera 23 sukaldari eta zaintzaile daude. Eskoletako batzuk zerbi-

tzua *catering* bidez ematen dute.

Nora Salbotx Amaiurko eskolako zuzendariak beren esperientziaren berri eman zuen. Hogei eta hamabortz urte

dira eskolan sukaldea eta jantokia dutena. Bertan sukaldatzen dute eta erosketak Baztanen egiten dituzte, horretarako hornitzaileen eta bertako ekoizleen zerrenda erabiltzen dute. Jantokia hezkuntza proiektuaren barnean txertaturik dute, horregatik, jantokiaz baino jangelaz mintzo dira. Akitzeko Miren Meoki udaleko hondakin teknikariak Bizkaiko Larrabetzuko esperientziaren berri eman zuen. Larrabetzun jangela guraso elkartaren esku dago eta Eusko Jaurritzak ezarritako catering sisteman sartu nahi izan ez zuten, ez dute laguntzik izaten. Eskolako jangela osasun, hezkuntza eta tokiko ekonomia ikuspegitik lantzen dute eta horren emaitza bezala, jangela gastuaren %65 herrian gelditzen da. Aurkezpenen ondotik harat hurbildutakoen artean Baztango eskoletako jantokiak jangela bihurtu eta tokiko ekonomia indartzeko eztabaida interesgarria egin zen. Iraila etortzekin ekimenari segida emanen diote. Helburua, bertzeren artean, eskoletako jangelek mugitzen duten ekonomiaren zati gehiena Baztanen gelditzea litzateke.

FLASH

Onddoen eraso

Balleko Etxean jantokietatik dauden Javier Cigaren bi margolari eraso egin diete onddoek. Nafarroako Museoaren aholkuekin tratamendua emanen zaie, arazoa moldatzeko. Erpa Lacabe Leone enpresak eginen dituzte lanak 450 euroren truke (gehi BEZa).

Ardoarekin margotutako lanak ikusgai

Ardoaren arima aurkituz. Juan Sebastian Cardenas Rodriguezek ardoarekin margotutako paisaiak eta erretratuak ikusgai daude Arizkunenea Kultur Etxean uztailearen 16ra arte. Goizez eta arratsaldez irekia dago.

Tomas Sobrinoren margolanak

Uztailearen 22tik abuztuaren 28ra Tomas Sobrino Habans margolariaren *Presente continuo* erakusketan izanen da ikusgai Arizkunenean. Astelehenean ortziraleran, 18:00etatik 21:00etara eta larunbat eta besata egunetan 11:30etik 13:30era eta 18:00etatik 21:00etara egonen da ikusgai.

Bisita antzeztuak Irurritako Jauregian

Irurritako Jauregia dorretxea bisitatzeko aukera berri bat zabalduta dute. Uztailean eta abuztuan, asteartetik igandera, egunero eskaintzen dituzte bisita antzeztuak 19:00etan. Sarrerak 6 eurotan. Informazio gehiago www.palaciojauregia.com webgunean edo 676 163702 telefonoan.

Mármoles SOULE
HILETA ARTEA
T. 948 453 444 | M. 688 605 182
ARIZKUN

Pierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Iturriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043
ORONAZ · MUGAIRI

GIZARTEA → ELKARTASUNA

Bakelekuan daude lehen aldiz Sahararik etorritako neska-mutikoak

20 daude Elizondoko Lanbide Eskolan eta bertze 10 familietan

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 25ean iritsi ziren Saharaztan elkartearen eskutik ume sahararrek gure eskualdera. Aurten 30 neska-mutiko izanen dira gure artean uda pasatzen, 10 bertako familietan eta 20 Elizondoko Lanbide Eskolan antolatu den Bakelekuan. Guztiak *Oporrak Bakean* egitasmoaren barnean.

Saharaztan elkarteak urteak daramazki saharar herriari bere elkartasuna eta laguntza



UTZITAKO ARGAZKIA

Saharako neska-mutikoei harrera egin zieten Balleko Etxean uztailaren 2an.

eskaintzen, eta Oporrak Bakean proiektua izaten da bere egitasmo nagusia. Honi esker, urtero saharar haurrak Baztan-Bidasoko familietara ekartzen dituzte udako bi hilabeteak pasatzera. Bi helburu nagusi ditu Oporrak Ba-

kean egitasmoak: batetik, basamortuko udako egoera latzetik umeak atera eta oporrez gozatzeko aukera eskaintzea eta bertetik, elikadura osasungarria eta mediku arreta ematea. Aurten, ordea, proiektua sendotu nahi izan

dute Bakeleku egitasmoarekin.

Saharaztan eta Eneko Euskal Trenbideetako Langileak Mugarik Gabe elkarteek, ANA-Sen (Saharako Lagunen NafarroakoElkartea) laguntzarekin, gure eskualdean abian paratu

duten egitasmoa da Bakeleku Nafarroa. Hala, *Oporrak Bakean* programako hogeitau haur saharar Elizondoko izanen dira udaleku batean. Lanbide Eskolaren egoitzan izanen dira udaleku horiek, uztailaren 2an Balleko Etxean egindako harreraren ondotik eza-gutzera eman dutenez.

37 JATETXEK PARTE HARTU DUTE ZOZKETAN

Saharako haurrak Baztan-Bidasoaldera ekartzeko laguntza moduan, aurten ere bi pertsonentzako afariak edo bazkariak zozketatu ditu Saharaztan, Baztan-Bidasoko Saharar herriaren aldeko elkartasun taldeak. 37 jatetxek bat egin dute Saharaztanaren ekimenarekin. Bi hilabeteko epea dago saria eskuratzeko.

ETXEBIZITZEN SUSTAPENA ALMANDOZEN



Ezaugarriak:

- 101 m²ko etxabea lursailarekin
- 1^o solairua, 69 m² eta 75 m²ko etxebizitza
- 144 m²ko teilatupea
- Distribuzioa bezeroak aukeran

126.000€

info@sarobe.eus
www.sarobe.eus
629 687 171
mmstudio-k diseinatua
www.mmstudio.info · 651 776 998

BAZTAN

GIZARTEA → UDAL GOBERNU TALDEAREN PROPOSAMENA GEROA BAI ETA AUZOLANEAN-EK BABESTU ZUTEN

lazko gerakinarekin 364.000 euroko inbertsioak egingen dira

Proiektu horiek egin ahal izateko dagokion aurrekontu aldaketa egitea ere onartu zen

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 23an egin zuen ohiko osoko bilkuran 2015eko kontuen likidazioaren gerakin edo erremamentea oinarri harturik hainbat inbertsio egitea onartu zuen Balleko Etxeak, denera, 364.000 euroko inbertsioa. Proiektu horiek egin ahal izateko, dagokion aurrekontu aldaketa egitea ere onartu zen.

Hala, EH Bildu eta Ezkerrak osatzen duten gobernu taldearen proposamenak Geroa Bai eta Auzolanean-en babesa izan zuen (denera 9 bozka); UPNeko hiru zinegotziek abstentziorat jo zuten. Aurrekontuen aldaketa onarturik hamabortz egunez jen-



UTZITAKO ARGAZKIA

4.000 kilo zabor baino gehiago bildu dituzte auzolanean

Batzar Nagusiak prentsa ohar bidez eskerrak eman dizkie, Ingurumenaren Nazioarteko Egunaren harira herrietan bazterrak garbitzen aritu zirenei. Auzolanak Aniz, Ziga, Irurita, Lekaroz, Elizondo, Arizkun, Erratzu, Amaiur eta Elbeten egin dituzte. Osotara 4.000 kilo zabor inguru atera ziren herri, erreka bazter eta mendi zokoetatik. 115 lagun baino gehiago aritu ziren lanean auzolan hauetan eta zenbait herritan haurrak ere kanpainaren partaide izan ziren. Batzar Nagusiaren iritziz, ekintza hauek bailara garbitzeko eta batez ere gehiago ez zikin-tzeko bidea jorratzeko balioko dute.

deen aitzinean egon beharko dute eta ondotik indarra hartuko dute. Brea emateko 130.000 euro erabiliko dira; Gorostapolorako 42.500 euro; kiroldegiko aldagetarako 37.500 eu-

ro; Gartzaingo eta Lekarozko eskoletarako 30.000 eta 27.000 euro, hurrenez hurren; Almandoz U.E.rako 22.000 euro; Elizetxe desjabetzeko 15.000 euro; askak egiteko

14.000 euro; igerileku-toldorako 11.000 euro; hiltegiarako 7.000 euro; turismo planoetarako eta webgunerako 3.500 eta 2.500 euro eta Zahar Etxeko inbertsio planerako 3.000 euro.

ALDAKETA ONARTUA

Olanezko nekazaritza azpiegiturak egiteko Plana aldatu du Balleko etxeak

TTIPI-TTAPA

Olanez edo toldoz eraikitako nekazaritza azpiegiturak egin ahal izateko udal planaren behin betiko aldaketa onartu zuen Udalak azken batzarrean Modu horretan nekazaritzako makineria gordetzeko edo nekazaritzako biltegi bezala ibiltzeko olanezko azpiegiturak egiten ahalko dira. Aldaketa honen helburua da nekazariak beren ustiategi edo esplotaziorako beharrezkoak dituzten azpiegiturak egin ahal izateko prozedura erraztea, inbertsio ttipiakoak egin ez eta ataka finantziero handietan sartu gabe.

Aipatu azpiegiturak eraikitzeko, lurzoru ez urbanizagarrian azpiegiturak egin ahal izateko ezarrita dagoen prozedura administratiboa segitu beharko da.

Arotxa



Aroztegia 1890az geroztik

TOLDOAK, ESTOREAK ETA MOSKITERAK | ETXEA - MERKATARITZA - OSTALARITZA



GARAJEKO ATEAK



- Moskitera batekin euli eta moskitoetaz babestu
- Eguzkiak babestu toldo batekin

M. 650 53 20 73

T. 948 58 14 18

arotxa.taller@gmail.com

www.arotxataller.com

IRURITA

ZUGARRAMURDI

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 18AN

Iparreko-bordako familiako 68 lagun elkartu dira



UTZITAKO ARGAZKIA

Arburua eta Iparragirretarrek Etxalarren dituzte sustraiak

Margari eta Koro

Gan den ekainaren 18an egun pulita izan

zen Iparreko-bordako familiarentzat, 68 lagun elkartu baitziren mahai inguruan.

Aipatzekoa da familia hunek Etxalarrekin duen lotura, Arburuatarrek Perugorrikobordatik etorri baitziren XIX. mendeko bukaeran eta Iparragirretarrak berri,

Arburua-Iparragirre familia.

Maixterrenkobordatik XX.mendeko hasieran.

Hortik abiatuta, Teodoro Arburua eta Juxta Iparragirrek hemezortzi haurride izan zituzten Iparrekobordan. Marka pulita!!!

Ea norbaite berdintzera animatzen den...



UTZITAKO ARGAZKIA

Bai Euskarari sarietako bat eskuratu du Museo-lezeak

Museo-lezeak 2013 urtean lortu zuen *Bai Euskarari* zigilua, eta aurten, urterto banatzen den *Bai Euskarari*-ko sarietako bat eskuratu dute. Uztailaren 1ean, Donostia 2016ko egoitzan bildu zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Hainbat lan egiten ari da Herriko Etxea

Hainbat lanetan dabil sartua azken aste hauetan Herriko Etxea: alde batetik, Goiburuko ur-depositoa garbitu eta drenatu dute. Bertze aldetik, leze-ko komunak berritzen ari dira. Eta azkenik, kotxeak aparkatzeko tokiak sortzen ari dira, bentetako bideko bazterreko aldea zabalduz. Argazkian ageri denez, Azketatik hasi eta Bazterretxeraino 200 metro zabaldu dute bidea, aparkatzeko tokia sortu nahian.

ZOZKETA

Ttipi Ttaparen sare sozialetan

BENITO LERTXUNDI kantaldia
ZIGAko Plazan
2016 Abuztuaren 7an Gaueko 21:30 etan

BENITO LERTXUNDI kantaldia
ZIGAko Plazan
2016 Abuztuaren 7an Gaueko 21:30 etan

Sarrera: 0701
Abitzuek 15 €
Eguzkiaren bestean 10 €
16 urterik beherakok doakoa

Argazkia: Herriko Etxea eta Zugarramurdi. Argazkia: Herriko Etxea eta Zugarramurdi. Argazkia: Herriko Etxea eta Zugarramurdi.

Erne datozen egunetan!

URDAZUBI

GIZARTEA → URDAZUBI ELGARREKIN-EN OHARRA

Alkerdiko harrobian udal plangintza errespetatzea eskatu dute

Nafarroako Gobernuak 2013an emandako ustiapen proiektu berria eta luzapenaren baimena baliogabetuko duela uste du

TTIPI-TTAPA

Alkerdiko harrobiko jardueraren inguruan, Urdazubi Elgarrekin udal taldeak argi dauka «Urdazubiko Plangintza errespetatzen ez duen proiekturik ez duela onartuko, ezta herritarren interesen kontra doan edozein proposamenik ere: leherkaririk ez dugu onartuko, matxakadorarik ere ez materiala birrindu eta txikitzeko, hautsa eta zarta sortzen duenik ere ez, ez zaie leizeen inguruan lan egiten utziko, eta ondarea ezingo du espoliatzen jarraitu».

Gai juridikoetan Nafarroako Gobernuaren organo aholkularia den Nafarroako Kontseiluek, Alkerdiko harrobien espedientearen baliogabekotasunari buruzko irizpena eman du eta horren arabera, Na-

farroako Gobernuak 2013an emandako ustiapen proiektu berria eta kontzesioaren luzapenaren baimena baliogabetuko duela uste du Urdazubi Elgarrekin udal taldeak: «erabaki honekin, urdazubitarrek gure helburuak lortzeki gertuago egonen gara: gure ondare kultural, arkeologikoa eta naturala babestu eta gure ekonomia aberatsa eta bizitzeko modu enbidia-garria defendatu».

Berri onak diren arren, udal oposizioko taldea kezkatua dago Herriko Etxeak ez diolako isunik ezarri enpresari, «ez dagoelako horretarako borondaterik».

ENPRESARENTZAT HIRU BIDE

Horren ondorioz, hiru bide izanen ditu Már-



UTZITAKO ARGAZKIA

Axular merkataritza gunea inauguratu dute Dantxarinean

Axular merkataritza gune berria inauguratu dute ekainaren 30ean Dantxarinean. 15.000 metro koadroko azaleran 15 lokal komertzial ditu. Cabeza Sastre arkitektura estudioak proiektatua, merkataritza eta aisialdirako instalazioek osatzen dute. Proiektua 2004an hasi zen eta 12 urte beranduago inauguratu dute. Enpresa sustatzailearen izenean Patxo Egaña, Santiago Villares alkatea eta Nafarroako Gobernuko Turismo eta Merkataritzako zuzendari nagusia den Maitena Ezkutari izan dira inaugurazio ekitaldian. Merkataritza gunean, bi mailatan galeria dauka, supermerkatu, moda eta osagarri denda, lurrindenda, ilea-paindegia, edertasun zentroa, belardenda, albaitaritza zentroa, festa artikuluetan espezializatutako denda, etxeko dekorazio denda eta familiendako aisialdi eremua, baita 600 lagunendako lekua duten jatetxeak ere. 600 autorentako aparkaleku estalia eta doakoa ere eskaintzen du, autobusendako ere egoitua eta merkataritza gunera sarbide zuzena eskaintzen duena.

moles Baztan enpresak, oposizioko udal taldearen erranetan: «lehen, Nafarroako Gobernuaren erabakia ontzat hartu eta errespetatu. Horren arabera, 2003ko lizentziara bueltatu beharko lirake, ustiapen tradizional batekin. Lizentziaren ez betetzeak larriak izan direnez, gure ustez lizentzia hori ere baliogabetu behar

du Udalak». Bigarren irtenbidea Nafarroako Gobernuaren erabakia epaitegietan errekurritzea litzateke, eta epaileek erabakiko dute nork duen arazoia eta azken aterabidea baimen behar eskatzea litzateke, «enpresak proiektua Herriko Etxean aurkeztu beharko du berriro eta orduan, gure herriaren deuseztea geldiarazi

ahal izanen dugu», dio Urdazubi Elgarrekin taldeak. Talde honen ustez, berri onak dira, «borrokatzen eta lanean jarraitu behar dugu elgarrekin, Herriko Etxetik hasita. Beraz, gure baimena izanen dute herri honi kalte egiten dion ustiapen batekin amaitzeko prest dauden pertsona eta elkarte guztiak».

BURKAITZEA
JATETXEA - ERRETEGIA



Eguneko menua,
Plater konbinatuak,
Karta, Bazkariak,
Sandwichak...
Taldeentzako bazkariak

Berezitasunak:
Olagarroa, rodabailoa eta txuleta

Alkerdi auzoa, Zugarramurdiko errepidea | URDAZUBI | T. 948 599 296
restaurantburkaitzea@gmail.com

JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA · TABAKO-DENDA



Egunero irekia
09:00etatik
02:30era

Dantxarineatik
2 km.tara

PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK
MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039
montxoblanco@gmail.com

KULTURA → AGORRILAREN 19AN

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa Larrekorat itzuliko da udan

Golden Apple Quartet-en ondotik, Jean Rondeau pianojolea ere etorriko da

Franck DOLOSOR

Kalitate handiko musika nagusituko da berriz udan. Golden Apple Quartet laukoteak kontzertua eskainiko du Larreko aretoan uztailaren 13an, asteazkenean 19:30ean (15 euro). Badira 30 urte munduan barna dabilela donostiarrak eta errioxarrak biltzen dituen taldea, ahots hutsez eta beti umore haundiarekin!

Bertzalde, Jean Rondeau pianojolearen inguruan goi mailako kon-

zertua eskainiko da gela berean agorrilaren 4an, 21:00etan. Miarritzeko piano klasikoa nazioarteko festibalaren zazpigarren edizioaren karietarat iraganen da hitzordu hori. Agorrilaren 19an, 19:30ean, beti ere Larreko Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren emanaldiaz gozatzen ahalko da, gan den urtean bezala, Donostiako Hamabostaldia sailarekin elkarlanean. Sartzeak 3 eta 15 euro artean. Agorrilaren 26an, 19:30ean, Terranova eta Easo koroak entzuten ahalko dira Jondoni Petrikari elizan. Sartzeak 3 eta 15 euro artean. Azkenik irailaren 8an, musikari gazteen emanaldia eginen dute Ravel Academia sailaren kari.



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

Jondoni Petrikoen ondotik ere bestaz besta Amotzen

Argazkietan ageri denez, herriko bestak ederki iragan eta, orain amotzarrek hartuko dute lekukoa 13tik 17rat. Lehen eguneko paella haundiaren dastatzearen ondotik, biharamunean country dantza ikastaroak eskainiko dituzte. Igan-de arratsaldean, Menditarrak gizon taldearen boz ederrez gozatzen ahalko da. Aldude ibarreko gizonak ohiko euskal errepertorioa emanen dute Amotzeko kantuzaleen artean. Besta on!

Pinturas
Iñaki Alzuyet
margoak

Tel: (0034) 659 862 417
31711 URDAZUBI (Na)

**FATXADAK,
BARNEALDEAK
eta
PLADURRA**

pinturasalzuyet@yahoo.es

GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA
ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALETAN

facebook

www.facebook.com/ttipi.ttapa
www.facebook.com/ttipi.eus

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN

SARA

OSPAKIZUNAK → UZTAILAREN 22AN

Udako besta prestatu dute Usopop-ek eta Gaztetxeak

Ingalaterrako François and the Atlas Mountains eta Donostiako Grande Days taldeek joko dute

Joana GERENDIAIN

Aldi hunetan Usopop eta Sarako gaztetxea elkartzen dira urtaro beroa ospatzeko. Uztailaren 22an, ostirala gauetz, Lur Berriko terrazan Ingalaterratik heldu den François and the Atlas

Mountains taldearen pop melankolikoa baita ere Donostiako Grande Days laukotearen post rock, pop eta rock doinuak entzuten ahaliko dira. Bukatzeko Las Marines diskajartzaileak gaualdia giro onean bukatzeko parada emanen du. Sartzea aitzinetik erosten ahal da 7 eurotan weezent web gunean, bertzenaz egunean berean ere salgai izanen dira 10 eurotan.

Selauru hustea

3. urterako Fiesta des Brocks selauru huste handia iraganen da Sa-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Grande Days donostiarrek goiko argazkian eta Ingalaterrako taldea beheharian.

ran. Uztailaren 16 eta 17an, 300 bat erakusketarik beraien erakusmahaiak instalatuko dituzte plazan eta kiroldegian: zaharkinak, kolekzioak, liburuak eta bertze gauza ainitz erosten ahaliko dira. Sartzea urririk da.

Kontzertua

Sarako Saiberri gizon abesbatzak kontzertu bat emanen du elizan uztailaren 21ean, ostegunez, 21:00etan. Sartzea 5 eurotan izanen da, urririk 16 urte baino guttiagokoentzat.



Erreserbatzeko taldearekin harremanetan sartu behar da.

Pottokaren eguna

Uztailaren 23an Pottokaren eguna ospatu da Sarako plazan.

Goizean hazleek beraien behor eta behokak jautsiko dituzte plaza-rat jendeari aurkezteko eta lehiaketan parte hartzeko. Eguerditan beti plazan bazkari animatu bat antolatua da.



**Gurutze
IPARRAGIRRE
OSKOZ**
Arantza
2014/07/15
II. URTEMUGA

Zu joan zinela badira bi urte
hau dugu hau marka,
ustekabezko argi ilunak zintuen
zu despistatu egun madarikatu hartan,
baina bizia aurrera jarraitzen du
nahiz ta zu bota nik faltan,
zuregatik jarraituko dut
bidearekin kantan,
noizpaitere zurekin topo eginez gero
zuk niri ikusteko dantzan,
maite zintudala esan ez izana dut nik
eguneroko buruko tranpa,
baina zauden lekuan zaudela
matte zattudala ez izan zalantzan.

GOIZANE LEHENGUSINA



**Celestino
OSCOZ ITURRIA**

Arantza, 1923/V/27-2016/07/04

Oroitzapen ederrak utzi dizkiguzu
eta ez zaitugu inoiz ere ahaztuko.

ZURE FAMILIA



**Gregoria
GALZAGORRI JORAJURIA**

Baserrri, natura ta euskera
Gattuzu arront itxatxi
Belar berde ta idor, segarri
Asto, zerri ta aretxi
Lanex itxia kontzen diguzu
umiltasunez irautxi
Guainik aunitz ikasteko ta
zahartzaruk zu ebatxi
Betiko gugan egonen zara
matte zattugu amatxi.


MIKEL



Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua



Koskontoko b., 7 | LESAKA | 948 635 458



Miguel ALMANDOZ TAPIA

Lesakan hil zen, 2014ko uztailaren 22an,
66 urte zituela
II. URTEMUGA

*Gogorra da onartzea
gehiago ez zaitugula ikusiko
baina bizi garen artean
ez zaitugu ahaztuko.*

Bere aldeko meza uztailaren 24an,
09:30ean Lesakako San Martin Elizan.

Martzutzak

ZURE OSPAKIZUNETARAKO
BEHAR DUZUN GUZTIA

- ♥ Soinekoak
- ♥ Ilerako apaingarriak
- ♥ Poltsak
- ♥ Bisuteria
- ♥ ...

Bidasoa, 12 • BERA
948 631 425

EZKONTZAK

Oscar Vera eta Naiara Barandarin, Legasa eta Aresokoa, uztailaren 2an.
Aitor Alastruey Zapirain eta Ana Lopez de Goikoetxea Arbelaiz, Donostiakoak Nabarten, ekainaren 24an.
Philippe Poulain eta Claudine Verzeni, Sarakoak, ekainaren 25ean.

SORTZEAK

Xabat Beorlegi Vicente, Cordovillakoa, ekainaren 21ean.
Ortiz Txoperena Goñi, Igantzikoa, ekainaren 5ean.
Oneka eta Garxot Arhex Fernandez, Iturengoa, ekainaren 7an.
Xan Michel Loustaunau, Sarakoa, maiatzaren 26an.
Eneko Guedes, Sarakoa, ekainaren 6an.
Bastien Xabi Saubion, Sarakoa, ekainaren 8an.
Eñaut Iparragirre, Sarakoa, ekainaren 21ean.

HERIOTZAK

Martin Iribarren Etxenike, Elizondokoa, ekainaren 22an, 76 urte.
Jose Irigoien Arandia, Berakoa, ekainaren 22an, 91 urte.
Maria Pilar Elizalde Jaimerena, Amaiurkoa, ekainaren 23an, 82 urte.
Maria Concepcion Elizetxe Arraztoa, Elizondokoa, ekainaren 24an, 94 urte.
Mariano Claro Del Pozo, Oronoz-Mugairikoa, ekainaren 24an, 94 urte.
Mari Paz Patzuki Igarzabal Salvador, Lesakakoa, ekainaren 27an, 83 urte.
Rafael Genua Irigoien, Etxalarkoa, ekainaren 28an, 65 urte.
Juncal Susaño Valle, Oronoz-Mugairikoa, ekainaren 29an, 53 urte.
Delio Iturburu Maripitzena, Erratzukoa, ekainaren 30ean, 83 urte.
Juan Bautista Maia Altugarai, Arantzakoa, uztailaren 1ean, 55 urte.
Jose Gabriel Urdaniz Jaimerena, Azpilkuetakoa, uztailaren 2an, 76 urte.
Cristina Maia Bergara, Lesakakoa, uztailaren 3an, 103 urte.
Celestino Oskoz Iturria, Arantzakoa, uztailaren 4an, 91 urte.
Begoña Iparragirre Manterola, Igantzikoa, uztailaren 4an, 84 urte.
Miguel Arozena Iribarren, Doneztebekoa, uztailaren 5ean, 83 urte.
Thérèse Lasaga, Sarakoa, ekainaren 22an, 58 urte.
Joseph Errandonea, Sarakoa, ekainaren 22an, 83 urte.
Marie Hirigoyen, Sarakoa, ekainaren 26an, 87 urte.



Aitor DANBORIENA ALZUGUREN

Etxalarren, 2016ko ekainaren 13an

*Lore bat bezala joan zara
udaberria heltzean
gure bihotzean izanen zara
bizi garen artean.*

ZURE FAMILIA



Aitor DANBORIENA ALZUGUREN

Etxalarren,
2016ko ekainaren 13an



*Bestaz ezagutua bertatik bertara
Denbora pasaturik bikote gisara
Orain joan zarela nire ondotik hara
Ezin dut sinetsi eta guztia laga
Nere bihotz barruan beti egonen zara.
Gorde nazazu leku txiki bat zure ondoan,
egunen batean berriz elkartuko gara.*

ASKO MATTE ZATTUT
JAIONE MINDEGIA

Aitor DANBORIENA ALZUGUREN Etxalarren, 2016ko ekainaren 13an

*Bestaz besta,
egunerokoz eguneroko,
taupadaz taupada,
zure irri eta zoriontasun horrekin,*

BETI GURE
BIHOTZEAN
AITOR!!



HIRE KUADRILLA

PILOTA → UZTAILAREN 2AN JOKATU ZUEN FINALA IRUÑEAREN KONTRA

Nafarroako Herriarteko pilota txapelketa irabazi du Doneztebek

Lau partidetatik hiru irabazi zizkion Iruñeari, hirugarren txapela janzteko

TTIPI-TTAPA

2011 eta 2012 urteetan bezala, aurten ere Nafarroako Herriarteko pilota txapelketa irabazi du Doneztebek. Orduan bezala, Iruña izan du arerio eta uztailaren 2an Labriten jokaturako finalean, lau partidetatik hiru irabazi zituzten doneztebarrek.

Alebinetan, Xuban Illarregik eta Aitor Agestak 18 eta 3 irabazi zieten Larrainzar eta Leizari.

Infantiletan galdu zuten partida bakarra Doneztebek. Patxi Loiarrek eta Gaizka Agirrek



UTZITAKO ARGAZKIA

Txapeldunak eta txapeldun ordeak, uztailaren 2an Labriten.

11 eta 18 galdu zuten Perez eta Cuairanen kontra.

Jubenilen partida surtatu zen ikusgarriena eta berdinduena. Azkenean, Iker Salaberriak eta Jon Mariezkurrenak 22 eta 19 irabazi zieten Garcia eta Cordon-i.

Seniorretan, beraz, 10 tanto egitea aski zuten Joanes Bakaikoak eta Jon Gorritik txapela Doneztebera ekartzeko, baina faborito nagusiak izaki, 22 eta 5 irabazi zieten Mayans eta Iruritari. Honela, hirugarren garaipenare-

kin, txapela erraz lortu zuen Doneztebek.

Astebete lehenago Errekak Berria txapelketa irabazi zuela kontuan hartuz, eta Nafarroako Herriartekoa lortuta, orain Euskal Herriko Herriartekoa lortzea du helburu Do-

neztebek. Hain zuzen, Markina (Bizkaia) izanen du arerio finalerdian. Zigoitia (Araba) eta Azpeitia (Gipuzkoa) izanen da bertze finalerdia. Uztailaren 9 eta 16an jokatzekoak dituzte finalerdiak eta uztailaren 23an finala.

PILOTA → EKAINAREN 26AN ILUNPEREN KONTRA

Berria txapelketa irabazi du lehen aldiz Errekak

Hiru partidetatik bi irabazi zituzten Hernaniko finalean

TTIPI-TTAPA

Doneztebeko Erreka elkarteak lehen aldiz Berria pilota txapelketa irabazi du. Ekainaren 26an Hernaniko udal pilotalekuan jokaturako finale-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Errekako pilotariak eta Patxi Ordoki entrenatzailea, gustura txapelarekin.

an 2-1 irabazi zion Azpeitiko Ilunpe taldeari.

Ez zen ongi hasi finala Errekarentzat. Izan ere, kadete mailan, Telletxeak eta Apezetxeak 11-22 galdu zuten Iri-

arte eta Egigurenen kontra. Hortaz, ondoko bi partidak nahitaez irabazi behar zituen Errekak txapela janzteko eta horixe egin zuen. Jubeniletan, Salaberria eta Ma-

riezkurrenak 22-10 irabazi zieten Alberdi eta Odriozolari eta seniorretan ere, Joanes Bakaikoak eta Adur Lasak 22-9 irabazi zieten Etxa-niz eta Uzkudun-i.

HERRI LASTERKETAK → EKAINAREN 26AN

285 korrikalarik parte hartu zuten Doneztebeko 38. Herri Krosean

Antonio Casado eta Vanesa Pacha nagusitu ziren kategoria nagusian



UTZITAKO ARGAZKIA

Emakume taldekoa, pozik helmugaratzen.

TTIPI-TTAPA

Giro ezin hobean joan da aurtengo Doneztebeko Herri Krosearen 38. edizioa. 285 korrikalari izan dituzte guztira, 190 tikiainen lasterketetan eta 95 helduenean. Beraz, zerbait nabarmendu behar baldin bada aurtengo edizioaz izandako partehartze bikaina izan da. Kategoria nagusian, Antsoingo Antonio Ca-

sado nagusitu zen, Alberto Barberena leka-roztarraren eta Daniel Sanzen aitzinetik. San-

ti San Miguel doneztebarra laugarren izan zen. Emakumezkoetan, Uztamako ALVanesa Pa-

cha gailendu zen, Marta Malón eta Marina Vicente gartzaindaren aitzinetik. Victoriana Jua-

Senior gizonak

1	Antonio Casado	24:11
2	Alberto Barberena	24:26
3	Daniel Sanz	24:34
4	Santi San Miguel	25:31
5	Imanol Molinero	26:17

Senior emakumeak

1	Vanesa Pacha	13:29
2	Marta Malón	13:56
3	Marina Vicente	14:15
4	V. Juanikorena	15:18
5	Arantxa Atxukarro	15:48

Herriko gizonak

1	Santi San Miguel	25:31
2	Xabi Bañares	28:07
3	Ibai Ordax	28:12
4	Iñigo Arregi	28:19
5	Gorka Bidegain	29:21

Herriko emakumeak

1	Ainhoa Berasain	15:58
2	Maidier Mindegia	16:03
3	Maidier Jabalera	17:10
4	Amaia Jorajuria	17:58
5	Eduarne Anzizar	18:32

nikorrena elizondarra laugarren izan zen. Ainhoa Berasain izan zen lehen herritarra.

HERRI KIROLA → EKAINAREN 26AN

Malerrekako emakumeak nagusi Abaltzisketako aizkora apustuan

Maika Ariztegik eta Irune Izkuek irabazi zioten esku bakarrak arituz Aierbe ataundarrari

TTIPI-TTAPA

Abaltzisketako bes-ten barrenean, aizkora apustu berezia egin zuten ekainaren 26an. Iñaki Aierbe ataundarra esku bakarrarekin aritu zen, eta Iturengo Maika Ariztegi eta Beintza-Labaiengo Irune Izkue



ARGAZKIA: ATARIA.INFO

Abaltzisketako apustu bereziko protagonistak, laguntzaileekin.

bi eskuekin eta txandakatuz, lau kanaerdiko zeinek lehenbiziko moztu. Aierbe hasi zen azkarrago eta lehenengo kanaerdikoa 21 segundo lehenago ebaki

zuen. Bigarrenetik aitzinera emakumeek aurreratu, eta pixkana tartea handitu zuten.

Azkenean, irabazleek lau kanaerdikoak 13 minutu eta 46 segundo-

tan ebaki zituzten eta desafioaren galtzaileak 17 minutu eta 21 segundotan. Ikusmina sortu zuten norgehiagokak, eta jende ugari bildu zen Abaltzisketako plazan.

uztailak 14 - 28

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eus edo 948 63 54 58

Erakusketak



BERA | 2016.07.20-2016.09.04

'Lorategi bat lorategian' erakusketa berezia Natur Parkean

Hostoak, adarrak, soinuak eta argazkiak bilduz erakusketa berezia osatuko dute Maite Ortega eta Mikel R. Nieto artistek. Bertizko Natur Parkearen barruan lorategi berri bat eraikiz.

Musika



BERA | 2016.07.25

Bertako eta atzerriko folkloreaken besta handia

Gaztefolk Bidasoaldeko Nazioarteko Gazteen Folklore jaialdia uztailaren 25ean ospatuko da Berako Herriko Etxeko Plazan 20:00etatik aurrera. Peru, Ukraina eta Irungo taldeek parte hartuko dute.

Lehiaketak



ARANTZA | 2016.07.15

Herriko txokorik politena eta hobeki zainduenaren bila

Etxe eta etxe inguruak txukun edukitzeak duen garrantzia agerian uzteko, lehiaketa antolatu du estreinakoz Udalak. Parte hartu nahi dutenek uztailaren 15era arteko epea dute argazkiak Herriko Etxean aurkezteko.

Erakusketak

BERTIZARANA

'Lorategi bat lorategian' erakusketa

Uztailaren 20tik irailaren 4ra arte Natur Parkean.

LESAKA

Tren txikitoren mendeurreneko erakusketa

Uztailaren 31ra arte Harriondoa Kultur Etxean.

BERA

'Micromundos a lo bestia' erakusketa

Uztailaren 31ra arte Kultur Etxean. Euskal Herriko ilustratzaileen lanak biltzen ditu.

SARA

Eresoinkaren 80. urteurrenaren harira

Uztailaren 31ra arte Lur Berri Gelan.

ELIZONDO

Juan Sebastian Cardenasen lanak

Uztailaren 16ra arte ardoarekin margotutako paisaiak eta erretratuak, Arizkunenean.

Tomas Sobrinoren erakusketa

Uztailaren 22tik abuztuaren 28ra Arizkunenean.

Ikastaroak

LEITZA

EHUko uda ikastaroa

Uztailaren 15ean harriaz eta harriarekin Iñaki Perurenarekin. Izen-ematea: 948 219511 edo info@uik.eus.

DONEZTEBE

EGA ikastaroa

Abuztuaren 8tik irailaren 2ra klase presentzialak edo online autoikaskuntza. Doneztebeko IKA euskaltegiak antolatuta. Izen-ematea abuztuaren 3ra arte.

ESKUALDEA

Igeriketa ikastaroak

Uztailaren eta abuztuaren eskualdeko hainbat herritan.

Lehiaketak

ESKUALDEA

Erran.eus atarian udako argazki lehiaketa

Irailaren 11ra arte aurkez daitezke erran.eus atarian. TTIPI-TTAPAK hartzen duen eremuan sortu edo bizi eta 16 urtetik goitikoentzat da. Argazkiak eskualdean ateratakoak izan behar dute.

ESKUALDEA

Argazki, margo eta marrazketa lehiaketa Arkupeak-eko bazkideentzat

Irailaren 30era arte aurkez ditzakete lanak bazkideek. Lehiaketako oinarriak boletinean eta arkupeak.com-en irakur litezke.

ARANTZA

Herriko txokorik politena eta hobeki zainduenaren bila

Uztailaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira argazkiak Herriko Etxean.

PROPOSAMENA

ELIZONDO

Baztandarren besta handia uztailaren 17an

Baztango hamabortz herrien bestarekin, baztandarren bilgune izanen dira bertze urte batzuz Elizondoko karririk. Egun osorako besta izanen da: 10:00etatik aitzinera artisau azoka Pedro Axular Karrikan, 11:00etan orga apainduen desfilea, 14:00etan Mutildantzak Herriko Plazan, 14:30ean herri bazkaria Merkatuko Zelaian eta hortik aitzinera Laxoa plazan: 18:00etan Trikidantz taldearekin dantzaldia, 20:00etan Oharkaberen eskutik dantzaldia eta 01:00etan Tirry&Tery DJak.



Kontzertuak

BERA

Animal Blues

Uztailaren 22an 21:00etan

Herriko Etxeko plazan.

Bidasaldeko Nazioarteko Gaztefolk jaialdia

Uztailaren 25ean 20:00etan

Herriko Etxeko plazan.

GAZTELU

Nire taldea

Uztailaren 16an kontzertua

ostatuan, doan, 22:00etan.

SARA

Saiberri taldea

Uztailaren 21ean 21:30ean

elizan.

François and the Atlas Mountains, Grande Days eta Las Marines taldeak

Uztailaren 22an Lur Berriko

terrazan, arratsean.

Ospakizunak

GOIZUETA

Karmen bezpera

Uztailaren 15ean patata tor-

tilla lehiaketa eta herri afaria.

ELIZONDO

Baztandarren Biltzarra

Uztailaren 17an.

SARA

Pottokaren eguna

Uztailaren 23an.

BERA

Erraldoien topaketa

Uztailaren 31n.

Bestak

ITUREN

Herriko bestak

Uztailaren 15etik 18ra.

SENPERE

Amotzeko bestak

Nire aukera



Erramun GALPARSORO

Bihotza Aranon duen donostiarra

«Asteburuan egon litekeen planik onena Aranora joatea da guretzat»

A rano ezagutu zuenean «herriarekin maitemindu» zela esan digu Erramun Galparsorok «pakea, mendiko giro hori... Herria eta herriko jendea ere atsegina egin zait beti. Oso harrera ona izan genuen. Oso eroso sentitzen gara bertan: lasai, goxo...». Duela 15 urte inguru joan ziren Donostiatik Aranora bizitzera «bi ume genituen orduan, 5 eta bi urtekoak eta Donostian pisu batean sartu beharrean Aranon etxe zahar bat zegoen salgai, hura hartu genuen eta obra egin genuen». Orain lan arrazoiak tarteko Donostiara itzuli beharra izan dute «baina ahal dugun guztietan joaten gara Aranora; bertakoak sentitzen gara eta».

Bere ustez txoko eder asko ditu Aranok, baina batez ere udan Mendatze ingurura joatea maite dutela esan digu «Mendatze erreka bazter bat da, oso oso polita dena. Bainuak hartzen ditugu udan, dena basoz inguratua dago. Hantxe oso gustura egoten gara».

Santioak ere barru barrutik bizi dituzte «udan beste plan batzuk baditugu ere, nahi eta nahi ez Aranon egon beharreko egunak dira santioak. Laguntzen, parrandan... gure umeak suelto suelto ibiltzen dira». Arano herri ttiki bat izanik, «jendea behar izaten da gauzak antolatzeko eta ahal dugun moduan laguntzen dugu. Umeentzako jokoak prestatu, bertako produktuekin feria egin... gustura bizi ditugu».

Aranon azken urteetan egiten ari diren herrigintza eskolan ere parte hartzen dute Erramunek eta bere familiak eta asko ikasi dutela diote «memoria bestela nola gorde? herrian dugun ondarea, pasaia, historia... ezagututa umeak konturatzeko dira bizi diren tokia ez dela edozein». Azken tallerrean adibidez, «herriaren etorkizunari buruz gogoeta interesgarriak bildu genituen. Ohartu ziren, herriak gabezia batzuk izan arren, balio handia duten beste gauza asko dituela; haurrek duten autonomia hori adibidez». Erramunek argi du behintzat, «asteburuan egon litekeen planik onena Aranora joatea da guretzat. Neguan bada sua piztu eta goxo goxo egon eta udan leihoak ireki eta beste soinu eta usain batzuk ditu».

«Herrigintza
proiektuari esker
umeak konturatzeko
dira bizi diren tokia
ez dela edozein».

Uztailaren 13tik 17ra.

ARANO

Santio bestak

Uztailaren 22tik 25era.

ELGORRIAGA

Santio bestak

Uztailaren 22tik 25era.

ELIZONDO

Santio bestak

Uztailaren 24tik 28ra.

Azokak

SARA

Artisau eta merkatarien azoka

Astelehenero 09:00etan
plazan.

Bertako ekoizleen azoka

Ortziralero 16:30etik

20:30era frontoian.

Selauru hustea

Uztailaren 16 eta 17an

plazan eta kiroldegian.

Kirola

BERA

3X3 Saskibaloitxapelketa

Uztailaren 23an txapelketa

herrikoia eta **Uztailaren 24an**

elite mailakoa 16:00etan.

XIII. Saria kadete mailako txirrindulari proba

Uztailaren 24an 11:00etan

Euskalduna paretik abiatuta.

Mendi ateraldiak

ETXALAR

Zanpingorri taldearen irteerak

Uztailaren 17an Baztand-

rren Biltzarrera 07:30ean

plazatik abiatuta.

Uztailaren 24an Iratira

07:00etan plazatik abiatuta.

Uztailaren 31n denboraldi

bukaerako ibilaldia.

Ekitaldi gehiagoren berri
izateko, begiratu:

erran.eus

ETXEBIZITZAK
salgai

ORNOZ-MUGAIRI. Pisuua salgai, 90 m²ko azalerakoa. Etxe mobilizatua, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 3 logela, egongela, sukaldia eta bainugela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. Eta 60 m²ko bajera ere salgai 15.000 eurotan. ☎948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI
- Etxe berri bat salgai, mobilizatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE
- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukaldia mobilizatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804
anzabal@anzabal.com

ELIZONDO. Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 59.900 euro. ☎646 774117.

IRUÑEA. San Juan auzoan pisua salgai. Berritua. 122.000 euro. ☎628 032558.

ETXEBIZITZAK
errentan emateko

EZKABA. Iruñetik 5 minutura, 80 m²ko etxebizitza



MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.eu edo erran.eu

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **10€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **12€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutzako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

zitz errentan emateko. 2 logela, egurrezko berogailua, 18 m²ko terraza. Sanferminetan aste-buruak edo aste osoak. ☎601 141671.


DANTXARINEA ONDOAN. Apartamentua errentan emateko. Sukalde egongelarekin, logela bat eta trastelekua. ☎690 388134 / 948 599045.

BERA. Legia 21en, pisua errentan emateko. 100 m², 3 logela, sukaldia, egongela, garbigailuaren gela, balkoi ederra. Igogailuarekin. ☎639 423061 / 696 030394.

DONOSTIA. Etxebizitza errentan emateko, Antigua auzoan, udan. Dena kanpora. Bi logela bikoitzak, sala-sukaldia, bainua eta balkoia. Igogailua du eta Ondarreta hondartzatik gertu dago. Ekaina-Abuztu tarterako, asteka alo-

katzen da. ☎615 307973.

IRUÑEA. Nafarroako Unibertsitate Publikotik bost minutura pisua errentan emateko. Erabat berritua: lau logela, sukaldia, komuna eta egongela. Laugarren pisua, igogailuarekin. Berogailu zentrala barne. Iksleentzako ezin hobe! ☎679 512963.



ELIZONDO. 70 m²ko pisua errentan emateko. Herriaren erdigunean. 2 logela, egongela, sukaldia, jangela, komuna, trastelekua eta garajea. Aukera ona. Etxebizitza 6 urte ditu. Dena kanpora begira. ☎629 212439.

LESAKA. Logelak errentan emateko, astelehenean ortziralera, irailetik aurrera. Bakoitza bere komunarekin, telebistarekin eta sukaldia erabiltzeko aukerarekin. ☎948 637862 / 678 855056.

ERRATZU. 95 m²ko etxebizitza errentan emateko. 2. solairua. 3 logela, 2 balkoi eder. Bista garbiak eta eguzkitsua. Berogailua eta gasa. ☎659 786952.

ETXEBIZITZAK
errentan hartzeko

BERA. Pisua errentan hartu nahi dugun 2 neska arduratsu gara, mobilizatua eta egoera onean egotea. Biak lanean. 400 euro. ☎627 086071 / 663 420685 (deitu 20:00etatik aitzinera).


ETXEBIZITZAK
konpartitzeko

IRUÑEA. Bortziritako bi neska pisukide bila Iruñean. 4 logela eta bi unibertsitatetik hurbil, ongi komunikatuta. ☎697 220915 / 638 161881.

ELIZONDO eta INGU-RUAN partekatzeko pisua bila. ☎631 868455.

GARAJEAK/LOKALAK
salgai

DONEZTEBE. Lokala salgai, 68 m². Leitzako errepidea, 29. Prezio interesgarria. ☎948 456010.



GARAJEAK/LOKALAK
errentan emateko

BERA. 80 m²ko lokal komertziala errentan emateko. 290 euro. Legia 1en. ☎639 423061 / 696 030394.

ZERBITZUAK
zurgindegiak

ARANTZA
Zurgindegia.....

- Klase guzietako zurgin lanak
- Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea
Tel: 948 634 068 - 647 810 144
Gorritibaita - ARANTZA

BASERRIA DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(ekainaren 24tik utzailaren 1era bitarteko prezioak)

<p style="text-align: center;">ZERRIKIA </p> <p>Zerrikumea (19 kilo): 37 €</p> <p>Zerri gizena 1,208 € kiloak.</p> <p>Zerramak: 0,610 € Kg/bizirik.</p>	<p style="text-align: center;">BEHIKIA </p> <p>Aretze gizenak:</p> <p>Idixkoak: €/kg. Kanal</p> <p>Extra 4,16</p> <p>1.koa 3,93</p> <p>2.koa 3,75</p> <p>Urruxak: €/kg. Kanal</p> <p>Extra 4,24</p> <p>1.koa 3,97</p> <p>2.koa 3,80</p>
<p>Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.</p> <p>Aretze tikiak (15 egun ingurukoak):</p> <p>Aretze mestizoak: urruxak 140,00 idixkoak 228,00</p>	<p>Aretze nabarrak: urruxak 120,00 idixkoak 180,00</p> <p>Zaldikoak: €/k Sortuberriak: 3,03/3,13 Zaldi-behorrak: 1,84/2,04</p> <p>Bildotsak: €/k 6-8 kilokoak: 5,40/6,40 8-10 kilokoak: 4,80/5,20</p>

ZERBITZUAK

klase partikularrak

Berako 20 urteko neska euskalduna ekain erditik aitzinera euskara, ingelesa, gizarte eta literaturako klase partikularrak emateko prest. Haurrak ere zaintzen ditu. ☎638 200575.

NARBARTE. Ingelesko klaseak eskaintzen dira, betiere ahozko elkarrizketa libre eta naturala erabilita, ahoskera eta oro har ingeles-maila hobetzeko. ☎628 796955.

Euskara azterketa ofizialak prestatzeko esperientzia duen **euskara irakasle bat** behar da, heldu bati klase partikularrak emateko. ☎637 042401.

LANA

eskaintzak

On-line lanean aritzeko, zerbitzariak, komertzialak, autonomoak edo bertzelako langileak behar dira. ☎699 382673.

URDAZUBI. Montxo osatu-jatetxean esperientzia duen sukaldaria behar da. ☎948 599039.

ZUGARRAMURDI. Alzatenen jatetxean zerbitzaria behar da, esperientziarekin eta frantsesetik dakiena. Asteburuetan abuztuan lan egiteko, eguerditan. ☎948 599187.

Kontabilitate kontuak eramaten dakien langilea behar da goizez, egun erdiz lanean aritzeko, astelehenean larunbatara. Bidali curriculum: ferlantz@gmail.com.

IGANTZI. La Villa jatetxean zerbitzaria behar da, barran eta mahaiak zerbitzatzen esperientzia duena. Sukaldari laguntzailea ere bai. ☎634 592788.

Uztaila eta abuztuan aritzeko langilea behar du te Baztanen; **ostatuko lanetan laguntzeko.** Pertsona heldua nahia go eta kotxearekin. ☎948 453470 eta whatsapp: 663 621982.

Udan egunero **bajilla garbitzen** aritzeko langilea behar du Erratzuko kanpineko ostatuan. ☎663 621982.

LANA

eskariak

32 urteko emakume arduratsua eta zintzoa zonaldean lan bila. Adinekoak eta haurrak zaintzen esperientzia handia. Adinekoak edota haurrak zaintzen interesatua. ☎602 524401.

ELIZONDO eta INGU-RUAN lan bilaketan. Ostalaritzan, sukaldari-laguntzaile, saltzaile, haur zaintzan eta garbiketalan lanetan esperientzia handikoa. Alor hauetan interesatua. ☎660 818256.

Komertzioetan dependienta bezala lan bila. Jendaurrean lan egiteko prest eta langilea. Frantses maila altua. ☎606 552350.

Mutil bat lan bila. DBH eta administrari teknikari ikasketekin. Hainbat alorretan esperientziaduna: komertzioetan dependiente bezala eta fabrikari operario bezala. Bereziki interesa dependiente bezala lan egiteko, baina beste esparrutan ere bai. ☎646 307234.

MOTORRAK

tailerrak



MOTORRAK

salgai

Multivan T5 salgai, 109.000 km. 131 zaldi. Arras ongi zaindua. ☎699 375558.



Mercedes Vito 639D 115 CDI salgai. 152.000 km, modelo luzea, 150 CV, 2004koa. 13.500 euro. ☎650 645782.



DENETARIK

salgai

ORONOZ. Egurra xehetua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramaten da. ☎676 242520.



Sei altzairuzko fregadera salgai, haundiak, 1,5 metro luze, forma borobila. ☎948 585036.

5 bero-metagailu (akumuladore) salgai, Thermo Technik TTB markakoak. 50 euro bakoitzak. Beran jasotzeko. ☎687 337001.



Automóviles IMOBA
Okasioko ibilgailuen salerosketa
FORD auto berriak eta Km 0
VW TOURAN 2012 ETA 2013
INITATE DESBERDINAK-14.500 €tik AURRERA

FORD CMAX 2012-80.000 KM
11.990 €

TOYOTA AURIS 126CV-DIESELA
2007 URTEKOA - 5.900 €

Irun-Iruña errepidea
N-121-A 63 km **BERA**
948 630 750 | 648 231 361
www.automovilesimoba.com

Haritz egurra salgai, Donezteben. 40 euro tonan. ☎686 314036.



Egoera onean dagoen **egongelako altzaria** salgai 500 eurotan. ☎636 113226.



ARANTZAKO UDALA

Arau Subsidiarioen aldaketa egituratzailea

Hasierako onespena

Arantzako Udalak, 2016ko ekainaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen Arantzako Arau Subsidiarioen AR-2 A lur urbanizagarri ez sektorizatuaren aldaketa hasiera batean onestea, Arantzako Udalak berak sustatua. Horren helburua da lur zati horiek (5. poligonoko 423., 425., 426., 427., 430., 431., 693. eta 747. lur zatiak) produktibitate ertaineko lurzoru urbanizazinaraz aldatzea.

Espedientea jendaurrean egonen da hilabetean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik, aztertu eta bidezko alegazioak aurkez daitezten.

Arantza, 2016.06.30

Alkatea,
Juan Miguel
Almendoz Mitxelena

Kotxeko bolan jartzen den **bizikleta-eramatekoa** salgai. Hiru bizikletarentzat. Berri-berria. Seinalizatzeke panela barne. ☎610 213326.

hemen agertu nahi duzu?

egin zure erosketa erran.eus en

IRAGARKIA
2 aldizkaritan
+ interneten

10
EURO

urtebetetzeak

Argazki soila: 5€; bikoitza: 10€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,42€ko 12 edo 24 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekea; 4) erran.eus bitartez



Pasa den uztailaren 7an **NAHIA PUMAR** Iturriotz lesakarrak 9 urte bete zituen. Miloi bat muxu eta besarkada, atta, ama, amabix, ataxi eta osaba Xabiren partetik, guapa!!



IRENE PETRIRENAK 34 urte bete ditu uztailaren 12an. Zorionak Enaitz eta Izarne seme-alaben partetik, eta aitaren partetik.



UXUE BIKONDO eta **JULEN SARRATEARI** zorionak! Ekainaren 29an 9 eta 2 urte egin dituzte. Irurita eta Muti-loako familia eta bereziki Aritz eta Oinatzen partetik.



LABAINGO MARIA TELLETXEA **ITURRALDEK** uztailaren 3an 16 urte bete ditu. Zorionak familiaren partetik eta muxu handi bat.



LAKUNTZAKO MADDI SAN SEBASTIAN **ARRAZAK** abuztuaren 13an 12 urte beteko ditu. Familia guztia partetik zorionak eta besarkada haundi bat.



Uztailaren 16 eta 27an **MARICARMEN** eta **MIGUEL DONAMARIKO** atatu-xi-amatxik urteak beteko dituzte. Zorionak hiru biloben partetik, bereziki Ainara eta Ibairen partetik. Prestatu bazkari edo berendu goxo-goxoa. Muxux aunitz.



Berako **ALAIN ENDARA RODRIGUEZ** 4 urte beteko ditu uztailaren 13an. Zorionak aita, ama, Nahia arreba eta Berako familiaren partetik.



PABLO IRAZOKI OLAIZOLA Urdazubiko mutil jator honi, zorionak ekainaren 29ko partez. Udaz disfrutatu eta muxu pila bat. Sunbillako ikastetxetik.



Elko, Nevadako **KYLE OWSELY** **YOAK** 18 urte beteko ditu uztailaren 23an. Zorionak Lesakako familiaren partetik. Kisses for you.



Lesakako **GARAZI ETXEPARE ALEMANEK** 6 urte beteko ditu uztailaren 15ean. Zorionak familia eta bereziki Unai eta Markelen partetik. Muxu bat amatxo eta aitatxok.

hemen agertu nahi duzu?

egin zure erosketa **erran.eus** en

argazki soila 5 EURO

argazki bikoitza 10 EURO

ttipi txartela

DESKONTUAK

<p>Olaia Bazar Leitza OLAIA BAZAR Leitza %10, 30etik gora</p>	<p>Fisioetxea Leitza FISIOETXEA Leitza %10, 10 saioko bonoan</p>	<p>Arrate Etxetika Zentroa Doneztebe ARRATE Doneztebe %10 Skeyndor kremetan</p>	<p>Leitza Kirolak Leitza LEITZA KIROLAK Leitza %5, 30etik gora</p>	<p>Ogi Berri Leitza OGI BERRI Leitza %5 gozotegian 25etik gora</p>
<p>Irrisarri Land Igantzi IRRISARRI LAND Igantzi %50 sarreran %20 tiro/pend.</p>	<p>Bixkiak Lesaka BIXKIAK Lesaka %5</p>	<p>Etxe Tresnak S.L. Leitza ETXE TRESNAK Leitza %10 koltxietan etab.</p>	<p>Iparla Kirolak Elizondo IPARLA Elizondo %8, 30etik gora</p>	<p>Zortziko Leitza ZORTZIKO Leitza %5 gozotegian 30etik gora</p>
<p>Zentru Berria Elizondo ZENTRU BERRIA Elizondo %10 kontsulta-terapien</p>	<p>Ipingi Elizondo IPINGI Elizondo %10, 30etik gora</p>	<p>Master Altzuri Lesaka ALTZURI Lesaka %5 ebetresnetan</p>	<p>Kirolak Zela Bera ZELA Bera %5 kirol artikuluetan</p>	<p>Alustiza Doneztebe ALUSTIZA Doneztebe %10, 30etik gora</p>
<p>Foto Mena Elizondo MENA Elizondo %10 kopia digitalean</p>	<p>Kulunka Leitza KULUNKA Leitza %5, 30etik gora</p>	<p>Bortzirudi Bera BORTZIRUDI Bera %5 kopietan etab.</p>	<p>Kattagorria Lesaka KATTAGORRIA Lesaka %10 lenterian</p>	<p>Kapritxo Leitza KAPRITXO Leitza %10, 30etik gora</p>
<p>Zaldia Doneztebe/Elizondo ZALDUA Doneztebe/Elizondo %10 produktuetan</p>	<p>Katea-Bike Bera KATEA-BIKE Bera %5 konponketetan</p>	<p>Ttapa Lesaka TTIPI TTAPA Lesaka %10, eskeletan</p>	<p>Mari Cruz Donez/Eliz MARI CRUZ Donez/Eliz %10, 30etik gora</p>	<p>Ostargi Optika Bera OSTARGI Bera %5 produktu guztietan</p>
<p>Datucelay Elizondo DATUCELAY Elizondo %10 batera eta amort.</p>	<p>Hernandorena Leitza HERNANDORENA Leitza %5, 30etik gora</p>	<p>Gaztelu Leitza GAZTELU Leitza %15 bainu osagarrietan</p>	<p>Nafarpres Elizondo NAFARPRES Elizondo %10 liburu eta materialean</p>	<p>Intzuri Optika Lesaka INTZURI Lesaka %5 produktu guztietan</p>
<p>Sansiñena Elizondo SANSIÑENA Elizondo %5 olio adaketan</p>	<p>Ariztela Leitza ARIZTELA Leitza %5 30etik eta %10 50€ gora</p>	<p>Elbeteko Posada Elbete ELBETEKO POSADA Elbete %10 kartan 30etik gora</p>	<p>Maimur Leitza MAIMUR Leitza %10 oparietan</p>	<p>Mendaur Doneztebe MENDAUR Doneztebe %5 zakur eta kaluen pentsetan</p>
<p>Semper Bera/Lesaka SEMPER Bera/Lesaka %10 matrikulan</p>	<p>Garbi Leitza GARBI Leitza %5, 30etik gora</p>	<p>Udal Kiroldeg. Lesaka UDAL KIROLDEG. Lesaka %40 matrikulan</p>	<p>Oreka Lesaka OREKA Lesaka %5 kontsultan</p>	<p>Jaione Tindategia Doneztebe JAIONE Doneztebe %10, 12etik gora</p>
<p>Kukuka Doneztebe KUKUKA Doneztebe %10 pijama etab.</p>	<p>EDR Gunea Leitza EDR GUNEA Leitza %5 30etik eta %10 50€ gora</p>	<p>Urdi Bera Bera URDI BERA Bera %20 urteko matrikulan</p>	<p>Kimetz Doneztebe KIMETZ Doneztebe %5 kosmetikan etab.</p>	<p>CASA OSTIZ Doneztebe OSTIZ Doneztebe %10 oinetakoetan</p>
<p>J.J. PİKABEA Doneztebe J.J. PİKABEA Doneztebe %10</p>	<p>Amaya Picabea Doneztebe AMAIA Doneztebe %5 kosmetikan etab.</p>	<p>Agara Bera AGARA Bera %5 kirol artikuluetan</p>	<p>Elika Bera ELIKA Bera %5 kontsultan</p>	<p>Txinelka Lesaka TXINELKA Lesaka %10</p>

Koskontako bidea, 07-1 | 31770 LESAKA
T. 948 635 458 | erran.eus | info@ttipi.eus

ETA JAIETAN... ZER?



JAIETAN ERRESPETUZ BIZI GARA

ttipi txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | erran.eus



ZOZKETAK

- Etxalarko Ostata - 2 otordu
Tere Arretxea Iraizoz | ORNOZ MUGAIRI
- BKZ Abentura - 2 tiket Penduloa
Mikel Mutuberria Santesteban - DONEZTEBE
- Arkupe - Txokolate lote bat
Nekane Atxa Mindegia | LEGASA
- Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera
Victoriano Sansinena Martiarena | ELIZONDO
- Onddo ta punto | Kamiseta bat
Juan Miguel Urroz Agesta | SUNBILLA
- Donostiako Aquariuma - 2 sarrera
Ana Aierdi Baraibar | LEITZA
- Lanku argitaletxea - Liburu bat
Joakin Lizaso Bakaikoa | ZIZUR NAGUSIA
- Lanku argitaletxea - Liburu bat
Leire Karrera Odriozola | LEITZA
- Lanku argitaletxea - Liburu bat
Juan Pedro Osakar Agerrebere | ZIGA

665.
aleko irabazleak



CD bat
ESNE BELTZA
www.esnebeltza.eus



2 tiket
TIROLINA
BKZ ABENTURA
www.navarraabentura.com



2 SARRERA
IRRISARRI LAND
www.irrisarriland.com



GONBIDAPENAK
EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es



KAMISETA BAT
BUATXABAL
www.buatxabal.eu



2 SARRERA
DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

LIBURUAK



- Egiptoarrak
- Erromatarrak
- Greziarrak
- Zeltak

Itzulpenak:
Anton Garikano



TTARTALO
www.ttartalo.eus

DESKONTUAK %



BERA | %5, kirol artikuluetan



ELIZONDO | %10, batera eta amortiguadoretan



DONEZTEBE | %10, pijama eta baruko arropetan



LESAKA | %10, eskeletan



IGANTZI | %50, sarreran eta %20, tirolinan eta penduloetan



BERA/LESAKA | %10, matrakulan